

Jakin172

maiatza-ekaina
2009



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

.....



KULTURA SAILA

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



ZENBAKI HONETAN

7

GAIAK

11 Euskal liburutegi digitalak: 2007-2009

GERARDO LUZURIAGA

ROBERTO KEREXETA

47 Euskal Herriko lurralde gatazka luzea.

Europako aukera

JULEN ZABALO

JEAN PIERRE MASSIAS

73 Nazionalismoa biribilgunean

XABIER AGIRRE URTEAGA

EGUNEN GURPILEAN

93 **XABIER GANTZARAIN**

INAKI IRAZABALBEITIA

UXUE ALBERDI

LIONEL JOLY

JOSU LARRINAGA

© **Jakin**

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

Jakin

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07
jakin@jakingunea.com
www.jakingunea.com

2009ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	50 €	—
Ale arrunta	8,30 €	10,50 €
EUROPAN		
Harpidetza	65 €	—
Ale arrunta	11 €	13,50 €
EUROPATIK KANPO		
Harpidetza	75 €	—
Ale arrunta	15 €	17,50 €

SUMMARY



BASQUE DIGITAL LIBRARIES: 2007-2009

The documentalists Gerardo Luzuriaga and Roberto Kerexeta present the new features that have emerged within the world of digital libraries in the Basque Country during the period 2007-2009, thus lending continuity to another article published in this very same magazine in 2007. As at that time, they again provide us with the electronic addresses and general features of digital libraries. **GERARDO LUZURIAGA / ROBERTO KEREXETA**

THE LONG TERRITORIAL CONFLICT OF THE BASQUE COUNTRY. THE EUROPEAN OPTION

The professors Julen Zabalo and Jean Pierre Massias focus their analysis on the national conflict that the Basque Country maintains with Spain and France. One of the theoretical solutions that Basque nationalism has considered as a means of resolving the conflict involves turning our gaze towards Europe. However, before dealing with this specific case, the authors explain the historical development of the territorial conflict between the Basque Country and the Spanish and French states. **JULEN ZABALO / JEAN PIERRE MASSIAS**

ABOUT NATIONALISM

Xabier Agirre Urteaga, Doctor in Philosophy, analyzes the issue of nationalism via the framework of political philosophy in order to end up with a series of common political clichés. On the one hand, he identifies the basic ideas behind the four current philosophical-political families: republicanism, liberalism, communitarism and cosmopolitanism. He then goes on to describe the familiarity each of them has with nationalism and the options for development they provide. **XABIER AGIRRE URTEAGA**

NEWS TODAY

This section gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. Current affairs in the field of art, technoscience, literature, socio-linguistics and globalization will be analyzed this year. This section draws on various specialists: Xabier Gantzarain, Inaki Irazabalbeitia, Uxue Alberdi, Lionel Joly, and Josu Larrinaga. **VARIOUS AUTHORS**

ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 172. zenbakia da eta 2009. urteko hirugarrena.

Zenbaki honetan ez da gai nagusirik lantzen. Horren orde, *Gaiak* saillean, elkarren artean lotura zuzenik ez duten hiru artikulua aurkezten dizkizugu. Honako gaiak lantzen dira, hain zuzen, artikulua horietan: euskal liburutegi digitalen bilakaera 2007-2009 urteetan; Euskal Herriak Espainia eta Frantziarekin duen nazio eta lurralde gatazka; nazionalismoak egungo familia filosofiko politiko nagusiekin dituen erlazioak.

Lehenengo artikuluan, bada, Gerardo Luzuriagak eta Roberto Kerexetak, 2007ko 160. zenbakian «Liburutegi digitalak» izenburuarekin argitaratutako artikuluari jarraipena emanez, azken bi urteotan Euskal Herriko liburutegi digitalen panoraman agertu diren proiektu berriak aurkezten dituzte. Lehen artikulua hartan bezala, liburutegi digital horien helbide elektronikoak eta ezaugarri nagusien deskribapena eskaintzen dute.

Julen Zabalo eta Jean Pierre Massiasek, bigarren artikuluan, Euskal Herriak Espainia eta Frantziarekin duen nazio gatazka luzearen auziari helitzen diote. Euskal nazionalismoak hainbat aukera teoriko aztertu izan ditu gatazka horri irtenbidea emateko, eta horietako bat Europarena izan da. Kasu partikular horretaz jardun aurretik, dena den, gatazkaren mui-nean datzan alderdi orokorra aztertzen dute egileek artikulua honetan: Euskal Herriaren eta Espainiako eta Frantziako Estatuaren arteko lurralde gatazkaren bilakaera historikoa eta egungo egoera.

Hirugarren artikuluan, azkenik, Xabier Agirre Urteagak nazionalismoaren auzia filosofia politikoaren ikuspegitik aztertzen du, auzi filosofiko zabalago baten zatia dela erakuste aldera. Bide batez, begirada zabaltze honekin hainbat topiko politiko agerian utzi eta horien erabilpen traketsa salatu nahi du. Batetik, egungo familia filosofiko-politiko nagusien oinarritzko ideiak aurkezten ditu: errepublikanismoa, liberalismoa, komunita-

rismoa eta kosmopolitismoa. Bestetik, guztiek nazionalismoarekin izan lezaketen ahaidetasuna eta berorri bakoitzak eskaini ahal dizkion ibilbide aukerak erakusten ditu.

Egunen gorpilean saila dator azken orrialdeetan. Ohi denez, azken hilabeteotako berrien iruzkin labur eta biziak dakartzate Xabier Gantzarainek Artean, Inaki Irazabalbeitiak Teknozientzian, Uxue Alberdik Literaturan, Lionel Jolyk Soziolinguistikan eta Josu Larrinagak Glocalia atalean. ¶



- 11** GERARDO LUZURIAGA
ROBERTO KEREXETA
Euskal liburutegi digitalak: 2007-2009
- 47** JULEN ZABALO
JEAN PIERRE MASSIAS
Euskal Herriko lurralde gatazka luzea.
Europako aukera
- 73** XABIER AGIRRE URTEAGA
Nazionalismoa biribilgunean

Euskal liburutegi digitalak: 2007-2009

GERARDO LUZURIAGA
ROBERTO KEREXETA

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza
saileko dokumentalista

Eusko Jaurlaritzako Dokumentu Ondarearen Zentroko
(Iragi) teknikaria

Sarrera

Duela bi urte, 2007ko *Jakin* aldizkariaren 160. zenbakian, «Liburutegi digitalak» izenarekin argitaratutako artikuluan hainbat alderdi aztertu ziren, besteak beste: liburutegi digitalari buruzko gogoeta zabala; Europako liburutegi digitalek egindako lehendabiziko urratsak; Euskal Herriko liburutegi digitalen helbide elektronikoak, ezaugarriak eta funts garrantzitsuenak. Hots, Euskal Herriko liburutegi digitalen proiektu nabarmenenak eta esanguratsuenak deskribatu ziren. Agerian geratu zen Euskal Herrian hamaika proiektu abian zeudela, eta, batez ere, proiektu bateratu eta koordinatua izateak duen garrantzia digitalizazio esparru honetan, eta benetan proiektu horren premian geundela.

Egun, liburutegi digitalei dagokienez, antzeko egoeraren aurrean aurkitzen garelakoan gaude, nahiz eta azken bi urte hauetan bi proiektu azpimarragarri martxan jarri diren: batetik, Nafarroako Liburutegi Digitala (BiNaDi), Nafarroako Gobernuak sortutakoa; eta bestetik, OndareNet proiektua, Eusko Jaurlaritzarena. Hortaz, hemendik aurrera Nafarroako

ondare bibliografiko digitala (literatura eta zientzia lan garrantzitsuenak) teknologia berrien bitartez kontsultagai izango da, eta, beraz, informazioa denon eskura egongo da. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskadiko webgune eta fitxategi elektronikoak jasotzea eta zabaltzea erabaki du. Kontua da, orain lehen bezala, Euskal Herrian ez dagoela ekoizpen digitala jasoko duen erakunderik; oraindik ez da sortu Euskal Liburutegi Nazionala, eta hortaz, ez dago euskal ekoizpen digitala jasotzez arduratzen den erakunde nagusirik. Aurreko artikuluan argi samar geratu zen digitalizazio politika planifikatua eta koordinatua edukitzeak daukan garrantzia edozein herrirentzat; eta, bereziki, liburutegi nazionala izateak, liburutegi digitalaren ardatza izan dadin, gure inguruko herri gehienetan gertatzen den bezala. Euskal Herriaren kasuan, tamalez, oraindik esparru hori koordinatze-ko erakunde nagusi horren faltan gaude.

Azken bi urte hauetan hamaika egitasmo jarri dira abian, baina bi baino ez ditugu aipatuko: *Europeana* eta *Munduko Liburutegi Digitala*. Europako Liburutegi Digitala (www.europeana.eu/portal) 2008ko azaroaren amaieran jarri zen abian, egoitza Herbehereetako Liburutegi Nazionalan dauka eta Europa osoko funts bibliografikoak sarean jarri ditu datu-base bakar batean. *Europeana* egitasmoa Europako Liburutegi Nazionalen Batzordean sortu zen, eta urteak pasatu ahala, liburutegi nazionalen arteko proiektua sendotuz joan da. Munduko Liburutegi Digitala (www.wdl.org/en), berriz, 2009ko apirilean Unescok hogeit hamar erakunderen laguntzarekin sortu du. Eskuizkribuak, mapak, liburu bitxiak, musika partiturak, grabazioak, filmak, grabatuak, argazkiak eta arkitekturako marrazkiak eskaintzen ditu, besteak beste.

Bestalde, azkenaldian digitalizazioaren gainean gehien entzun den hitza liburu elektronikoa izan da. 2008ko bukaeratik bi fabrikatzaile europarrek bi irakurgailu marka (Iliad eta Booken Cybook) jarri dituzte salgai euskal bezeroen eskutik. Merkatuan, berriz, irakurgailu marka asko daude: Sony reader, Kindle, Cytale, Glasbook, Librius, Hanlin, Flepian...

Eta zer ulertzen dugu liburu elektronikoaz? Liburuak irakurtzeko aukera ematen duen euskarria da irakurgailu elektronikoa. Gailu horren bitartez, irakurleak gai izango dira liburu elektronikoetako testuak irakurtzeko; eta, besteak beste, ondoko ezaugarriak ditu: ohiko liburu baten neurria edo txikiagoa; pisu gutxikoa, erdia gutxi gorabehera; tinta elektronikoa erabiltzen du eta liburu asko gordetzeko aukera eskaintzen du.

Baina, jakina, liburu elektronikoa edo digitala, euskarria izateaz gain, objektua ere bada. Liburu elektronikoa izenak berak argi uzten duen bezala, paperezko liburuen bertsio elektronikoa nahiz digitala da. Beste era batean esanda, paperezko liburuen ordezkaria da. Kontzeptu hori aspalditik ezagutzen da, 1971n eman ziren lehendabiziko urratsak eta 1980ko hamarkadan zabaldu zen, eta honako ezaugarriak dauzka: testua formatu digitalean dago, fitxategi elektronikoa dauka euskarri gisa, sarean kontserbatu eta pantailan irakurtzen da.

Liburu elektronikoak Internet bidez hedatzen hasi ziren unean, jende askok paperezko liburuaren desagertzea iragarri zuen. Aitzitik, ez dirudi liburuak desagertuko direnik, ez behintzat epe motzera, nahiz eta gero eta gehiago izan liburuak orain arte betetzen duen lekua bereganatzeko prest dauden liburu eta gailu elektronikoak. Liburu elektronikoaren benetako zabalkundea oraindik gertatu ez bada ere, jada errealitatea dira; egun, mota horretako tresnak kontuan hartzekoak dira, arlo teknikoetan batez ere. Poliki-poliki, paperrak irakurgailu horiei utziko die lekua, dagoeneko aldaketa handia ekarri du eremu zientifikoetan, liburugintzako ekoizpen eta zabaltze prozesuan.

Bi urte hauetan erakunde gehienek funts bibliografikoak digitalizatzen jarraitu dute; beraz, euskal bildumak gehituz joan dira. Edozein erabiltzailek klik soil batekin digitalizatutako funts bibliografikoak eskuragarri ditu edozein ordenagailutatik. Adibide gisa, Euskaltzaindiaren kasua aipa dezakegu: badira zortzi bat urte edukiak sarean jarri zituela, *Plazaberri* albistegi elektronikoa duela hiru urte inguru sor-

tu zuen, eta orain blogaren aldeko erronka egin du, euskaltzainen eta oro har euskalgintzan ari direnen parte-hartzea bultzatzeko asmoz.

Halaber, gaur egun, liburutegiko katalogoen esparruan eman den beste aurrerapauso nabarmen bat aipatu nahi dugu: digitalizatutako liburuen kontsulta. Horrela, bada, katalogo bibliografikoetako fitxetako eremu jakin batean lanen helbide elektronikoak jasotzen dira eta aurrez digitalizatutako dokumentuen testu osoak kontsulta daitezke. Beraz, liburutegietako katalogoa betidanik tresna garrantzitsua izan bada, zer esanik ez hemendik aurrera.

Aurreko artikuluan erakundeek digitalizatutako funtsen aipamena baino ez genuen egin; oraingoan erakunde bakoitzak atalez atal aztertu dugu. Adibide gisa hiru erakunde aipatuko ditugu: batetik, Antso Jakituna Fundazioaren *Aldizkariak eta aldizkarien artikulak*, *Artxibo pribatuak*, *eskuizkribuak*, *liburuak...*; bestetik, Euskaltzaindiaren *Araua*, *Corpusa*, *Iker bilduma*, *Iker/Jagon-Tegiak*, *Hiztegi Batua*, *Izendegiak*, *Jagonet*, *Villasanteren artxiboa...*; eta, azkenik, Eusko Ikaskuntzaren *3digitala*, *ADEVE*, *Azkoaga*, *Azpilcuetta*, *Baliabide pedagogikoak*, *Barandiaran bilduma*, *Euskal Herriko Natura*, *Euskonews & Media*, *Formula*, *Hedatuz*, *Ikastaria*, *Ikusgaiak*, *Isturitz*, *Jaien egutegia*, *Jose Maria Arizmendiarieta*, *Juan Garmendia Larrañaga*, *Mediateka*, *Musiker*, *Naturaren Ahotsa*, *Naturzale*, *Oihenart*, *Ondare*, *Osasunaz*, *RIEV*, *Vasconia*, *Zainak...*

Bukatzeko, ikus dezagun zer aurkituko dugun artikuluhonetan: lehendabizi, bi urte hauetan sortutako proiektu berrien deskribapena, ezaugarriak eta funts garrantzitsuenak nabarmendu ditugu; eta, bigarrenik, erakundeen sarrearen aurkibidea helbide elektronikoekin, bai aurreko artikuluan aztertutakoak, eta baita azken bi urte hauetan sortutako proiektu berriak ere, azken horiek izenaren atzean izartxo bat (*) dutela. Azken finean ezin dugu ahaztu artikuluhau aurrekoaren jarraipena dela.

Proiektu berriak

- *3digitala* (Eusko Media Fundazioa, Eusko Ikaskuntza) (www.3digitala.com/eu). Euskomediak euskal kultura eta artearen inguruko 20.000 argazkiko bilduma digitala sortu du. Proiektu honen helburua 500.000 argazkiko bilduma lortzea da, sarean euskal gaiei buruz izango den bildumarik handiena, alegia. Gehienbat, paisaien, ohituren, artearen eta pertsonen argazkiak bildu dituzte webgunean. Oraingoan, Antxon Agirre, Jesus Telleria, Juan Mari Zurutuza, Kepa Etchandy eta Arantza Cuestaren funtsek osatzen dute bilduma. Edozein profesionalak edo zaletuk parte har dezake proiektu honetan.

- *ADEVE - Iraungitzeko Zorian Dauden Espezieak Defendatzeko Elkartea* (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/adeve?idi=eu). ADEVE 1991n sortu zen. Webgune honetan *Naturaren Ahotsa* eta *Euskal Herriko Natura* aldizkarien artikuluak ez ezik, liburu batzuk testu osoan ere eskura daitezke, hala nola, *Donostiako hegaztiak* (2008), *Donostiako itsaspeko fauna eta flora* (2008), *Euskal Herriko onddoak* (2005), *Munduko krokodiloak* (2006), *Munduko apoarmatuak* (2006)...

- *Aldizkariak eta aldizkarien artikuluak* (Antso Jakituna Fundazioa) (<http://librivision.fsancho-sabio.es/indexsnveusk.html>). Antso Jakituna Fundazioaren atal bat da, datu-base baten bitartez aldizkarien erreferentziak eta aldizkarien artikuluak aurki daitezke.

- *Antzerti aldizkaria* (Armiarma) (<http://antzerti.armiarma.com/gehiSarr.htm>). Euskal antzerkigintzaren historian erreferentzia nahitaezkoa da *Antzerti* aldizkaria. 1932ko urtarrilean plazaratu zen lehen zenbakia eta handik aurrerako zenbaki guztiak daude eskuragarri testu osoan.

- *Arabako Artxibo Historiko Probintziala* (<http://eu.www.mcu.es/archivos/MC/AHA/Actividades.html>). Arabako lu-

rralde historikoan sortutako dokumentazio historikoa bil-tzea du helburu, ehun urte baino gehiago duten erregistro eta notario agiriak, funts pribatu eta beste dokumentazio bilduma batzuk, besteak beste.

- *Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala* (<http://web.alava.net/botha/Busquedas/SGBO5016.aspx>). Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala foru, estatu eta autonomia organo eta erakundeen eta hainbat entitatere- xedapenak, ebazpenak, egintzak eta iragarkiak argitaratzen diren aldizkari ofiziala da. 1998tik aurrerako boletinak kont-sulta daitezke sarean testu osoan.

- *Arauk* (Euskaltzaindia) (www.euskaltzaindia.net/arauak). Euskaltzaindiak orain arte erabaki dituen arauak kontsulta daitezke, besteak beste: «Munduko estatu-izenak, herrita- rren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak» (38), «San- tutegiko izen ohikoenak» (66), «Latin eta greziar pertso- na-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko era- bakia» (76), «Euskal Herria izena» (139), «Antzinateko hi- rien euskarazko izenak» (147), «Espainia-Frantzietako es- kualdeen izenak» (151), «Europako eskualde historiko-poli- tiko nagusiak» (154), «Nafarroako udal izendegia» (155).

- *Artxibo pribatuak* (Antso Jakituna Fundazioa) (www.fsancho-sabio.es/archinet/main.asp). Datu-base honen bitar- tez Antso Jakituna Fundazioaren artxiboen (1333-1989) agi- riak eta Vital Kutxaren fototekaren agiriak kontsulta daitezke.

- *Azkoaga. Cuadernos de Ciencias Sociales y Económicas* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/coleccion/cuadernos/coleccion.php?o=705). Lehe- nengo *Cuadernos de Sección. Ciencias Sociales y Económicas* agerkaria 1986an argitaratu zen. Izenburu horrekin plazara- tu ziren lehen hiru zenbakiak (1986-1995). Laugarrenetik aurrera (1997), izenburua aldatu zuen: *Azkoaga. Cuadernos de Ciencias Sociales y Económicas*. Hona hemen sail honeta- ko azken bi lanak: «La producción de la identidad en la so-

ciudad del conocimiento. Cultura experta e identidad en el País Vasco» (2006) eta «Trabajos sobre Ordenación y Gestión del Territorio de Euskal Herria» (2004).

- *Azpilcueta. Cuadernos de Derecho* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=710). Lehenengo *Cuadernos de Sección. Derecho* agerkaria 1984an argitaratu zen. Izenburu horrekin plazaratu ziren lehen hamar zenbakiak (1984-1995). Hamaikagarrenetik aurrera (1998), izenburua aldatu zuen: *Azpilcueta. Cuadernos de Derecho*.

19 zenbaki daude jasota (1984-2003); aipagarrienak baino ez ditugu aipatuko: «Homenaje a D. Luis Oroz Zabaleta: estudios de derecho público de Navarra» (1986), «La pratique actuelle du droit coutumier en Pays Basque = La práctica actual del derecho consuetudinario en Euskal Herria» (1998), «Los Derechos Históricos de Euskadi y Navarra ante el Derecho Comunitario» (2003).

- *Bagera.net* (Donostiako Euskaltzaleen Elkartearen Gunea) (www.bagera.net/Bageranet/Ziberteka). Donostiako Euskaltzaleen Elkarateak Ziberteka alorrean artxibategi digitala sortu du. Beste gai batzuen artean, Bagera elkarteak, *Irutxulo* eta *Gaztetxulo* aldizkariak argitaratu izan dituzten zenbait material daude eskuragarri. Webgune interesgarri honetan donostiarren lanak eta bizitza hurbiltzen zaizkigu: Aita Donostia, Fausto Arozena, Maritxu Barriola, Katalin Eleizegi...

- *Baliabide pedagogikoak* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/electronicas/pedagogicos). Gure arbasoen ingurunea, bizimoduak eta ohiturak era atsegin eta erakargarrian erakustea da gazteei zuzenduriko multimedia produktu hauen helburua. CD-ROM bakoitzean joko batek Euskal Herriaren historia jolas eginez ezagutzea ahalbidetzen du: «Erromanizazioa Euskal Herrian» (2001), «Erdi Aroa Euskal Herrian» (2003), «Donejakue bidea Euskal Herrian» (2007), «Karlismoa Euskal Herrian» (2008)...

- *Barandiaran bilduma* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/barandiaran). Jose Migel Barandiaran deitutako ikerketa bekaren lanak argitaratzea du helburu. Beka hori 1980an sortu zuen Eusko Ikaskuntzak, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako aldundiekin lankidetzan. Helbide honetan Euskal Herriko historiaurre-arkeologia eta antropologia-etnografiarekin zerikusia duten sei lani buruzko bilduma eskuragarri daukazue.

- *Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria* (www.galtzagorri.org/euskara/behinola). Galtzagorri Elkarteak argitaratutako haur eta gazte literaturari buruzko aldizkaria da, eta zenbaki guztiak (18) daude eskuragarri. Lehen zenbakia 1999an argitaratu zen eta azkena 2008ko abenduan.

- *Bergarako Udal Artxiboa* (<http://bergarakoartxiboa.net>). Bergarako Udal Artxiboan gordetzen diren 60.000 erregistrotik gora kontsulta daitezke; udaleko funtsaz gain, Errege Mintegikoak, Bergarako elizetako agiriak, Bergarako enpresa batzuen agiriak eskura daitezke. Halaber interesgarriak dira toponimiako eta onomastikako datu-baseak.

- *Bertsolaritzaren liburutegi digitala* (Bertsozale Elkarteak) (www.bertsozale.com/euskara/liburutegia/aurkezpena.php). Liburutegi digitala Bertsozale Elkarteak bertsolaritzaren ondarearen zabalkunderako martxan jartzen duen beste zerbitzu bat da. Bertsolaritzaren corpus bibliografikoa poliki-poliki sarean jartzeko helburua dauka, besteak beste ondorengo edukiak jasoko dituelarik: bertsolaritzaren inguruan paperean soilik argitaratutako lanak (liburuak, liburuxkak, artikulak...); katalogoetatik kanpo dauden dokumentuak; Bertsozale Elkarteak nahiz beste erakunde edo norbanakoen argitalpenak eta gaiarekin harremana duen eta interesa izan dezakeen edozein lan.

- *BiNaDi - Nafarroako Liburutegi Digitala* (Nafarroako Gobernuak) (www.cfnavarra.es/BINADI/Ventanas/Entrada_eu.aspx). Nafarroako ondare bibliografiko digitala teknolo-

gia berrien bitartez hedatzea du helburu. Nafarroako literatura eta zientzia lan nagusiak eskura daitezke: foru bilduma, kronikagile ofizialak, klasikoen lanak eta beste lan batzuk.

- *Bizkaiko Aldizkari Ofiziala* (<http://apli.bizkaia.net/info/aldizkaria>). Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala foru, estatu eta autonomia organo eta erakundeen eta hainbat entitateren xedapenak, ebazpenak, egintzak eta iragarkiak argitaratzen diren aldizkari ofiziala da. 1982tik aurrerako boletinak kontsulta daitezke sarean testu osoan.

- *Corpusa - XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa* (Euskaltzaindia) (www.euskaracorpora.net/XXmendea/index.html). UZEI elkarteak egin duen XX. mendeko euskara jasotzen duen corpus estatistikoa da, 4.658.036 testu-hitzez osatua. Erabili izan den eta erabiltzen den euskararen lekuko eta erakusgarri izatea du egiteko nagusi eta ia bakarra, eta ez ereduzko hizkuntza proposatzea. Corpus estatistikoa-ren oinarria XX. mendeko euskal argitalpenen inbentario osoa da, orotara jasotako 6.351 obra-zatik osatzen dute.

- *Donostiako idazleen liburutegia* (Euskararen Donostia Patronatua) (www.euskaraz.net/Argitalpenak/HerriLiteratura). Donostiako idazle guztien informazioa jasotzen da. Bilaketa egilearen arabera, alfabetikoki nahiz kronologikoki edota liburuaren arabera egin daiteke.

- *Eduki* (EKE - Euskal Kultur Erakundea) (www.eke.org/eke/gure_ekintzak/kultura_teknologiak/eduki_programa). Uztaritzen kokatua den Euskal Kultur Erakundeak euskararen eta euskal kulturaren garapena laguntzen du Ipar Euskal Herrian, bai diruz, bai teknikoki, pertsonak eta elkarteek eraman egitasmoen bidez. Euskal kulturari eta euskarari buruzko hainbat ekitaldiren berri aurki dezakezue, Ipar Euskal Herriko 15 euskal kultur elkarteren egitasmo guztien berri daukazue.

- *Eibar aldizkaria* (Ego Ibarra Batzordea, Eibarko Udala) (www.egoibarra.com/Eibar/Revista_Eibar_aldizkaria).

1952ko irailean argitaratu zen lehen aldiz, parrokiako berripaper legez. 2006tik aurrera kaleratu diren zenbaki guztiak PDF formatuan eskura daitezke sarean; horrez gain, zenbait artikulu zahar ere kontsulta daitezke.

- *EIBZ - Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa* (Nafarroako Gobernu) (www.pnte.cfnavarra.es/eibz). Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Euskara atalaren webgunea da, eta bertan euskaraz argitaratutako hainbat baliabide material (ikastaroak, liburuak, egonaldia...) kontsulta daitezke.

- *Elai Alai kulturgunea* (www.elai-alai.org). Euskal dantzei buruzko webgunea da. Dantza eta Musika Eskola Tradizionala, Dantza eta Musika Taldea eta Portugaleteko Nazioarteko Folklore jaialdiaren atalak dira azpimagarrienak.

- *Elebila euskarazko bilatzailea* (Elhuyar Fundazioa) (www.elebila.eu/search_basic). Interneteko euskarazko bilatzailea da. Halaber, Elebila zuzenean kontsultatu daiteke Firefox eta Explorer 7 nabigatzaileetan.

- *Eleka Ingeniaritza Linguistikoa* (Elhuyar Fundazioa) (www.eleka.net). Helbide elektroniko honetan makinaren eta pertsonen arteko komunikazioa ahalbideratzen duten teknologiak daude: itzulpen automatikoa (OPentrad), bilatzaileak (Elebila, Miatu), itzulpengintza laguntzeko tresnak, zuzentzaileak (Xuxen), euskaraz lan egiteko aplikazioak...

- *Eskualduna astekaria* (Armiarma) (www.hemeroketa.com/argi.htm). 1887an sortua, 1944an itxia, *Eskualduna* astekaria erreferente ezinbestekoa da euskal prentsaren historian. Susa argitaletxeko kideek edukien bertsio digitala kontsultatzeko moduan jarri dute sarean.

- *Eskuizkribuak* (Antso Jakituna Fundazioa) (<http://librison.fsancho-sabio.es/indexmaneusk.html>). Antso Jakituna Elkarteak kontserbatzen dituen eskuizkribuen datu-basea da, eta horren bitartez eskuizkribuen orrialde batzuen irudiak eta testua eskura daitezke.

- *Euskadiko Filmategia* (www.filmotecavasca.com/eu/filmategia/aurkezpena). Filmategiaren asmoa ez da funts guztiak digitalizatzea, baina bai, berriz, Euskadiri eta euskal zinemari buruzkoak. Euskadiko Filmategia 1978an sortu zen, alde batetik, euskal zinemaren pelikulak berreskuratu, artxibatu, gorde eta erakusteko, eta bestetik, euskal kulturaren edo historiaren ikuspuntutik gordetzea komeni den agiriak eta material teknikoa bildu eta zaintzeko.

- *Euskal Herriko Ahotsak* (Badihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkarteak) (www.ahotsak.com). Proiektu honen helburu nagusia Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak biltzea eta hedatzea da; gure herrietako adineko jendea elkarrizketatu, eta euren euskara eta bizipenak jasotzea eta herritarren artean zabaltzea, alegia. Proiektua aurrera eramaten duena Badihardugu Euskara Elkarteak da, eta bilduma material hauek osatzen dute: 84 herri, 1.245 hizlari, 1.605 zinta, 1.459 audio, 1.555 bideo.

- *Euskal Herriko Natura aldizkaria* (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/adeve?idi=eu#eh_natura). Iraungitzeke Zorian Dauden Espezieak Defendatzeko Elkartek (ADEVE) 2002tik aurrera argitaratutako zenbaki guztiak kontsulta daitezke testu osoan.

- *Euskal Jakintza* (www.euskaljakintza.com/baliabideak). Atari elektronikoa honetan euskararen gaineko baliabide anitz aurki ditzakegu: hiztegiak (Hiztegia.net, Euskadi.net, Corpus eta datutegia, Terminologia) kontsulta guneak (Elhuyar, UZEI), bilatzaileak (Zerberri.com, Jagi.com), fonetika (soinu eta hotsak), ortografia (laburdurak, puntuazioa, siglak), estilo liburuak...

- *Euskal Natura (Euskal Herriko natura eta zientziaren ataria)* (www.euskalnatura.net). Webgune erakargarri honetan natura (animaliak, landareak, onddoak, ekosistemak, naturguneak...) eta zientzia (biologia, geologia) alorreko gaiak lantzen dira. Bilatzailearen bitartez gaien informazioa

aurki daiteke, bi motako bilaketak egin daitezke, bata espezie jakinak aurkitzeko eta bestea taxon mugatu batean sailkatu-rikoko espezie guztiak ikusteko.

- *Euskara Institutua* (Euskal Herriko Unibertsitatea) (www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/euskara_inst_sarrera/eu_sarrera/sarrera.html). EHUko Euskara Institutuak Interneten hainbat lan interesgarri eskura jarri ditu: Lexikoa atzo eta gaur, Egungo euskararen hiztegia, Hiztegi batua euskal prosan, Lexikoaren aplikazioa, Ereduzko prosa gaur, Ikasmaterialen sare argitalpenak...

- *Euskarabidea - Nafarroako Euskararen Institutua* (Nafarroako Gobernuaren Institutuak honako zereginak izango ditu: euskararen erabilera ofizialari buruzko araudia garatzeko azterketak eta aholkularitza eskaintzea, alde batetik, eta Foru Komunitateko baliabideak antolatzea, sustatzea eta kudeatzea, bestetik.

- *Euskararen Berripapera* (Kultura Saila, Eusko Jaurlaritza) (www.euskara.euskadi.net/r59-bpeduki/eu/contenidos/informacion/berripapera_historikoa/eu_historik/aurkibidea.html). *Euskararen Berripapera* agerkaria Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikorako Sailordetzak argitaratzen du hilabetero 1991tik, eta helbide honetan zenbaki guztiak daude eskura garri.

- *Eusko Ikaskuntzaren Kongresuak* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/congresosestudiosvascos). 1919tik hona erakundeak antolatutako 16 Kongresuen testuak eskura daitezke.

- *Eusko Legebiltzarra* (http://parlamento.euskadi.net/pfrm_cm_cate.html). Eusko Legebiltzarrak 1.300 lan inguru Euskadiko Liburutegi Digitalaren bitartez sarean jarri ditu. Azpimarratzekoa da Antso Jakituna Fundazioak lehenik argitaratu gabeko izenburuak direla orain digitalizatu direnak.

- *Euskomedia Fundazioa* (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org). Proiektu honen helburua hau da: Eusko Ikas-

kuntzak sorturiko eduki zientifikoak eta kulturalak —Multimedia galeria, Leizarragaren testamentu berria, *RIEV*, Euskal kultura prentsan 1900-1975, Euskal bibliografia...— baliabide elektronikoen bitartez zabaltzea.

- *Eusko News & Media* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-media.org/euskonews?idi=eu&op=1). Datu-base honetan kontsulta daitezke 1998az geroztik argitaratzen den euskal kultura eta zientziaren gaineko astekari elektronikoaren artikuluak.

- *Formula. Cuadernos de Ciencias Físico-Químicas y Matemáticas* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/coleccion/cuadernos/coleccion.php?o=730). Lehenengo *Cuadernos de Sección. Ciencias Físico-Químicas y Matemáticas* agerkaria 1990ean argitaratu zen. Izenburu horrekin plazaratu ziren lehen hiru zenbakiak; laugarrenetik aurrera, izenburua aldatu zuen: *Formula. Cuadernos de Ciencias Físico-Químicas y Matemáticas*.

- *Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala* (<https://ssl4.gipuzkoa.net/boletin/asp/index.asp>). Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala foru, estatu eta autonomia organo eta erakundeen eta hainbat entitatereen xedapenak, ebazpenak, egintzak eta iragarkiak argitaratzen diren aldizkari ofiziala da. 1996ko apiriletik aurrerako boletinak kontsulta daitezke sarean testu osoan.

- *Glosategia Komunikazioaren gainean* (<http://komunikazio.glosategia.pbwiki.com/FrontPage>). Mondragon Unibertsitatearen HUHEZI fakultateko irakasleek eta beste profesional batzuek komunikazioaren gainean wiki teknologiaz eta metodologiaz sortutako glosategia da. Atal hauek aurki ditzakegu: dokumentazioa, ikus-entzunezkoak, informatika, Internet, kazetaritza... Hiztegi txikia da eta eremu hauetako hitz espezializatuen definizioak edo azalpenak agertzen dira.

- *Hedatuz - Euskal zientzia eta kulturaren liburutegi digitala* (Euskomedia Fundazioa, Eusko Ikaskuntza) (<http://hedatuz.org>)

tuz.euskomedia.org/cgi/set_lang?langid=eu&fromurl=http://hedatuz.euskomedia.org). Euskomedia Fundazioak Hedatuz proiektua sortu du, euskal kultura eta zientzien liburutegi digitala. Erabiltzaileen eskura jarri ditu 1918tik Eusko Ikaskuntzak argiratutako aldizkari, monografia eta obra espezializatuen artikuluak. Dagoeneko 5.500 artikulu inguru daude eskuragarri datu-base honetan.

- *Hizkuntza Zerbitzuak Elhuyar* (Elhuyar Fundazioa) (www.elhuyar.org/hizkuntza-zerbitzuak). Atari honetan hizkuntzaren normalizazioan eragiteko tresnak aurki ditzakegu: hiztegiak, corpusak, itzultzaileak, bilatzaileak... Webgune bakar batean hizkuntza baliabide ugari biltzea eta eskaintzea dauka helburu.

- *Hiztegi Batua* (Euskaltzaindia) (www.euskaltzaindia.net/hiztegiatua). Hiztegi alorrean Euskaltzaindiak hartu dituen erabaki eta gomendio guztiak hartzen ditu. Beraz, aurreko erabaki edo gomendioren bat ados ez badator hiztegi honetan esaten denarekin, honi jarraitu behar zaio eta ez aurrekoari.

- *IATE - InterActive Terminology for Europe* (<http://iate.europa.eu/iatediff/switchLang.do?success=mainPage&lang=es>). Europar Batasuneko erakundeen arteko terminologiako datu-base eleaniztuna, IATE (*Inter-Agency Terminology Exchange*), kontsultagai jarri dute. Euskara ez badago ere, Europako Batzordeak liberatu duen itzulpen corpus hau oso interesgarria da euskaldunentzat, eta erabiltzaileentzat ere, milioi bat esaldi aurki baitaitezke 22 hizkuntza ofizialetan.

- *Ikastaria. Cuadernos de Educación* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/leccion.php?o=715). *Cuadernos de Sección. Educación* agerkaria 1985ean argitaratu zen; 1997an, berriz, *Ikastaria. Cuadernos de Educación* izenburuarekin jarraitu zuen. Une honetan 15 zenbaki daude sarean jarrita, besteak beste: «Bizkaiko ikastolak, 1957-1972: beren hasiera eta an-

tolaketa» (1993), «Euskal testuen azterketa eta euskararen irakaskuntza. Ikerketak eta gogoetak» (2005), «Kirol hezitzailea. Gogoetak eta ekarpenak» (2006).

- *Iker/Jagon-Tegiak* (Euskaltzaindia) (www.euskaltzaindia.net/iker_jagon). Euskaltzaindiak euskarri digitalean eskaintzen ditu hemen, orain arte paperean plazaraturiko hainbat lan. Era honetan, ikertzaile, ikasle-irakasle zein interesa izan dezakeen orok modu erosoago eta malguagoan erabili ahal izango ditu.

Webgune honek lau atal nagusi ditu: Iker-Tegia (hiztegi-gintza, gramatika, dialektologia, onomastika, literatura, euskal testu klasikoak eta arauak), Jagon-Tegia (Jagon jardunaldiak eta euskararen gaineko lan jakin batzuk), Bildumak (Iker, Euskararen lekukoak, Onomasticon Vasconiae, Mendaur, euskaltzainak), aldizkariak (*Euskera* agerkaria).

- *Iker bilduma* (Euskaltzaindia) (www.euskaltzaindia.net/iker_jagon/bildumak/iker). 1981eko lehenengo zenbakiaz geroztik, bilduma honetan argitaratutako artikulu guztiak Interneten eskuragarri daude.

- *Ikusgaiak. Cuadernos de Cinematografía* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=755). Lehenengo *Cuadernos de Sección. Cinematografía* agerkaria 1985. urtean argitaratu zen. Bigarren zenbakitik aurrera (1997), izenburua aldatu zuen, *Ikusgaiak. Cuadernos de Cinematografía* bihurtzeko.

- *Irargi Artxibistika aldizkaria* (Kultura Saila, Eusko Jaur-larritza) (www.snae.org/publicaciones.eu.php). Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroak (Irargi) 1988tik 1993ra artean argitaratutako artxibistikari buruzko aldizkariaren 5 zenbakiak jasotzen dira. Horrez gain, Ikerlanak eta Iturriak bildumen lanak ere eskuragarri daude.

- *Izendegiak* (Euskaltzaindia) (www.euskaltzaindia.net/eoda). Euskal Onomastikaren Datutegia (EODA) izeneko da-

tu-basean, Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordearen lanak biltzen dira: abizenak, ponte-izenak eta leku-izenak, besteak beste.

- *Isturitz. Cuadernos de Prehistoria-Arqueología* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=765). 1984tik aurrera argitaratutako *Isturitz. Cuadernos de Prehistoria-Arqueología* aldizkariaren artikulua daude digitalizatuta.

- *Jagonet* (Euskaltzaindia) (www.euskaltzaindia.net/jagonet). Kontsulta- eta aholku-zerbitzua da. Zerbitzu honen bidez hizkuntzaren arlo desberdinetako Euskaltzaindiaren erabakiak kontsulta daitezke: Gramatika, Onomastika (leku eta pertsona izenak eta abizenak), Lexikografia (aditzaren ingurukoak, atzizkiak, marratxoa), Morfologia (data, deklinabidea, zenbakiak), Sintaxia (juntagailuak).

- *Jaien egutegia* (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/calendario?idi=eu&op=1). Euskal Herriko jaien eta herrietako ospakizunen egutegiaren datu-basea da.

- *Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=725). *Jentilbaratz* Eusko Ikaskuntzaren Folklore Sailak argitaratzen duen aldizkaria da. Hasieran, 1983an *Cuadernos de Sección. Folklore* izenburuarekin argitaratu zen. Une honetan 10. zenbakia da digitalizatuta dagoen azkena, «Panderoa jotzen ikasteko eskuliburu» (2007), hain zuzen ere.

- *Jose Maria Arizmendiarieta* (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/arizmendiarieta/eu). Arrasateko kooperatiben mugimenduaren sortzailearen lanak sarean jarri dituzte: liburuak, pentsamenduak, eskuzko oharrak, argazkiak, eta abar. Hona hemen zerrenda hau adibide gisa: *José María Arizmendiarieta (1915-1976)*, *El hombre cooperativo*. *Pensamiento de Arizmendiarieta*, *Pensamientos de don José María Arizmendiarieta*, *El otro Dn. José María*.

- *Juan Garmendia Larrañaga* (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/garmendia/eu). Euskomedia Fundazioaren bitartez Juan Garmendia etnologo eta historialariaren lan osoa euskarri digitalean jarri dute. Berrogeita hamahiru libururik eta hirurehun artikulurik mamitsu baino gehiago dira, gai hauetan sailkatuta: artisautza (*Euskal esku-langintza, Aramaio bailarako etnografia-oharrak, Burniarozgintza eta zurlangintza Berastegin...*), inauteriak, festak, jokoak, mitoak eta legendak (*Euskal pentsamendu majikoa, Jentilak, sorginak eta beste, Beti ortodoxoak ez diren konjuroak...*), etnografia, medikuntza, hileta errituak...

- *Labayru hiztegia online* (Labayru Ikastegia) (<http://zerbitzuak.labayru.org/diccionario/hiztegiarrera.asp>). Labayru Ikastegiaren hiztegiak (euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara) online kontsulta daitezke sarean. Labayru hiztegia, bizkaiera eta batua uztarturik, 2003ko lan bat da, 60.000 sarrera nagusi ditu, eta 90.000tik gora adiera.

- *Larrun pentsamendu aldizkaria* (www.argia.com/argia-astekaria/2181/atalak/larrun). Helbide honetan *Argia* aldizkariaren gehigarri honen artikulurik kontsulta daitezke.

- *Legeria* (Eusko Jaurlaritza) (www.justizia.net/Legislation/Default.asp?Idioma=eu). Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren JustiziaNet webguneko helbide honetan testu juridiko anitz aurki ditzakegu: *Merkataritzako sozietateen legeria, Justizia administrazioko hizkuntza-normalkuntzarako dekretua, Lan arloko prozeduraren legearen aldaketak, Lan Arloko Prozeduraren Legea, Konstituzio Auzitegiari buruzko Lege Organikoa, Espainiako Konstituzioa, Prozedura Zibilaren Legea, besteak beste.*

- *Liburu* (Antso Jakituna Fundazioa) (www.fsancho-sabio.es/eu/index.asp?menu=3). Liburuaren datu-basea da. Hainbat lan biltzen ditu.

- *Luis de Salazar y Castro* (Kultura Saila, Eusko Jaurlaritza) (http://snae.org/salazar_n.eu.php). Luis de Salazar y Castro

(1658-1734) kronista eta genealogistaren bilduma da. XVIII. mendeko 60.000 idazpen deskribatzen dira. Halaber XV. mendetik XVIII. mendera monarkiaren zerbitzura egon ziren euskal herritarrei buruzko informazioa aurki daiteke. Irargik, Historiako Errege Akademiarekin hitzartu ondoren, indizearen 49 liburuki hauetatik abiatutako datu-basea sortzeari ekin dio, eta horixe da webgune honetan kontsulta daitekeena.

- *Mediateka - Nafarroako Euskararen Mediateka* (Euskarabidea, Nafarroako Gobernua) (<http://mediateka.fonoteka.com/orokorra.php?idi=eus&sec=1>). Nafarroako Euskararen Mediateka Euskarabidea erakundeak abian jarritako proiektua da. Nafarroako euskalki desberdinetan ekoiztutako mota guztietako materiala euskararen gaineko interesa duen edonoren esku jartzea da proiektu honen helburua: ikus-entzunezko nahiz soinu-grabazioak, batetik, eta testu idatziak, bestetik, eskura daitezke.

- *Mediatika. Cuadernos de Medios de Comunicación* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=700). 2005etik formatu digitalean argitaratzen da. Aurrekoak testu osoan helbide honetan eskura daitezke, besteak beste: «Zientzi kazetariren inguruan: zenbait iruzkin» (2002), «Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)» (1995), «Coyuntura de la prensa vasca. Aproximación al suceso social y al problema lingüístico» (1984).

- *Merkatari.net - Donostiako merkatarientzako euskarazko zerbitzua* (Donostiako Euskararen Patronatua) (www.merkatari.net). Donostiako Euskararen Udal Patronatuak jate-txeetako menuen testuak gaztelanitik euskarara bihurtzeko tresna da.

- *Musiker. Cuadernos de Música* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=750). *Cuadernos de Sección*,

Música aldizkariak 1997an *Musiker. Cuadernos de Música* izenburua hartu zuen. Bilduma honetan 15 zenbaki argitaratu dira.

- *Nafarroako Aldizkari Ofiziala* (www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON). Nafarroako Gobernuak argitaratutako Aldizkari Ofiziala 1996ko maiatzetik aurrera kontsulta daiteke sarean testu osoan.

- *Nafarroako Toponimia Ofiziala* (Euskarabidea, Nafarroako Gobernuak) (<http://toponimianavarra.tracasa.es/default.aspx?lang=eus>). Web honen helburua Nafarroako toponimia ofizialeko datu-basearen bitartez kontsultak egiten laguntzea da. Horretarako toponimo bakoitzaren informazio linguistiko, etimologiko, dokumental eta geografikoa eskaintzen da. Gainera, informazio hori osatu ahal izango da Nafarroako Gobernuaren web ofizialetan eskaintzen den informazioarekin, katastro eta kartografiako datuekin, hain zuzen ere.

- *Naturaren Ahotza aldizkaria* (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/adeve?idi=eu#naturaren_ahotsa). Iraungitzeko Zorian Dauden Espezieak Defendatzeko Elkarteak (ADEVE) argitaratutako 2001eko 63. zenbakitik aurrerako aldizkariak eskura daitezke testu osoan.

- *Naturzale. Cuadernos de Ciencias Naturales* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=740). Lehenengo *Cuadernos de Sección. Ciencias Naturales* agerkaria 1982an argitaratu zen. Izenburu horrekin plazaratu ziren lehen hamahiru zenbakiak (1982-1995). Hamalagarrenetik aurrera (1997), izenburua aldatu zuen: *Naturzale. Cuadernos de Ciencias Naturales*.

- *Oiartzuarren baitan* (Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilgunea) (www.oiartzuarrenbaitan.com). Proiektu hau Oiartzun herriko hizkera eta ahozko ondarea jaso eta zabaltzeko sortu da; horretarako, herriko nagusiei elkarrizketak eta grabazioak egin zaizkie. 40 oiartzuarren lekukotza jaso dute ikus-entzu-

nezko euskarrian eta hementxe jarri dute denon eskura. Bilaketa sistema arrunt baten bitartez, nahi duzun gaia, hiztuna, hizkuntza ezaugarria edo beste edozer datu bilatu, ikusi eta entzuteko aukera izango duzu.

- *Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=760). Lehenengo *Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura* agerkaria 1982an argitaratu zen. Izenburu horrekin plazaratu ziren lehen hamahiru zenbakiak (1982-1995). Hamalaugarrenetik aurrera (1997), izenburua aldatu zuen: *Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura*. Une honetan «Unai Elorriagaren kontagintza» da digitalizatuta dagoen azken zenbakia, 22.a.

- *Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=745). 1982an *Cuadernos de Sección. Artes Plásticas y Monumentales* agerkaria izenburuarekin argitaratu zen. Izenburu horrekin plazaratu ziren lehen hamabost zenbakiak (1982-1996). Hamaseigarrenetik aurrera (1997), izenburua aldatu zuen: *Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales*. Izenburu batzuk nabarmentzekotan hauek aukeratu ditugu: «1975-2005 bitarteko euskal artearen berrikusketa» (2007), «1939-1975 bitarteko euskal artearen berrikusketa» (2006), «Arte neoklasiko eta erromantikoaren berrikuspena» (2002)...

- *OndareNet - Euskal ondare digitala* (Eusko Jaurlaritza) (www.ondarenet.kultura.ejgv.euskadi.net/wera/advancedSearch.php?langu=eu). OndareNet proiektuak Euskadiko ondare digitalaren fitxategi elektronikoak babestea eta zabaltzea dauka helburu, hots: euskal baliabide elektronikoen ekoizpena gordetzea eta hedatzea. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak informazio sistema bat jarri du abian, formatu digitalean sortzen den euskal ondare digitala (web orriak, blogak, foroak, zerrenda profesionalak) kapturatzeko eta

hedatzeko asmoz. Zentzu honetan, web ingurunean sortutako ondare digitala berreskuratu eta babesteko asmoarekin beste herrialde batzuek abian jarritako antzeko ekimenei jarraitzen die OndareNetek, hala nola: Pandora (Australiako Liburutegi Nazionala), Minerva (Europar Batasuna), Internet Archives (Erresuma Batua) edo Padicat (Kataluniako Liburutegi Nazionala).

- *Osasunaz. Cuadernos de Ciencias de la Salud* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=735). Hasieran *Cuadernos de Sección. Ciencias Médicas* agerkariaren izenburuarekin argitaratu zen 1994 urtera arte. 2001etik aurrera *Osasunaz. Cuadernos de Ciencias Médicas* izenburuarekin argitaratzen da.

- *RIEV - Revista Internacional de los Estudios Vascos* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/riev). Helbide elektronikoa honetan aldizkariaren artikulu guztiak jaitz daitezke. Julio Urquijok 1907an sortu zuenetik, seihilabetekari honen helburua da teoria zientifikoen eztabaidaleku eta elkartoki izatea.

- *RIEV 100 urte: 1907-2007* (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/riev100/eu). Euskomedia Fundazioak *RIEV* aldizkariaren mendeurrena ospatzeko euskaraz, frantsesez, ingelesez eta alemanez idatzitako artikuluak sarean jarri ditu; eta baita ere aldizkarian argitaratutako egileen lan garrantzitsu asko: Odon de Apraiz Buesa, Telesforo Aranzadi Unamuno, Fausto Arozena Arregi, Federiko Baraibar Zumarraga, Jose Miguel Barandiaran Aierbe, Pio Baroja, Gerhard Bähr, Louis-Lucien Bonaparte Bleschamp, Arturo Campion Jaime-Bon... eskuragarri daude, baita lan monografikoak ere, hainbat zenbakitan banatuta argitaratu zirenak.

- *Sarean zer? (Le Journal du Pays Basque, Euskal Herriko kazeta)* (www.lejpb.com). *Le Journal du Pays Basque* egunkari digitalean argitaratzen diren berriak beste egunkari digitalean argitaratzen diren gai bereko berriekin lotzen ditu.

- *Teatro testuak* (www.teatro-testuak.com). Euskarazko teatroetako testuak aurkituko dituzue webgune honetan. Idazle ezagun eta ezezagunenak. Itzulpenak eta originalak. Hona hemen eskura dauden izenburu batzuk: *Gastibeltzaren karabinak*, *Bi ahizpak*, *Kanpotarrak maisu*, *Logalea zeukan ekilibristaren kasua*.

- *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria* (Udako Euskal Unibertsitatea) (www.uztaro.com). Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) 1990etik argitaratutako zenbaki guztiak eskura daitezke testu osoan.

- *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=770). *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía* aldizkariaren zenbakiak, 1983tik aurrera argitaratutako artikulua, digitalizatuta daude. Orain arte sarean dauden 35 zenbakien izenbururik azpimarriak hauek dira: «Homenaje al investigador Félix María Ugarte = Felix Maria ugarte ikerlariaren omenez» (1993), «III. Euskal Herriko Tokian Tokiko Historiazko Ihardunaldiak: hirien espazioa historian zehar» (1993), «Gerra zibilak eta indarkeria Euskal Herrian (XIX-XX. mendeak)» (1998), «20 años de Historiografía Vasca: Revista Vasconia (1983-2003)» (2005).

- *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía* (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=720). 1982an hasi zenetik 29 zenbaki daude digitalizatuta, besteak beste: «Mendialdeko bizimoduak» (1997), «Erligio eta sinboloak» (1999), «Arrantza eta itsasoa: aldaketa soziokulturala eta ekonomikoa» (2002).

- *Zibertso* (http://euskaltube.com/group_home.php?gid=36). Euskaltube webguneko atal honetan bertsoari buruzko bideoak jasotzen dira. Zibertso kanal honetan bertsozale guztiek parte har dezakete.

- *Zientzia eta Teknologiaren Corpora - ZTCorpora* (Elhuyar Fundazioa) (www.ztcorpua.net/aurkezpena.htm). Zientzia eta teknologia alorreko euskara ikertzeko 8,5 milioi hitz landu dituzte. Corpus berezi eta espezializatu hau EHUko IXA taldeak eta Elhuyar Fundazioak elkarlanean eratu dute. 1990 eta 2002 bitartean argitaratutako zientzia eta teknologiaren alorreko obrak hartu dira kontuan corpus hau elikatzeke. 8,5 milioi hitz daude, eta horietatik 1,9 milioi hitz eskuz berrikusi eta zuzendu dira.
- *Zientzia.net* (Elhuyar Fundazioa) (www.zientzia.net/multimedia.asp). Helbide honetan, beste atal batzuen artean, honako hauek eskura dauzkagu: *Elhuyar* aldizkariaren artikulak, dosierrak, zientzia-hiztegi batzuk...
- *ZuZeu albistari digitala* (<http://zuzeu.com>). ZuZeu albistari digitala da, Internet zale euskaldunok munduari begiratzeko leiho moduko bat. 2009ko apirilean jarri du abian Xoraturikan Elkarte Mugatua (XEM) enpresak, berori irabazi asmo gabeko ekimena delarik.

Aurkibidea

3digitala * (Euskomedia Fundazioa, Eusko Ikaskuntza) (www.3digitala.com/eu)

ADEVE - Iraungitzeko Zorian Dauden Espezieak Defendatzeko Elkarte * (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/adeve?idi=eu)

Administrazioa euskaraz (HAEE/IVAP) (www.ivap.euskadi.net/r61-2347/eu/contenidos/informacion/admin_euskaraz/eu_3797/admeusk_zenbakiak.html)

Agiri fondoak (*Manuel de Irujo, Angel de Apraiz, Manuel Lekuona eta Ameriketako Euskal Erakundearen Federazioa, FEVA*) (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/fondo?idi=eu)

Ahozko Ondarearen Artxiboa (Nafarroa)

Albuma (www.euskomedia.org/fondo?idi=eu)

Aldizkariak eta aldizkarien artikulua * (Antso Jakituna Fundazioa) (<http://librivision.fsancho-sabio.es/indexsnveusk.html>)

Aldizkarien eta egunkarien katalogoa (Antso Jakituna Fundazioa) (www.fsancho-sabio.es/noticia.asp?menu=3&id=110)

Alephandria (<http://sindominio.net/metabolik/alephandria/?idioma=eu>)

Antso Jakituna Fundazioa (www.fsancho-sabio.es/noticia.asp?menu=3&id=110)

Antzerti aldizkaria * (<http://antzerti.armiarma.com/gehiSarr.htm>)

Antzezlanak (<http://syxy.com/guideweb/?browse=/World/Euskara/Kultura>)

Arabako Artxibo Historiko Probintziala * (<http://eu.www.mcu.es/archivos/MC/AHA/Actividades.html>)

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala * (<http://web.alava.net/botha/Busquedas/SGB05016.aspx>).

*Aranzadi Zientzia Elkarte*a (www.aranzadi-zientziak.org/index.php?id=1&L=4)

*Araua*k * (Euskaltzaindia) (www.euskaltzaindia.net/araua)

Argia (www.argia.com)

*Argitalpen fondo*a (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/fondo?idi=eu)

Armiarma (www.armiarma.com)

*Artikulu*en katalogoa (Antso Jakituna Fundazioa) (www.fsancho-sabio.es/noticia.asp?menu=3&id=110)

*Artxibo pribatu*ak * (Antso Jakituna Fundazioa) (www.fsancho-sabio.es/archinet/main.asp)

Artxiker (Euskarari eta tipologikoki honi hurbil diren hizkuntzei buruzko ikerketen artxiboa) (<http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/index.php?langue=eu&halsid=hl3nk98nu616saolgdmlprt7r5>)

Atsotitzak (Gotzon Garateren bilketa lana) (www.ametza.com/bbk/htdocs/garate.htm)

Auñamendi Entziklopedia - Bernardo Estornes Lasa (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/aunamendi?idi=eu)

Aurki (www.aurki.com)

Azkoaga. Cuadernos de Ciencias Sociales y Económicas * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=705)

Azpilcueta. Cuadernos de Derecho * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=710)

Badator (Irargi) (<http://snae.org/badator.eu.php>)

Bagera.net * (Donostiako Euskaltzaleen Elkartearen Gu-nea) (www.bagera.net/Bageranet/Ziberteka)

Baliabide pedagogikoak * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/electronicas/pedagogicos)

Barandiaran bilduma * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/barandiaran)

Basqueliterature.com - Euskal Literaturaren ataria (www.basqueliterature.com)

Basquepoetry.net - Euskal poesiaren ataria (Armiarma) (www.basquepoetry.net)

Basque Library - Renoko Euskal Liburutegia (www.knowledgecenter.unr.edu/basquelibrary/Default-eu.aspx)

Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria * (www.galztzorri.org/euskara/behinola)

Bergarako Udal Artxiboa * (<http://bergarakoartxiboa.net>)

Bernardo Estornes Lasa - Auñamendi Entziklopedia (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/aunamendi?idi=eu)

Bertso eta olerkien hemeroteca (Armiarma) (<http://urkiza.armiarma.com>)

Bertsolaritza (www.bertsozale.com/euskara/bertsolaritza/aipamenzaharrenak1.htm)

Bertsolaritzaren liburutegi digitala * (Bertsozale Elkartea) (www.bertsozale.com/euskara/liburutegia/aurkezpena.php)

Biblia Interneten (www.biblija.net/biblija.cgi?biblia=biblia&l=eu)

Bidegileak bilduma (Eusko Jaurlaritza) (www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/indice_e.asp)

BiNaDi - Nafarroako Liburutegi Digitala * (Nafarroako Gobernua) (www.cfnavarra.es/BINADI/Ventanas/Entrada_eu.aspx)

Bizkaiko Aldizkari Ofiziala * (<http://apli.bizkaia.net/info/aldizkaria>)

Buruxkak liburutegi digitala (Udako Euskal Unibertsitatea) (www.buruxkak.org)

CiberBiblio (<http://wotan.liu.edu/doi>)

Corpusa - XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa * (Euskaltzaindia) (www.euskaracorpora.net/XXmendea/index.html)

Dantzak (Bizkaia eta Gipuzkoako dantzak) (www.dantzak.com/introflash.php)

Donostiako Izkerak ta Iztunde Ikastola 1915-1981 (Euskararen Donostia Patronatua) (www.euskaraz.net/Argitalpenak/HerriLiteratura/Iztunde)

Donostiako idazleen liburutegia * (Euskararen Donostia Patronatua) (www.euskaraz.net/Argitalpenak/HerriLiteratura)

Donostiako idazleen testuak (Euskararen Donostia Patronatua) (www.euskaraz.net/Argitalpenak/HerriLiteratura/Iztunde)

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka (www.durangokoazoka.com)

E-Campus Gipuzkoa (www.cd.sc.ehu.es/eCampus/CV/campus.html)

E-LIS (<http://eprints.rclis.org>)

Eduki * (EKE - Euskal Kultur Erakundea) (www.eke.org/eke/gure_ekintzak/kultura_teknologiak/eduki_programa)

Ego Ibarra Batzordea (Eibarko Udala) (www.egoibarra.com/Egoibarra)

Egunkariak (<http://dmoz.org/World/Euskara/Albisteak/egunkariak>)

Eibar aldizkaria * (www.egoibarra.com/Eibar/Revista_Eibar_aldizkaria)

Eibartarren ahotan ahozko artxiboa (Ego Ibarra Batzordea, Eibarko Udala) (www.egoibarra.com/Egoibarra/Ikerketak/Eibartarren_Ahotan)

Eibarko kantutegia (<http://eibar.org/materixala/kantu1.html>)

EIBZ - Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa * (Nafarroako Gobernua) (www.pnte.cfnavarra.es/eibz)

EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarte) (www.eizie.org)

Elai-Alai kulturgunea * (www.elai-alai.org)

Elebila euskarazko bilatzailea * (Elhuyar Fundazioa) (www.elebila.eu/search_basic)

Eleka Ingeniaritza Linguistikoa * (Elhuyar Fundazioa) (www.eleka.net)

Elhuyar (Elhuyar Fundazioa) (www.elhuyar.com)

Elhuyar Zientzia eta Teknika aldizkaria (Elhuyar Fundazioa) (www.zientzia.net/elhuyar.asp)

Elkar (argitaletxea) (www.elkar.com)

Emakunde (www.emakunde.es/indice_e.htm)

Erein (argitaletxea) (www.erein.com)

Eskualduna astekaria * (Armiarma) (www.hemeroketa.com/argi.htm)

Eskuizkribuak * (Antso Jakituna Fundazioa) (<http://libri.vision.fsancho-sabio.es/indexmaneusk.html>)

Euskadiko elizbarrutietako artxibo historikoen sakramentu erregistroak (Irargi) (<http://snae.org/sacramentales.eu.php>)

Euskadiko Filmategia * (www.filmotecavasca.com/eu/filmategia/aurkezpena)

Euskal abestien kantutegia (www.geocities.com/kantutegia/Kantutegia.html)

Euskal bertso eta olerkien bibliografia (www.kapsula.com/urkiza)

Euskal Bibliografia (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/bibliografica?idi=eu)

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_00?E)

Euskal Herriko Ahotsak * (Badihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkarte) (www.ahotsak.com)

Euskal Herriko Natura aldizkaria * (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/adeve?idi=eu#eh_natura)

Euskal Idazleen Elkarte (www.idazleak.org)

Euskal Jakintza * (www.euskaljakintza.com/baliabideak)

Euskal kantutegia (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/cancionero?idi=eu)

Euskal Kultura prentsan: 1900-1975 (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/cultura?idi=eu)

Euskal Kulturaren Hari@ (Argia) (www.argia.com/haria_boletina.php)

Euskal Liburutegi Digitala (Eusko Jaurlaritza) (www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-libdig/eu/contenidos/informacion/liburutegi_digitala/eu_lib_dig/libutegi_digitala.html)

Euskal Liburutegi digitalak (www.iktak.net/index.php?option=com_content&task=view&id=66&Itemid=36)

Euskal Literaturaren ataria - Basqueliterature.com (www.basqueliterature.com)

Euskal Lokuzioak sarean (Armiarma) (<http://intza.armiarma.com>)

Euskal Natura (Euskal Herriko natura eta zientziaren ataria) * (www.euskalnatura.net)

Euskal prentsaren lanak (Armiarma) (www.hemeroketa.com)

Euskal testuen gordailua (Euskal Herriko Unibertsitatea) (www.vc.ehu.es/gordailua)

Euskalkien Liburutegia (Badihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkarte) (www.badihardugu.com/proiektuak/euskalkien_liburutegia)

Euskaltzaindia (www.euskaltzaindia.net)

Euskara Institutua * (Euskal Herriko Unibertsitatea) (www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/euskara_inst_sarrera/eu_sarrera/sarrera.html)

Euskarabidea - Nafarroako Euskararen Institutua * (Nafarroako Gobernu) (www.euskarabidea.es)

Euskararen Berripapera * (Kultura Saila, Eusko Jaurlaritza) (www.euskara.euskadi.net/r59-bpeduki/eu/contenidos/informacion/berripapera_historikoa/eu_historik/aurkibidea.html)

Euskararen Donostia Patronatua (www.euskaraz.net)

Euskararen Etxea (euskarari buruzko gune espezializatua) (www.euskararenetxea.net)

Euskararen Irakaskuntzako Baliabide Zentroa (Nafarroako Gobernua) (www.pnte.cfnavarra.es/eibz/baliabideak/publikazioak/liburuak_pdfn.htm)

Euskarazko Teatro Testuak (www.teatroa.com)

Eusko Bibliographia (Bizkaiko Foru Aldundia) (www.bizkaia.net/Kultura/Eusko_Bibliografia/index.asp?Idioma=EU&Tem_Codigo=2744)

Eusko Ikaskuntza (www.eusko-ikaskuntza.org/eu)

Eusko Ikaskuntzaren Kongresuak * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/congresosestudiosvascos)

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2591/eu)

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-704/eu)

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila (www.nasdap.ejgv.euskadi.net/r50-2397/eu)

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saila (www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-315/eu)

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (www.osasun.ejgv.euskadi.net/r52-2536/eu)

Eusko Legebiltzarra * (http://parlamento.euskadi.net/pfrm_cm_cate.html)

Euskomedia Fundazioa * (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org)

Euskonews & Media * (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/euskonews?idi=eu&op=1)

Eustat (www.eustat.es/idioma_e/indice.html)

Fontes Linguae Vasconum (www.cfnavarra.es/publicaciones)

Formula. Cuadernos de Ciencias Físico-Químicas y Matemáticas * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/leccion.php?o=730)

*Galtzagorri Elkarte*a (www.galtzagorri.org)

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala * (<https://ssl4.gipuzkoa.net/boletin/asp/index.asp>)

Gipuzkoako dantzak (<http://gipuzkoa.dantzak.com>)

Glosategia Komunikazioaren gainean * (<http://komunikazio.glosategia.pbwiki.com/FrontPage>)

Goi-argi aldizkaria (Ego Ibarra Batzordea, Eibarko Udala) (www.egoibarra.com/Eibar/goi-argi)

Gozatuz (euskarazko ipuin erotikoen txokoa) (www.geocities.com/gozatuz)

HABE (www.habe.euskadi.net/s23-5492/eu)

Harluxet hiztegi entziklopedikoa (www1.euskadi.net/harluxet)

Hedatuz - Euskal zientzia eta kulturaren liburutegi digitala * (Euskomedia Fundazioa, Eusko Ikaskuntza) (http://hedatuz.euskomedia.org/cgi/set_lang?langid=eu&fomurl=http://hedatuz.euskomedia.org)

Hiru (argitaletxea) (www.hiru-ed.com)

Hizkuntza Zerbitzuak Elhuyar * (Elhuyar Fundazioa) (www.elhuyar.org/hizkuntza-zerbitzuak)

Hiztegi Batua * (Euskaltzaindia) (www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua)

Hiztegiak (Artez Euskara Zerbitzua) (www.hiztegia.net)

Hiztegiak eta entziklopediak (Euskararen Donostia Patronatua) (www.euskaraz.net/Euskara_Ikasten/Hiztegiak)

IATE - InterActive Terminology for Europe * (<http://iate.europa.eu/iatediff/switchLang.do?success=mainPage&lang=es>)

Ibiñagabeitia Proiektua - Literatur aldizkariaren gordailua (Armiarma) (<http://andima.armiarma.com>)

IDABA - Itzulpenen Datu Basea (HAEE/IVAP) (www.ivap.euskadi.net/r61-2348x/es/?resultsSource=fullText&fullText=idaba)

Ikas (*euskal pedagogia zerbitzua*) (www.ikas.org)

Ikasbil (HABE) (www.ikasbil.net/jetspeed)

Ikastaria. Cuadernos de Educación * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/leccion.php?o=715)

Iker/Jagon-Tegiak * (Euskaltzaindia) (www.euskaltzaindia.net/iker_jagon)

Iker bilduma * (Euskaltzaindia) (www.euskaltzaindia.net/iker_jagon/bildumak/iker)

Ikusgaiak. Cuadernos de Cinematografía * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/es/publicaciones/colecciones/cuadernos/leccion.php?o=755)

Inform (www.inform.com)

Inguma - Euskal komunitate zientifikoaren datu-basea (Udako Euskal Unibertsitatea) (www.inguma.org)

Irakurketa gida (Koldo Mitxelena Kulturunea) (www.gipuzkoa.net/kultura/km/euskara/gidak/sarrera.htm)

Irargi - Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa (www.snae.org/default.eu.php)

Irargi Artxibistika aldizkaria * (Kultura Saila, Eusko Ikaskuntza) (www.snae.org/publicaciones.eu.php)

Itzulpengintza (Udako Euskal Unibertsitatea) (www.ueu.org/groups/itzulpengintza)

IXA taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea) (<http://ixa.si.ehu.es/Ixa>)

Izendegiak * (Euskaltzaindia) (www.euskaltzaindia.net/eoda)

Isturitz. Cuadernos de Prehistoria-Arqueología * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/leccion.php?o=765)

Jagonet * (Euskaltzaindia) (www.euskaltzaindia.net/jagonet)

Jaien egutegia * (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/calendario?idi=eu&op=1)

Jakin (www.jakingunea.com)

Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=725)

Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia (JABM) (www.eibar.org/blogak/joana-albret)

Jose Maria Arizmendiarieta * (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/arizmendiarieta/eu)

Juan Garmendia Larrañaga * (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/garmendia/eu)

Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoa (www.cfnavarra.es/cultura/museoetnologico/eusk/menu.htm)

Kaixo! Internet Euskadiko ataria (www.kaixo.com)

Kantak (www.euskalnet.net/kepa/kantak.htm)

Kantutegiak (<http://dmoz.org/world/Euskara/Kultura/Musika/Kantutegiak>)

Katalogatzeko Terminologia (Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia) ([http://tresnak.kapsula.com/cgi-bin-jo/HTMODFOR?ActionField=getmodel&\\$Modelo=01&CmdGetModel=KAPSULA.HTMLMOD.JOMODIND](http://tresnak.kapsula.com/cgi-bin-jo/HTMODFOR?ActionField=getmodel&$Modelo=01&CmdGetModel=KAPSULA.HTMLMOD.JOMODIND))

Klasikoak (pentsamendu unibertsaleko klasikoak euskaraz) (www.klasikoak.com/Formularios/Sarrera_e.htm)

Klasikoen gordailua (Armiarma) (<http://klasikoak.armiarma.com>)

Koldo Mitxelena Kulturunea (Gipuzkoako Foru Aldundia) (<http://kmk.gipuzkoakultura.net>)

Kritiken hemeroteka (Armiarma) (<http://kritikak.armiarma.com>)

Kulturaldi - Euskal aldizkarietan argitaratutako artikuluen datu-basea (Koldo Mitxelena Kulturunea) (www4.gipuzkoa.net/corporac/cul/kulturaldi/index.asp)

Labayru hiztegia online * (Labayru Ikastegia) (<http://zerbitzuak.labayru.org/diccionario/hiztegasarrera.asp>)

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua (Eusko Jaurlaritza) (www.lanbide.net)

Larrun pentsamendu aldizkaria * (www.argia.com/tarifak/tar_larrun.php)

Legeria * (Eusko Jaurlaritza) (www.justizia.net/Legislacion/Default.asp?Idioma=eu)

Liburu * (Antso Jakituna Fundazioa) (www.fsancho-sabio.es/eu/index.asp?menu=3)

Liburuak (doako liburuen liburutegia) (www.librodot.com)

Liburuak eta bibliografia (www.kultura.ejfv.euskadi.net/r46-704/eu)

Liburuak on line (www.blogari.net/DBH%201)

Liburutegi digitala (Bizkaiko Foru Aldundia) (www.bizkaia.net/kultura/foru_liburutegia/bibdigital_spi.asp?Tem_Codigo=2542)

Liburutegiak (www.google.com/Top/World/Euskara/Erreferentzia/Liburutegiak)

Liburutegien haria (www.muskiz-liburutegia.org/biblioteca/Sindikazioa/index.php)

Literatur aldizkarien gordailua - Ibiñagabeitia Proiektua (Armiarma) (<http://andima.armiarma.com>)

Literatur Emailuak (Armiarma) (www.armiarma.com/emai luok)

Literatura aldizkariak (www.google.com/Top/World/Euskara/Kultura/Literatura/Literatur_Aldizkariak)

Literatura Unibertsala bilduma (www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/6987/eu_2437/eu_12461.html)

Literaturaren Zubitegia (Armiarma) (<http://zubitegia.armiarma.com>)

Lizardi Xabierren idazlanak (liburutegi birtuala) (www.terra.es/personal3/zuzendaria/mintegi/euskara/LIZLANAN.html)

Luis de Salazar y Castro * (Irargi) (http://snae.org/salazar_n.eu.php)

Mapen katalogoa (Antso Jakituna Fundazioa) (www.fsancho-sabio.es/noticia.asp?menu=3&id=110)

Marjinalia bilduma (Xabier Galarretaren webgunea) (www.euskalnet.net/xgalarreta/liburuak.htm)

Mediateka - Nafarroako Euskararen Mediateka * (Euskarabidea, Nafarroako Gobernua) (<http://mediateka.fonoteka.com/orokorra.php?idi=eus&sec=1>)

Mediatika. Cuadernos de Medios de Comunicación * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=700)

Merkatari.net - Donostiako merkatarietzako euskarazko zerbitzua * (Donostiako Euskararen Patronatua) (www.merkatari.net)

Multimedia Galeria (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/galeria?op=1&idi=eu)

Musiker. Cuadernos de Música * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=750)

Nafarroako Aldizkari Ofiziala * (www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON)

Nafarroako Fonoteka (<http://mediateka.fonoteka.com/orokorra.php?idi=eus&sec=20>)

Nafarroako Toponimia Ofiziala * (Euskarabidea, Nafarroako Gobernua) (<http://toponimianavarra.tracasa.es/default.aspx?lang=eus>)

Naturaren Ahotsa aldizkaria * (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/adeve?idi=eu#naturaren_ahotsa)

Naturzale. Cuadernos de Ciencias Naturales * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=740)

Navarra agraria: revista técnica de agricultura, ganadería y alimentación (Nafarroako Gobernua) (www.navarraagraria.com)

Oiartzuarren baitan * (Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilgunea) (www.oiartzuarrenbaitan.com)

Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=760)

Olerkariak eta beren olerkiak (www.geocities.com/Athens/9299/olerki.htm)

Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/coleccion/colecciones/cuadernos/leccion.php?o=745)

OndareNet - Euskal Ondare Digitala * (Eusko Jaurlaritza) (www.ondarenet.kultura.ejgv.euskadi.net/wera/advancedSearch.php?langu=eu)

Osasunaz. Cuadernos de Ciencias de la Salud * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/coleccion/colecciones/cuadernos/leccion.php?o=735)

Pamiela (argitaletxea) (www.pamiela.org)

RIEV - Revista Internacional de los Estudios Vascos * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/coleccion/riev)

RIEV 100 urte: 1907-2007 * (Eusko Ikaskuntza) (www.euskomedia.org/riev100/eu)

Santurtziko Udal Euskaltegia (www.santurtzieus.com)

Sarean zer? * (*Le Journal du Pays Basque, Euskal Herriko kazeta*) (www.lejpb.com/?Hizk=eu)

Senez aldizkaria (EIZIE - Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte) (www.eizie.org/Argitalpenak/Senez)

Susa (argitaletxea) (www.susa-literatura.com)

Sustatu Interneteko albistegia (www.sustatu.com)

Sustrai aldizkaria (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila, Eusko Jaurlaritza) (www.nasdap.ejgv.euskadi.net/r507393/eu/contenidos/nota_prensa/sustrai_revista/eu_dapa/sustrai.html)

Teatro testuak * (www.teatro-testuak.com)

TK aldizkaria (Asnabi - Nafarroako Liburuzainen Elkarte) (www.asnabi.com/publicaciones_RevistaTK.html)

Txalaparta (argitaletxea) (www.txalaparta.com/?locale=eu_ES)

Txistulari (Euskal Herriko Txistulari Elkarte) (www.txistulari.com)

Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria * (Udako Euskal Unibertsitatea) (www.uztaro.com)

Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=770)

Vilaweb biblioteca (literatura baliabideak euskaraz) (www.vilaweb.cat/www/biblioteca/r_basca.html)

Wikipedia (<http://es.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Portada>)
Wordtheque (www.wordtheque.com)

Xenpelar Dokumentazio Zentroa (Bertsozale Elkarte) (www.bertsozale.com/euskara/xenpelar/xdz1.htm)

XX. mendeko euskal liburuen katalogoa (Jakin) (www.jakingunea.com/grafikoak/bibliografia/default.html)

Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía * (Eusko Ikaskuntza) (www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/coleccion.php?o=720)

Zaldi Ero idazleekin (Armiarma) (<http://zaldiero.armiarma.com>)

Zibertso * (http://euskaltube.com/group_home.php?gid=36)

Zientzia eta Teknologiarenean Corpora - ZTCorpora * (Elhuyar Fundazioa) (www.ztcorpuse.net/aurkezpena.htm)

Zientzia.net * (Elhuyar Fundazioa) (www.zientzia.net/multimedia.asp)

ZuZeu albistari digitala * (<http://zuzeu.com>)

Euskal Herriko Iurralde gatazka luzea. Europako aukera

JULEN ZABALO
JEAN PIERRE MASSIAS

Geografian doktorea eta EHUKo irakaslea
Zuzenbide Publikoan doktorea eta
Clermont Ferrandeko Unibertsitateko irakaslea

Euskal Herriak Espainia eta Frantziarekin duen nazio gatazka luzeari irtenbidea emateko, hainbat aukera teoriko aztertu ditu euskal nazionalismoak. Horietako bat Europarena da, batzuetan arreta handiz jarraitu dena, eta besteetan, aldez, erdi ahaztua erdi —nahita— baztertua geratu dena.

Izan ere, orduko giro baikorrak eraginik, Europa federal bat herri eta nazio guztien irtenbide egokitzat jo zen 50 eta 60ko hamarkadetan, II. Mundu Gerra osteko senidetasunezko harremanetan konfiantza jarriarik. Polita eta erakargarria zen ideia, eta maila ideal horretan mantendu zen urte askoan, oraingo Europar Batasunak, 80 eta 90eko hamarkadetan aurreranzko pausoak emanik, Europa batuaren bidea beste bat izango zela frogatu zuen arte, hain zuzen ere. Ordutik hona, oso gutxi entzun izan dugu Europako aukeraz Euskal Herrian, bertan estatuek duten botereaz jakitun. Hala ere, mugimenduak badira arlo honetan, eta saio berritzaileak ere, baina ez dirudi interes gehiegirik dagoenik bide hori urratzeko, iraganeko porrotaz oroituz, agian.

Bide eta aukera hori zertan den aztertu nahi izan dugu unibertsitate mailako ikerketa batean irakasle eta ikerle tal-

de batek. Bakoitza bere esparruan, baina besteen lanei ekarpen interesgarriak eginez, Elena Beloki, Koldo Gorostiaga, Didier Rouget eta lan hau izenpetzen dugunok horretan jardun dugu eta, aipatu gabe ere, denen iritzien printzak agertzen dira aurkezten ari garen lan honetan.

Hasieratik hasi behar zela pentsatuz, orokorretik partikularrera joan nahi izan dugu. Hortaz, lurralde gatazka definitu nahi izan dugu lehenik, eta horrek hartzen du artikulua honetako mamia; ondorengo batean, Europar Batasunean eta bertan aurki litezkeen aukeretan zentratuko gara, aldizkari honetan bertan argitaratzea nahiko genukeen hurrengo artikulua batean, honi jarraipena emateko.

Lurraldea babestuz: subiranotasuna

Botere aukera bat espazio jakin batean inposatzeak lurraldea definitzen du. Jokaera hori animalietako askok erabiltzen du eta, hala eginez, espazio horren gaineko eskusibotasuna adierazi nahi dute. Haien jabeak bezala jardunez, oinarrizko bizi funtzioak ziurtatu nahi dituzte. Gizakiak ere hala egiten du, baina bizi funtzio horiei beste dimentsio espiritual bat eransten die, lurraldeari izaera erabat berria eta desberdina ematen diona.

Dimentsio espiritual hori ez da, ordea, absolutua, denboran eta espazioan aldatzen baita. Zenbait molde politikotan garrantzi txikiagoa dauka, eta saleros daitekeen merkantziatzat hartzen da beste ezer baino gehiago. Antolatzeke beste forma batzuetan, ordea, funtsezko garrantzia hartzen du: hala gertatzen da lehen giza komunitateetan, edo garai modernoagoetan, europar nazio-estatuan. Kasu horietan, lurraldea ia sakralizaturik dago, batez ere nazionalismoaren sorrerak estaldura ideologiko aproposa eskaintzen dionean: herria eta lurraldea, espazio fisikoa eta giza espazioa mami-mamian identifikatzen dira. Taldearen identitatea lurraldeari lotzen zaio.

Lurraldea mugek markatzen dute. Mugen bitartez, boterea non gauzatu nahi den zedarriztatzen da; hori dela eta, mugek

zentzu bikoitza hartzen dute: batetik, zentzu fisikoa, espazioa mugarriztatzekoa, eta bestetik, zentzu sinbolikoa, norberaren espazioa zein den gogorarazten duena. Lurraldeari nolako garrantzia ematen zaion, mugak zuzen zedarritzearen garrantzia erabakigarria izan daiteke. Hau da, probintzia edo herri txiki bat galtzea huskeria izan daiteke inperio batentzat, bai, baina funtsezkoa izan daiteke nazio-estatuak izan nahi duen batasun espiritualari eusteko. Batzuetan, lurralde txikiak galdatzeak ez du planteamendu razional batekin zerikusi handirik (arrazoi militar, estrategiko edo ekonomikoekin, kasu), baina bai har dezakeen dimentsio espiritualarekin; horra hor Gibraltar, espainiarrek eurentzat eskatzen dutena.

Lurraldeaz ari garenean, bada, kontuan hartu behar dugu zein egitura politikoz ari garen. Gaur egun, nazio-estatuak du-gu lurralde antolamendurako forma nagusia, eta nazio-estatuak erabateko jabetza errebindikatzen du bere lurraldean; subiranotasuna errebindikatzen du.

Nazio-estatuak: lurralde murriztu baten gaineko subiranotasun bakarra

Historian zehar politikoki egituratzeko hainbat modu egon dira (inperioa, hiri-estatuak...), eta nazio-estatuak horietako bat da, azken mendeetan arrakasta nabarmena izan duena. Europako Erdi Aroaren hondarrean sortu zen, eta poliki-poliki bestelako politika modu batzuei gailendu zitzaizkien, bereziki inperioaren ideiarekin. Nazio-estatuaren eta inperioaren ezaugarriak kontrajarriak dira hein batean. Inperioan, kanpora begira, lurralde zabala eta barreiatuak ageri ziren, enperadorearen irudipean azaleko lotura bat zutenak. Barrura begira, berriz, batasun inperiala permisiboa izan zen boterearen banaketari dagokionez, eta aginte bakarren pean, oso botere handiko gobernadore partzialak egotea onartzen zen (dukeak, kondeak).

Nazio-estatuak, aitzitik, inperioaren aldean kontrakoa den prozesu bat ekarri du maiz. Nazio-estatuaren helburu nagusi-

sietako bat lurralde integrazioa izan da, aurretik boterea sakabanatu egiten zen bitartean; eta bistakoa denez, horrek txikitu egin du lurraldea, zeina ez baita sekula izan inperioan bezain handia. Ondorioz, boterea multipolarizatu egiten da, zentraltasun inperialaren kontra. Hori dela eta, nazioartean solaskidetza botererik handiena eratzen du nazio-estatuak.

Europar nazio-estatuaren gainbeherarekin, bestalde, horien printzipio guztiak goitik behera jarri ziren zalantzan. Ordura arteko eskala hierarkizatuek (tokikoa, eskualdekoa, nazionala, mundukoa) ordena hori galdu zuten. Alde bate-tik, barnetik bertatik, eskualdeek eta tokiko administrazioek estatuaren zentralismoa salatzen dute; bestetik, kanpotik, es-tatuaz gaindiko erakunde eta tratuek estatuaren jarduera as-katasuna murriztu egiten dute. Nazio-estatu zaharkitua ge-ratzen da hainbat alderdiri dagokionez. Hala ere, esanak esan, arinegi ibiliko ginateke nazio-estatu mundializazio prozesuarekin bateraezina dela ondorioztatuko bagenu.

Baina, nolana ere den, Europaren kasuan, lurralde zati-keta agerikoa da, eta hori oztopoa da gaur egungo mundu-ko panoraman garatzeko. Une honetan, Europa batu baten ideia zaharra interesgarri bilakatu da berriro.

Europar Batasuna: subiranotasun partekatua lurralde zabal batean

Europako batasunarena ez da azken urteotan sortutako ideia berria. Aitzitik, bai Karlomagnoen bai Karlos V.aren eta bai hurrenez hurrengo aita santuen xedea Europa batu eta kristaua eraikitzea zen. Inperioaren helburu hori nazio-esta-tua indartzearekin batera desegin zen, baina horrekin ez zen europar ametsa amaitu; ametsa estatu egitura berrira egokitu baino ez zen egin: inperioaren lekuan, Biltzar edo Parlamen-tuak proposatzen ziren estatuetan, hierarkia hegemoniko ba-rik. XIV. mendean dagoeneko bazegoen europar Estatu Ba-tuen ideia bat, Pierre Dubois-ena. Aldizka halako proiektuak sortu ziren, baina XX. mendean, I. Mundu Gerraren ostean,

europar ideala biziberritu egin zen, eta II. Mundu Gerra ostean europar ideia zaharra gorpuzten hasi zen.

Emaitza Europar Batasuna izan zen, hots, gaur egungo estatuez gaindiko integrazio prozesurik aurreratuenena. Baina, gainditu beharreko errealitatea nazio-estatuaren zenez, prozesuak agerikoak izan diren gorabehera eta eztabaidak bizi izan ditu. Gorabehera horiek, sarritan, Europar Batasunaren eta berori osatzen duten estatuen arteko tentsioaren eraginez sortu izan dira, hain zuzen ere, nazio-estatuak gordezen duen esentzietako bat dela medio: subiranotasuna.

Europar proiektu hau abian jarri zenetik berrogeita hamar urte igaro direlarik, kontu hori ez da oraindik argitu. Izan ere, alde batetik, europar batasuna justifikatzeko diskurtso ideologikoa doa; eta bestetik, Europar Batasunaren errealitatea (aginte ekonomiko baten mende diharduen estatuen arteko erakundea dena, alegia). Subiranotasunari buruzko tirabirek islatzen dute bien arteko tentsioa. Batzuetan, teoria eta praktika modu egokian bateratzen dira, baina beste batzuetan, berriz, kontraesanak eta paradoxak azaltzen dira.

Estatuak gabeko herriak: galdatutako subiranotasuna

Inperioen barruan barne boterea sakabanatzeak barne mugape bat baino gehiago agertzea dakar. Mugape bakoitzak pisu bana dauka, baina ahulena eta txikiena denak ere bere botere zatia ziurtatzen du, beti ere inperioaren korroaren onspenarekin. Nazio-estatuaren igoerak, denborarekin, eskualde jakin bat, eta berorren kultura, estatuaren erdigune gisara aukeratzea dakar, eta horren eraginez, beste eskualde batzuk eta bertako kulturak baztertu egiten dira. Nazio-estatuaren aurrerapenak eragindako kaltetuak estaturik gabeko herri nahiz nazioak dira.

Hori guztia prozesu luze batean gertatu zen, nazionalismoa gizartean zabaltzearekin lasterragotu egin zen prozesu batean, XIX. mende bukaeran hasita, kasu honetan. Nazio-

nalismoak aukera berriak eskaini zizkion nazio-estatuari, ordua arte ez zuen kohesio maila lortzeko. Baina aldi berean, erabakigarria izan zen, baita ere, ezarritako nazio-estatuaren nazio gisan aitortzearen izan ez, eta halakotzat hartuak izateko eskatzen zuten hainbat herrirentzat.

Horrela, nazio-estatuak izandako arrakasta ikusita, estatutik gabeko nazioek uste dute nazio-estatu berri bat sortzea dela galdatzen den nazio horren etorkizun kolektiboa ziurtatzeko modurik argiena. Jakina, ezarritako estatuarekin aurrez aurre egiten dute talka, ezarritako estatuak ere lurralde hori bera galdatzen baitu. Honenbestez, lurralde bera alde batek baino gehiagok galdatzen du, eta horrek gatazka baino ezin du ekarri, zeren eta nazio-estatuarentzat ezinezkoa baita bere lurralde zatirik lagatzea. Nazio-estatuarentzat ez dago *garrantzirik gabeko lurralderik*; hori dela eta, akordioa lortzeko aukerak urriak dira. Mugak sakralizatzearen ondorioz, nazio-estatuaren mugak berregituratze-ko edozein ahalegin aurrez aurreko erasotzat jotzen da.

Halako kasuetan gatazka ziurtaturik baitago, estatutik gabeko nazionalismo batek baino gehiagok uste izan zuen EB izan zitekeela erabateko konponbidea, ez bitartekari gisan egin zezakeenagatik, baizik eta gatazkaren funtsa gainditzen zuelakoan. Hau da, nazio-estatuaren subiranotasuna europar egituran urtzen bazen, estatutik gabeko nazioarentzat askoz ere errazagoa izango zen eskubide osoko kideztasun aitortua izatea, zeren eta nazio-estatuak bere subiranotasuna babesteko zuen interesa txikitu egingo baitzen. Hori azpimarratzen zuen, dudarik gabe, luzaroan landutako mugarik gabeko Europaren aldeko diskurtsoak.

Baina aldarrikapenak gehiago izan dira gauzatu diren proiektuak baino. Estatu pluraletako —Alemania, Belgika, Italia, Erresuma Batua, Austria eta Espainia— gobernu autonomoek behin baino gehiagotan eskatu dute EBren egituretan izaki autonomo gisa parte hartu ahal izatea, eta Alemanian, Austrian eta Belgikan lortu dute, baina ez da berdin gertatzen beste kasuetan. Orain arte, behintzat, Europar Ba-

tasunak ez dio benetako irtenbiderik eman estaturik gabeko nazioen arazoari eta bai, aldiz, arazoa konplikatu batzuetan.

Egia esanda, munduan ez dago nazio-estaturik bestelako lurralde eskabideei mugak zabaldu dizkienik; aitzitik, estaturen baten lurralde subiranotasuna zelanbait gainditzeko ahalegin orok aurrez aurre egiten du talka estatuak edozein eskabideri ematen dion ezezkoarekin, eta hori dela-eta sekulako desilusia hartu dute behin baino gehiagotan estaturik gabeko eskualdeek.

Lan honen xedeetariko bat, hain justu, estaturik gabeko nazio baten ikuspegitik hurrengo urteotan Europar Batasunean zelako aukerak zabaltzen zaizkion aztertzea da.

Euskal Herriaren mugak

Euskal Herriko lurralde egoera aurkeztea zeregin komplexa da, baina argigarria izan daiteke euskal lurraldeei lotutako espazio administratiboa nola egituratzen den, eta nolako muga sistema antolatzen den, aztertzea; eta horren guztia eragina eta ondorioak egungo egoera politikoan ulertzen saiatzea. Interesik ezin zaio ukatu gaiari, azken batean Europar dauden lurralde gatazka nabarmenenetakoa baita Euskal Herrikoa, baina ezaguna delakoan, errepikakortzat jo zitekeen arren, gaiaren dimentsio teknikoak ezagutzeak hausnarketarako espazio objektiboa eskaini lezakeela uste dugu, halako gatazka egoeretan objektibotasuna bilatzea era interesgarria izan baitaiteke zenbait tentsio apaltzeko eta baita konpontzeko ere. Ez dugu bilatuko, hortaz, arrazoi «juridikoa» nori dagokion ezartzea, hauxe pentsatzea baizik: egungo mugei loturiko zuzenbidea aldi berean problematika politikoaren isla eta haiek ulertzeko baliabidea dela.

Gogora dezagun lurralde baten barruan jarduten duen herriari nolabaiteko koherentzia atxikitu nahi izaten zaiola, koherentziarako elementuak hainbat izan ahal badira ere (ezagunenak etnia, hizkuntza, historia edo borondatea bera izaten dira, baina gehiago izan daitezke). Hori dela eta, lu-

rralde bateko mugez hitz egitean, harremanetan ipin ditzakegu, batetik, giza talde jakin baten identifikazio elementuak; eta, bestetik, talde berbera bizi den lurraldearen antolakuntza administratiboa. Bien artean koherentzia egotekotan, hipotesi gisa aurrera genezake koherentzia maila zenbat eta handiago izan, orduan eta txikiagoa izango dela gatazka bat pizteko arriskua. Alderantzizko kasuan, berriz, gatazka azaltzearen aldeko faktorea izango da.

Hala ere, hain gai gatazkatsuen sinplifikazio arriskutsuetatik alendu nahian, komenigarria da hainbat faktore kontuan hartzea, auzi honen aniztasuna eta konplexutasuna ageriago utziko baitigute.

Lehenik eta behin, giza talde batek osagai desberdin eta batzuetan kontraesankorrak izan ditzake identifikazio kulturalerako. Gizarte postmodernoez aniztasunaren eta urte eta prozesu askoko gertakari historikoen eragin nabaria daukate, eta oso aurpegi mistoa erakusten dute egun, halako moldez non ezina baita nortasun kultural bakarrak hitz egitea. Konplexutasunaren garaian bizi gara eta, ondorioz, konplexutasun hori kudeatzeko garaian. Benetako auzia, beraz, ondokoa da: gizarteetan dauden nortasun faktore anitzak gai izatea bizikidetzak kolektibo eta indibidualean jarduteko, beste faktoreen ezein dimentsio ukatu edo zalantzan jarri gabe.

Ondoren, mugen arteko fenomenoak aipatu behar da. Elementu hau garrantzitsua da oso, eta mugimendu bikoitzak markaturik dago. Izan ere, subiranotasun estatalaren markoaren adierazgarri gisa euren garrantzi sinbolikoari eutsi behar dioten arren, mugek lurraldeak bereizteko duten gaitasun juridikoa oso erlatiboa da egun. Hala, egun kontzeptu berriak garatzen ari direla ohartzen gara, Europar Batasunaren markoaren barruko mugaz gaindiko lankidetzarena bezalakoa. Kontzeptu horiek hausnarketarako tresna edo baliabide interesgarriak izan daitezke, batez ere lurralde kolektibitateei onartutako ekintzarako gaitasuna gero eta handiago delako.

Zentzu horretan, 2004ko uztailaren 14an Europar Batzordeak «lurralde lankidetzarako europar elkarteak sortzeko»

ebazpen proiektuaren berri eman zuen. Horrela, mugaz gaindiko lankidetzarentzako zuzenbide komuna garatzeko borondatea agertu zuen. Garapen hori oso interesgarria da, ondorioak estatuen arteko mugen garrantzian jartzen dituelako, baina baita estatuen barruko mugen auzia (muga erre-gionalak eta lokalak) benetan eraberritzen duelako ere.

Euskal auziari buruz hitz egiteak, momentu honetan dau-den mugak kontuan hartuz, egoera paradoxiko batera eram-an gaitzake: ikuspegi juridikotik, Europan badira euskal identitatea onartuta eta —gehiago edo gutxiago— aitortuta duten lurraldeak. Alta, ez dago Euskal Herri osoarentzat lurralde bateraturik. Euskal Herria, estaturik gabeko nazioa ez ezik, administratiboki ere existitzen ez den herria ere bada. Marko horretan, mugak banaketa historikoaren isla argia dira, eta banaketa horri eusteko tresna.

Kasu horretan, nazioarteko eta barruko mugen interakzioak banaketa administratiboa eragiten du. Banaketa horrek euskaldunen lurralde historikoa hainbat entitatetan zatikatzen du, eskumen desberdinekin. Horixe da, hain zuzen, euskal nortasun bateratua aitortzeko eta garatzeko gaurko oztopoa. Euskal nortasunak, gainera, euskal lurralde bateratu baten oinarri eta motor gisa balio lezake. Egungo antolakuntza herri baten eta bere lurralde arteko deskonexioaren adierazpena ere bada —batez ere hori dela esan genezake—, eta horrek nortasun aurkakotasunak sortzen ditu. Aurkakotasun horiek, bestalde, traumatismo biziak eragiten dituzte euskal gizartean. Mugak, aldi berean, (1) banaketa historikoaren isla dira, eta (2) zatiketa horri eusteko erreminta.

Egungo egoera, askotan aztertu bada ere, bi alditan aurkez daiteke.

Euskal Herriko mugak: haustura identitarioaren adierazpen instituzionala

Historikoki Euskal Herritzat hartu den zazpi herrialdeetako lurraldea Frantziaren eta Espainiaren arteko nazioarteko

mugak zatituta dago. Zatiketa horrek —1659ko Pirinioetako Itunaren ondorioa— banaketa hori inposatu du geroztik. Batetik, abertzaleek Ipar Euskal Herria izena ematen dioten aldea, hiru herrialderekin, Frantziako Estatuaren barruan; eta, bestetik, Hego Euskal Herria ematen zaiona, lau herrialderekin, Espainiako Estatuaren barruan.

Ez daukagu hemen haustura horren baldintzei buruzko ikerketa historikoa egiteko asmorik, ezta Nafarroako Erresumaren lehenagoko existentziari buruzkorik ere. Dena den, komeni da entitate estatal desberdinetan izaniko banaketa primario edo fundatzaile horrek Euskal Herrian izan dituen eraginak eta ondorioak nabarmentzea. Kontua ez da herri bat banatzea soilik, herri horren zati bakoitza multzo kultural eta politiko boteretsu eta espezifikotan integratzea baizik, horrela euskal lurraldeko zati bakoitzean gero eta haustura kultural funtsezkoagoak ezartzeko.

Halere, banaketa primario hori are nabarmenagoa da —haren eragina azpimarratu egin behar da— barne mugen jokoaren ondorioz, barne muga horiek euskal lurraldeen banaketa «sekundarioa» osatzen baitute, estatuaren barrukoa. Zentzu horretan, Ipar Euskal Herrian euskal lurraldeen nortasunari lurralde horien eta Frantziako Errepublika osatzen dutenen arteko mugarik ezak eragiten dio. Hala, Frantziako Erresumak, antzinako ohituren aplikazioaren ondorioz, euskal berezitasuna maila handi samarrean aitortu izan zuen arren, Errepublikak gaitzetsi egin zuen berezitasun hori batasun legislatiboaren izenean. Hiru euskal herrialdeak Biarnorekin batu, eta lurralde multzo berri batean integratzea (hiriburua Pauen izango zuen Pirinio Atlantikoetako departamendua) Iraultza Frantsesaren ikuspegi bateratzailean kokatu behar da, berezitasun lokalak ordena politiko berria sortuko zuen nazio frantsesa ezartzeko eta antzinako Frantzia betiko hausteko oztopotzat jotzen baitziren.

Ondorioz, Frantzian garatu den aldeari dagokionez, administratiboki ez dago Euskal Herria egituratzen duen entitatetik —eta are gutxiago Euskal Herririk bere horretan, he-

rri bezala—. Gaur egungo egoera, beraz, egituraketa horren ondorio zuzena da, baita haren asimilazio borondatearen ondorio garbia ere. Ez, ordea, Euskal Herriko orduko protagonisten nahia, erabaki hura *cahiers de doléances* zirelakotan idatzitako eskarien kontra hartu baitzen, baita Frantziako Asanblea Nazionalen zenbait diputatuk azaldutako iritzien kontra ere. Hainbat erakunde eta egiturak XIX. eta XX. mendeetan aldizka egindako eskaerak gorabehera, eraketa mota hori ez zen aurrerantzean berriz aztertu.

Hego Euskal Herriak ere hainbat ezaugarri konplexu ditu, 1659. urteko banaketa *primarioak* izandako eragina gainditu eta larriagotu egiten dutenak. Frankismoa desagertu eta egungo ordena juridikoa indarrean ezarri zenetik, euskal lurraldea lau probintzian eta bi eskualde autonomotan (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa) banatu zen. Banaketa hori 1978ko Konstituzioan eta Autonomia Estatutu banatan oinarritua da, eta fenomeno kontraesankorren sorburua izan da. Izan ere, lau herrialdeak arrazoi historiko eta kulturei jarraiki mugaturik agertzen badira ere, bi autonomia erkidegoen artean eragindako zatiketa eragozpen benetan garrantzitsua da Espainiako Erresuman euskal nortasuna aitortzeko.

Beraz, zatiketa bat dago historikoki euskal nortasunari lotuak izan diren bi lurralde blokeen artean. Trantsizio espainiarretik ondorioztatu den egoera paradoxikoa da, gutxienean: izan ere, EAE sortzeak euskal nortasunaren aitortza dakar berarekin, baina nortasun horren adierazpenetik haren osagai historiko bat errotik ateratzen du. Horrela, esan dezakegu banaketa sekundarioak banaketa primarioak betikotzeko tresna eraginkorrak direla.

Euskal Herriko mugak: haustura identitarioan sakontzeko tresna

Egungo egoeran, zenbait deskonexio agertzen dira euskal lurraldea eta euskal nazioa egituratzen dituzten parametro

objektiboen artean. Maila horretan, merezi du hiru parametro bereiztea.

Lehen deskonexioa: euskal lurraldeetako muga historikoen eta egungo muga administratiboen egituraren artekoa. Deskonexio hori askoz erabakigarriagoa da eskualde euskaldunen eta muga administratiboen arteko erlazioari dagokionez. Zentzu horretan, euskal hiztunen eskualdea euskal lurraldearen erdi aldera kokatzen da, eta inguruan kontaktu eskualde bat ezartzen da. Harago, Espainia eta Frantziaren hizkuntzak euskara ordezkatzan duten eskualdeak daude. Lurraldeak bi estaturen artean zatitzean, eta euskararekin batera beste hizkuntza batzuk sartzean, zalantzan jarri zen adierazpen linguistiko baten eskualdeen eta probintzietako mugen arteko egokitzapen erlatiboa. Mugen berregituraketa horren lehen eragina Euskal Herriko lurralde eta hizkuntza koherentzia zalantzan jartzea izan da. Ardatz nagusi linguistikoa —eta, beraz, kulturala— oso ahulduta dago, eta euskararen erabileraren bidez elkarrekin harremanetan dauden taldeak banaturik daude, eta testuinguru politiko eta kultural oso desberdinetan kokaturik. Mugak berriro banatzea nortasun gatazkaren sorburuan dago hemen, banaketa elementuek hiru giza talde horien konbergentzia elementuak (euskararen erabilera) aldatu eta desorekatu dituztelako.

Nabarmendu beharra dago mugen eta bereizketen natura proportzionala zaiola haustura elementuen intentsitateari. Ipar Euskal Herriko hiru probintzia Erresuman eta gero Errepublikan Frantsesean integratzeak banaketa hirukoitza (linguistikoa, historiko-kulturala eta politiko-administratiboa) ezartzera jo zuen. Banaketa hori 1979an Nafarroa Hego Euskal Herriko beste lurraldeetatik bereizi zuena baino biziagoa izan zen. Konbergentzia kulturalaren eta haustura politikoa-ren elementuen arteko «nortasun» gatazka hori garrantzitsuagoa da, mugatu egiten baitu herritarrek euren nortasun euskaldunean oinarrituta duten adierazpen gaitasun globala.

Ez dago Euskal Herririk lurralde administratibo gisa, euskararen erabileran txertatutako nortasun batekin. Lurralde

mugatuagoak baino ez daude, non herritar batzuk, proportzio aldakorrean, euskal nortasunari lotuta dauden. Nafarroan euskararen erabileraren kasua dugu egoera horren adibide argia. Lege batek, 1986ko Euskararen Foru Legeak, hiru eskualde zehazten ditu bizitza publikoan egiten den euskararen erabileraren arabera. Zentzu horretan, udalerrri guztiak hiru multzotan banatzen ditu. Hala, 272 udalerrietako 61 eskualde euskaldunean daude; bertan, gaztelaniak eta euskarak koofizialtasun estatusa dute. 50 udalerrri eskualde mistoan daude kokaturik, eta bertan zerbitzu elebidunak aurreikusuten dira euskaldunentzat. Gaztelaniazko eskualdean 161 udalerrri daude, eta han hizkuntza hori baizik ez da ofiziala.

Bigarren deskonexioa: Ipar Euskal Herriko egoera eta Nafarroakoa nahiko konparagarriak dira, gizarte eta administrazio testuinguru desberdinetan kokatuak badira ere. Izan ere, Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeak lurralde zabalago batean integratuta daude eta lur eremu horretako herritar kopurua, guztira, Lapurdiko, Zuberoako eta Nafarroa Behereko kopurua halako bi baino gehiago da. Nafarroa Garaia Hego Euskal Herriko gainerako beste probintzietatik bereizteak bertako eskualde euskaldunen baztertzea eragin du lurraldeko herritar kopuruari edo azalerari dagokienez. Euskaldunak, lau herrialdeak kontuan harturik erdigunea osatzen duten taldea izaki, gutxiengo bihurtzen dira mugen birdefinizioaren ondorioz. «Gutxiengo bihurtze» horrek entitate horietako agintarien diskurtso ofizialari zein ezarritako hizkuntza-politikei eragiten die.

Hirugarren deskonexioa: mugen berregituraketaren garrantziaren azken agerpen bat sorrarazitako fenomenoaren areagotzean datza. Hasieran, ezarritako desberdintasun politiko eta administratiboak xumeak badira ere, denborarekin areagotu egiten dira, eta joera hori mantenduko da beti. Desberdintasun hori handia da Ipar Euskal Herrian, bertako hiru probintziak, hegoaldekoak ez bezala, inolako autonomia administratiborik gabe baitaude, ez baitute osotasunean zuzenbide publikoko nortasun moralik, hori departamen-

duei eta eskualdeei baizik ez baitzaie aitortzen. Egoera horretan, Hego Euskal Herriko euskaldunen aldean ageriko desorekaz gain, beste desoreka bat ondorioztatzen da: «erabaki» desoreka, erabakiak hartzeko moduari dagokiona, euskal lurraldeei eragingo dieten erabaki garrantzitsuenak Pauen hartuko baitira (Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusian) edo Bordelen (Akitaniako Eskualdean). Erabakigunearen eta nortasun kulturalaren arteko distortsio hori onartu egin da, inplizituki onartu ere, Frantziako Errepublikaren markoan, egitura espezifikoak sortu baitira antolakuntza mota horrek eragiten dituen ondorioak murrizteko asmoz.

Euskaldunak gutxiengo dira beraiei dagozkien erabakiak hartzeko prozesuan; areago, dagokien erakundeak azalartzen dituen kontuek eta ematen dizkien erantzunek ez dituzte kontuan hartzen Euskal Herria eta bere nortasun dimentsioa, batez ere erakunde horren distantzia geografiko eta kulturalagatik.

Horrela, euskal lurraldea bi estatutan eta estatu bakoitzean zenbait entitate administratibotan zatituta egoteak ondorio garrantzitsuak dakartza, bai maila primarioan (muga estatuetan), bai maila sekundarioan (estatuaren barruko mugetan). Eta mugak, barrukoa zein kanpokoa izan, areagotu egiten du nortasun hausturaren eragina.

Beraz, euskal lurraldeen muga-egitura ezin da gatazka konpontzeko ezein saiotik bereizi. Zentzu horretan, muga administratiboek bi estatuen arteko banaketaren ondorioak areagotu eta garatu ere egin dituztela esan daitekeen arren, era berean esan dezakegu mugak berregituratzeak gatazka-aren konponbidearen hasiera ekar lezakeela. Hain zuzen, estatu mugak araubide juridiko berezi baten azpian daude gaur egun. Muga horien balio sinbolikoa, orain arte ukiezi-na, zalantzan jarria da, edo gainditua da mugaz gaindiko hitzarmenen mekanismoaren bidez, edo zenbait estatuk osatutako blokeak eratzearen ideia-aren bidez, bloke supraestatal horiek nortasun komuna batzeko aukera emango bailukete. Hala ere, konponbide horiek aurreikusteko, beharrezkoa da

aldi berean egitura juridikoki zehaztua izatea. Egitura horrek koherentea izan beharko luke ikuspegi administratibotik mugako bi aldeekin. Zentzu horretan, 1659ko zatiketak eragindako ondorioetako batzuk motel litezke. Maila horretan, interesgarria da mugak gainditzeko estrategia bati buruzko hausnarketa egitea. Horren helburua, hasiera batean, mugen existentziak sortutako ondorio desorekatzaileak arintzen saiatzea izango litzateke, mugak desagertzearen auzi konplexuari derrigorrean heldu beharrik izan gabe. Barruko mugak berregituratzea, bai alde frantsesean, bai alde espainiarrean, gatazka konpontzea lortzeko neurri gisa ageri da lehen kolpe batean. Egun, ezinezkoa dirudi bi estatuen artean euskal lurraldea zatitu izanaren ondorioz piztu den gatazka konpontzeari buruzko hipotesi sinesgarriak aurre-ratzeak, alde aurretik euskal lurralde horren barne berregituraketa gauzatzeko hipotesiak aztertzen ez badira.

Hala ere, jakin beharko genuke, lehenik, banaketa horrek inoiz gatazkarik, eta zein mailatakoa, sortu duen. Ondoren ekingo diogu gai horri.

Euskal gatazka: izaera eta konponbideak

Ez dago guztien adostasunik euskal gatazka delakoaren sorburua zehazteko tenorean. Gatazka luzea da. Batzuen iritziz, sustrai historikoak ditu; beste batzuen ustez, aldiz, estrategia politiko jakin baten tresna besterik ez da, euskal nazionalismoaren estrategia, hain zuzen. Pribilegio bat ezartzeko saioa batzuen ustez; estatuaren itxikeriaren froga, besteren iritziz. Kritikak etengabeak dira, norabide guztietakoak, baina konponbidea bilatzeko saioak, urriak.

Gatazka historikoa

Historia elementu iraunkorra izan da euskal herrialdeen eta Espainiar eta Frantses Estatuaren arteko erlazioari buruzko eztabaidan. Nazionalismoa sortzearekin batera eztabaida hori

politika nazionalistaren argudioen ardatzetako bat izan baino lehen ere, polemika historikoa sortu zen euskal probintzien eta Gaztelako koroaren arteko erlazio juridiko-politikoaren izaerari buruz. Polemika horretan, euskal erakundeek behinola-ko iragan batera jo zuten euren sorburua ezartzeko, Gaztelako koroaren aurreko garaietara. Gaztelako koroaren ustez, al-diz, euskal erakundeak errege boterearen ondorio ziren. Oso eztabaida luzea da, bi aldeek sustatua, eta euren arteko erlazioa tarteka zaila izango dela iragartzen digu.

Hain zuzen ere, une jakin batzuetan okerrera egin zuen erlazio horrek. Aldian-aldian eraso, istilu eta errebolta batzuk gertatzen ziren, eta horiek eragina izan zuten erlazioen konplexutasunean. Gertaera esanguratsuena, zalantzarik gabe, Gaztelako koroak Nafarroako koroa anexionatzea izan zen, XVI. mendean. Une horretan, Nafarroan Gaztelaren aldeko talde bat bazegoen, eta nafarren aldeko beste bat. Azken hori izan zen galtzailea, eta konkistaren ondorioz laidotua. Hurrengo mendeetan hainbat motibok eragindako errebolta sozial batzuek auzitan jarri zuten botere instituzionala eta batzuetan, argi eta garbi, botere zentrala bera.

Gatazka horiek guztiak geroko beste gatazka batzuen oinarri izan ziren neurri batean, eta, bereziki, Espainiar eta Frantses Estatuaren aurrean diferentziak nabarmentzeko balio izan zioten euskal nazionalismoaren teorizazioari XX. mendetik aurrera. Edonola ere, XVIII. mendearen amaieratik gertatu ziren azken gatazka horiek izaera kolektibo handiagoa izan zuten. Garaituen oroimenean iraun zuten, eta altxamendu nazionalistaren haztegia izan ziren XX. mendean.

Alde batetik, Iraultza Frantsesari buruz ari gara. Berehala ezabatu zituen (1789ko abuztuan) iraultza aurreko erakundeak, eta berdindu egin zituen gobernu mota lokalak. Berehalakoak izan ziren neurri horien kontrako euskal protestak eta berezko euskal erakundeak aitortzeko eskaerak, baina arrakastarik gabekoak beti. Beste garai gatazkatu nabarmena Gerra Karlistetakoak izan zen, Hego Euskal Herrian. Gerra horiek, orokorrean, hiria eta baserria jarri zituzten au-

urrez aurre: hirietako noblezia eta burgesia baserritarren aurka; XIX. mendeko liberalismo uniformatzailea antzinako gobernu moten kontra. Karlisten porrotak mugimendu zabal-zabala piztu zuen hainbat mailatan, foruak aldarrikatze-ko. Foru horiek betiko kendu zirenekoa euskal historiako unerik goibelenetakotzat jo zuen garaiko literaturak. Azkenik, Hego Euskal Herrian ere, hirugarren gertakari historiko erabakigarri bat izan zen: Francoren altxamendu militarra, ondorengo gerra, errepresio eta berrogei urteko diktadurarekin. Bizkaiari eta Gipuzkoari «probintzia traidore» izatea publikoki leporatu izana Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko liskarraren adierazgarri ezin argiagoa dugu.

Hemendik guztitik, argi esan dezakegu euskal aldea, bate-tik, eta Espainiakoa eta Frantziakoa, bestetik, aurrez aurre jarri dituen hainbat gatazka izan dela gurean historikoki, baina ezin baieztatu dezakegu, ordea, gatazka horiek beti logika nazional iraunkor bati erantzun diotenenik. XVII. mendetik XIX. mendea arteko gizarte matxinadak Europan bizi zen ondoez zikloan koka daitezke. Beste alde batetik, foruen inguruan izandako eztabaida eta polemika historikoek ondoeza islatzen dute, baina lurralde entitateen artekoa. Azkenik, XVIII. eta XIX. mendeetako hainbat gertaera bai jo genitza-keela enfrentamendutzat. Gertaera horiek euskal teorizazio nazionalistaren oinarria izango dira XX. mendean geroztik.

Gatazka nazionala: borroka historikoa eta linguistikoa

Aipatu ditugun datu historikoetako batzuk berrinterpretatu egin ziren XIX. mendearen bukaeratik aurrera, Sabin Aranaren eskutik euskal nazionalismoa agertzearekin batera. Horrekin ez dugu adierazi nahi interpretazio nazionalista hori ezerezetik sortu zenik, jakina. Izan ere, euskal nazionalismoaren sortzea bera ezin uler bailiteke gatazka historikoari erreparatu gabe. Eta gatazka hori, neurri batean edo bestean, euskal lurralde guztietan aurki dezakegu.

Hala ere, euskal nazionalismoa agertzeak material historiko horren berrinterpretazioa ekarri zuen berarekin, nazionalismo guztiek egiten duten bezalaxe. Horrek azaltzen du gatazka historikoa zena bereziki Bizkaiko eta Gipuzkoako probintzietan areagotu izana; hau da, euskal nazionalismoa lasterren indartu zen lurraldeetan areagotu zen gatazka. Era horretara, gatazka politikoari buruzko literaturaren zati handi batek bi probintzia horiei egiten die aipamen, bereziki; ugariak dira Nafarroari buruzko aipamenak ere, haren iraganagatik; eta gainerako lau lurraldeei buruzkoak, azkenik, askoz gutxiago dira. Gatazkaren karakterizazioak berebiziko garrantzia hartu zuen Ipar Euskal Herrian. Hor ere probetxuzko material historikoa dugu eskura, baina euskal nazionalismoaren garapen berantiarrak berandutu egin du haren erabilera. Horretan eragina izan dute, noski, probintzia horietan duela gutxi arte izandako garapen industrial eskasak eta ondorioz sortutako emigrazioak. Horretaz gain, zer esanik ez, nazionalismo frantsesak lurraldea homogeneizatzearen bultzatutako ekintza eraginkorra ere egon da. Badira gutxienez bi faktore Frantziako batasuna sustatzen indar handia izan dutenak eta, ondorioz, beste nazionalismo batzuk agertzea eragotzi dutenak: derrigorrezko hezkuntza publikoaren eragina, batetik; eta mende bat baino denbora laburragoan hainbat gerratan (nazioartekoak edo kolonialak, horietako batzuk proportzio handikoak) parte hartu izanak emaniko kohesio nazionala, bestetik.

Bizkaian eta Gipuzkoan, ordea, azkarra eta erabatekoa izan zen aldaketa. Beste edozein nazionalismok bezala, euskal nazionalismoak garapen eta porrot militarretan, erakunde historikoetan, herri matxinadetan eta abarretan oinarrituta eraiki zuen euskal herriaren epika. Hori guztia testuinguru jakin batean kokatu zen berriro, iraganeko lurralde batasuna islatzeko asmoz, etorkizunean segida izan zezan. Ageriko xede horrekin, euskal nazionalismoak hainbat material izan zituen gatazka historikoaren bertsio ofiziala lantzeko: Gaztelako koroak Nafarroa anexionatu izana, XVII. mendetik XIX.

mendera arteko gizarte matxinadak, Iraultza Frantsesaren ondoren euskal erakundeak galdu izana, Gerra Karlistak, Foruak kendu izana eta Espainiako Gerra Zibila.

Hori bi korronte nagusiren bidez egin zen: hasierako nazionalismoan gailendu zenaren arabera, Nafarroako Erresumak eta gainerako euskal lurraldeek erakunde eta lege propioak izan bide zituzten, baina Espainiako eta Frantziako erresumetan sarturik amaitu zuten, hainbat bide zirela medio (komenentziatzko itunak, monarkia ezkontzak...). Beste korronte nazionalista berriago batek egindako interpretazioaren arabera, ordea, datu horiek Espainiak nafar erakundeen borondatea bortxatu izanaren frogaz ezin argiagoa dira. Interpretazio berri horrek konkistatzen josten du euskal lurraldeak Espainian batu izana.

Bi interpretazioen planteamenduak guztiz aurkakoak diren arren, azken batean helburu bera bilatzen dute: Euskal Herriak estatu independente izateko duen eskubidea aldarrikatzea, modu batera edo bestera ulertuta, iraganean independente izan da eta. Lehen kasuan argudiatzen denez, batasuna komenentziatzkoa izanik eta independentzia egoeratik abiatu-rik, euskal lurraldeek, hala nahi balute, Estatutik banatzea aldarrikatzeko eskubide osoa izango lukete, iraganean ezagutu zuten egoerara itzultzeko. Bigarren kasuak, berriz, Espainiarekiko batasuna inoiz ez dela desiratua izan argudiatzen du, baizik eta bortxaz inposatua izan dela. Horrek justifikatuko luke garaituek euren jatorrizko erakundeak berreskuratzea.

Hala eta guztiz ere, euskal nazionalismoak ez dio historiari bakarrik begiratzen bere diskurtso nazionala lantzeko. Zabalagoa da bere eztabaidagaien esparrua. Eremu anitzetatik etorritako zergatiak bildu ditu Espainiar eta Frantses Estatuekiko independentea izango den etorkizuna eraiki beharra oinarritzeko. Lehen une batean, arraza edo antropologia faktorea nabarmendu zuen; eta, gero, hizkuntzaren faktorea. Baina, gainera, ekonomiarekin, gizartearekin, politikarekin eta lurraldearekin lotutako arazoak ere gehitu dizkio diskurtsoari.

Gatazkaren izaera, euskal nazionalismoaren lehen teori-zazioaren arabera, euskal izaeraren eta izaera espainiarra-
ren arteko bateraezintasunean zetzan. Izaerak guztiz elka-
rren aurkakoak izanik, euskal lurraldeak Espainiar Estatu-
aren barruan segitzeak kalte besterik ezin ziezaiokeen ekar
Euskal Herriari, arlo guztietara ekarri ere: arrazara, kultura-
ra, ekonomiara, gizartera...

Egun indar handiena duen interpretazioak, aldiz, hizkun-
tzaren faktoreari ematen dio garrantzia. Hau da, euskal hiz-
kuntza benetako atzera-egite prozesuan dago, eta hori, hein
handi batean, Espainiar eta Frantses Estatuak bultzatutako
politika asimilazionistaren ondorioz gertatzen ari da. Erdi-
bideko formulak —non euskal gobernu autonomo edo fe-
deralek euskararen aldeko hizkuntza politikak garatzeko au-
kera izango luketen— ez lirateke eraginkorrak izango, na-
zio-estatuak hizkuntza nazional izendatutako hizkuntzaren
aldeko presioa egiten segituko bailuke. Horrela, erabateko
subiranotasun politikoa izango litzateke euskal hizkuntza-
ren etorkizuna bermatzeko bide bakarra. Euskal Herriaren
independentzia aldarrikatzea euskal nazioaren oinarri den
euskal hizkuntza benetan babestu beharrak azalduko luke,
beste arrazoi batzuen artean. Ipar Euskal Herrian berandua-
go garatu da euskal nazionalismoa eta, horregatik, teoriza-
zio linguistikotik edan du gehienbat. Gainera, euskara zinez
ari da atzera egiten bertan. Horrek guztiak Ipar Euskal He-
rrian nazionalismo kulturalagoa izatearen irudipena ema-
ten du. Hala ere, nazionalismoek euren diskurtsoa ustiatze-
ko erabiltzen dituzten bide anitzetako bat baizik ez da.

Hizkuntza edo historia ez dira euskal nazionalismoak era-
bilitako argudio bakarrak. Horiekin batera, euskal nazionalis-
tentzat pisuzkoak diren beste arrazoi batzuk ere badaude, in-
dar handiz finkatuak, gainera. Arrazoi ekonomikoek —eus-
kal aberastasunak alde egitea sailhesteko— edo arrazoi nazio-
nal edo sentimentalek —kirol selekzioak edo euskal lurralde
guztiak baturik ikusi nahia— azaltzen digute gatazka honen
iraupena.

Espainiar eta Frantziar Estatuak euskal gatazkaren aurrean: pribilegioaren teoria

Honaino, gatazka azaltzeko euskal arrazoiak adierazi ditugu. Arrazoi historikoengatik zein euskal nazionalismoaren diskurtsoa lantzeko moduagatik, kontua da gatazka politiko bati buruz hitz egin dezakegula. Gatazka horrek Euskal Herriak Espainiarekin eta Frantziarekin —kokatuta dagoen estatuekin, alegia— dituen harremanei eragiten die. Orain, bi estatu horiek gertakari hauen aurrean zer jarrera izan duten ikusi behar dugu.

Hasieran, estatu bi horiek ukatu egin dute gatazka dagoela, erabat ukatu ere, dela alde batera utziz, dela hari legitimazioa kenduz. Horretarako, argudio sorta zabala erabili dute; euskal eskariak Estatuak inondik inora ezin onar zitezakeen pribilegioak zirela argudiatuz, batez ere.

Euskal gatazkari buruzko literaturan gehien jorratu den gaietako bat euskal eskarien izaerari buruzko eztabaida da; hots, pribilegioak diren edo ez. Bi kasuetan, nabaria izan da Espainiako eta Frantziako nazionalismoen jarrera erasotzailea, estatua izateak duen eragin handia baliatuz. Eztabaidak bi garapen posible ditu: eskaria guztiz ukatzea, halako esku-biderik ez dagoelako eta beste eskualdeei kalte egingo liekeelako; eta eskaria neurri batean onartzea, beste eskualde batzuetara ere hedatuz, baina gero beste eskari batzuk ukatuz, beste eskualdeei kalte egingo liekeelako.

Zalantzarik gabe, lehen jarrera izan da erabiliena. Gaztelaren batasunaren defendatzaileek XVII. mendetik XIX.era arteko idazlanetan argudiatzen zutenez, euskal probintzietako foruak erregearen erregaliaren ondorio izan ziren eta, horregatik, erregearen borondatearen mende egon beharra zuten. Erdi Aroa eta orduko lurralde dispertsioa gaindituta, Gaztelako erresuma berriak batasuna izan behar zuen oinarri, arlo guztietan; lurralde arloan zein arlo juridiko-politikoan.

Iraultza Frantsesaren ondoren, antzinako erakunde eta usadioak mantentzeko ahaleginak nobleziaren pribilegioei

eusteko saiotzat jotzen zituen etengabe mugimendu uniformatzaileak. «Pribilegio» horiek ez omen zuten lekurik herriaren legezko berdintasuna aldarrikatzen zuen Estatuan. Izan ere, aldaketa garrantzitsua gertatu zen mugimendu horien ondorioz: subiranotasuna ez zetzan, harrezkero, erregearengan, herriarengan baizik. Hori zela eta, pribilegio juridiko-politikoak iraingarriak ziren; ez erregearen desioentzat, herri osoaren berdintasunerako baizik. Argudio horretan babestuta, Frantziak ukatu egiten du Euskal Herriaren existentzia bera, erakundetze mota oro ukatzen baitio.

Estatu bateratuaren eta herritar guztien berdintasunaren argudio horrek, egun ere erabiltzen denak, tarte txikia uzten dio gatazkaren konponketari, konpontzen oso zailak diren bi adierazpen egiten dituelako: lehena, Frantziako herritar guztiak frantsesak direla derrigorrean, eta Espainiakoak espainiarrak; eta bigarrena, ezin dela espainiarren edo frantsesen artean alde juridikorik egon.

Erregioen eskubide partikularrei buruzko bigarren jarrera berriagoa da, eta lehenengoaren aldaera dugu. Egungo Espainiako Konstituzioan jasota dago, 1978koan, bertan Espainiak Autonomien Estatutzat jotzen baitu bere burua. Hau da, Espainiako eskualde guztiek, handiak zein txikiak izan, autonomia batekoak behar dute izan. Aitortzen du ez berdintasun txiki bat dagoela autonomia historikoen —lau dira guztira, Euskal Herria barne— eta gainerakoaren artean, baina gutxieneko oinarri batzuk ezartzen ditu autonomia guztientzat eta, batez ere, ezein autonomiak gaindi ezin dezakeen muga. Autonomien Estatuak, antolatua dagoen moduan, Espainiako eskualde guztien arteko harmonia bermatuko luke. Autonomia historikoek eskumen gehiago jasotzeko eginiko ahalegin guztiak harmonia horren kontrako eraso dira beraz, eta beste autonomien arbuioa jasotzen dute, galtzaile ikusten dutelako euren burua.

Edonola ere, pribilegioaren teoria oso antzua da hurbiltze formulak bilatzen saiatzeko orduan. Izan ere, nork onartuko luke berak ez dituen pribilegioak besteak izatea? Arlo ju-

ridiko-politikoko lurralde diferentzien kontzepzio hori gaudituz baizik ez daiteke akordiorik lor. Gatazka ulertze-ko modu horrek izan duen nagusitasunak luzatu du, dudarik ez, gatazka hori.

Euskal gatazka eta Espainia eta Frantziako Estatuak: akordio bila

Ohi denez, euskal gatazkan askoz kemen handiagoa xahutu da norberaren jarrerak justifikatzen, konponbideak bilatzen baino. Eta horrek elikatu egin du gatazka. Bide hori foru baskongadoen izaerari buruzko eztabaida historikoan suma dezakegu, aldean aldarrikapenak legezkoak diren edo ez frogatzeko saioretan. Eztabaidak pribilegioaren teoriarekin segitzen du, errepresioarekin, etab. Egon da konponbiderako proposamenik, baina irrealizat jo dituzte askotan. Eta, horien ondoan, egun diren muturreko bi aukerak jarri behar ditugu, horiek ere konponbidea baitira: hots, independentzia edo estatuen tesiaren erabateko garaipena.

Adostasunik gabeko independentzia proposamenak erdibideko beste proposamen batzuk ezinezkoak ziren garaietan azaleratu dira. Horregatik, XX. mendearen hasieran indartu zen proposamen hori, Arana bere mezu nazionalista hedatzen hasi zenean, edo mende horretako 20ko urteetan, Espainian Primo de Riveraren diktadura zegoenean. Garrantzi berezia hartu zuen 1936. eta 1937. urteetan, gerra egoerak euskal lehendakariaren eskuetan armada eta botere handia utzi zituenean artean kontrolpean zituen lurraldeetan, horiek gutxi baziren ere. Urte horietan, independentzia aldarrikatzeko deiak egin ziren, batez ere Jagi-Jagi gazte mugimendu nazionalistaren aldetik. Azkenean, Franco-ren diktaduraren garaian, ugaltu egin ziren independentziaren aldeko deiak. Hasieran, EAJren inguruan, formula batzuk aztertzen ari baitziren II. Mundu Gerran aliatuen garaipen posiblea aprobetxatzeko, eta horrekin batera Franco boteretik botatzeko. Geroago, ETAren eskutik, denbora

batean bide iraultzailea aldarrikatu baitzuen Euskal Herriak independentzia lortzeko. Aldi berean, aurkako ikuspegia ere aipatu beharra dago garai berberetan. Espainiako Estatuari dagokionez, erabateko ukazioa izan zen; Frantziako Estatuak, aldiz, jarrera zuhurragoa izan zuen, batez ere duela gutxi arte, nazionalismoak indar txikiagoa izan duelako bertan.

Muturreko bi jarrera horiek direla eta, begi bistakoa da akordioa ez dela erraza. Euskal Herria eta Espainia zein Frantzia aurrez aurre jartzen dituen gatazkak izaera guztiz politikoa dauka, eta zentzu horretantxe ulertu beharra dago. Hiru aktoreren arteko lurralde borroka da, bi frontetan banatua: euskal nazionalismoak elikatutako euskal ikuspegi baten arabera, Euskal Herriak lurralde egitura independentea osatu beharko luke; nazionalismo frantsesak elikatutako ikuspegi frantses baten arabera, egun Frantziako Estatuarena den Euskal Herriaren zatiak Frantziarena izaten segitu beharko luke; azkenik, nazionalismo espainiarrak elikatutako ikuspegi espainiarraren arabera, egun Espainiarena den Euskal Herriaren zatiak Espainiarena izaten segitu beharko luke.

Beste zailtasun bat, horri guztiari gehitua, euskal nazionalismoak, puntu estrategiko moduan, bere lurralde guztiaren subiranotasun osoa aldarrikatzea da. Hau da, Espainiatik eta Frantziatik bereiztea aldarrikatzen du, eta bere lurraldea politikoki bateratzea. Jokatzen ari diren aktoreak bi beharrezan hiru izateak korapilatu egiten ditu egoera eta konponbideak. Bateratzea eskatzeak galga gisa funtzionatzen du, eta geldiarazi egiten ditu estatuak negoziazio posibleen garai; alde batetik, estatu bakoitzak bere subiranotasuna konprometitu behar ez duela ohartarazten diolako besteari; eta, beste alde batetik, negoziatzeko konponbide posibleek behin-behineko izaera izaten dutelako beti, nazionalismoak bere helburu estrategikoei publikoki uko egin arte.

Egon da, eta oraindik ere bada, erdibideko konponbiderik, zori ezberdinarekin. Euskal departamendu propioa aldarrikapen historikoa izan da, Frantzian departamendu banake-

ta egin zen une berean hasi baitzen. Euskal nazionalismoak deszentralizazio administratiborako ereduak bilatu zituen Espainian 1910eko hamarkadan, eta kemen are handiagoz 1930eko hamarkadan, II. Errepublikaren garaian. Izan ere, 1936ko urrian, gerra betean, Euskal Herriari Autonomia Estatutua onartu zitzaion, nahiz gerrak txikiagotutako lurralde batean izan zen. 1960ko hamarkadaz geroztik, departamenduaren aldeko aldarrikapena indarberritu egin zen Ipar Euskal Herrian, autonomia eskaerekin, edo EBren eremuaren barruan erregio-deszentralizazio proposamenekin batera. Eta 1980ko hamarkadatik aurrera gobernu autonomikoa onartu zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat, eta beste bat Nafarroa Garaiaentzat. Gainera, Frantziak deszentralizazio ekimenak abiarazi zituen. Nabarmenezkoa da kasu bietan Estatuaren lurralde osoari eragiten zioten proposamenak zirela; hau da, Espainia Autonomia Estatu bihurtu zela eta Frantziak eredu administratibo deszentralizatuago bat hartu zuela. Pribilegio forma oro saihestea zen xedea.

Bada azken urteotan bidea egiten ari den beste proposamen modernoago bat, historian oinarritua bada ere. Proposamen hori autodeterminazio eskubidea da, eta gatazkari eman lekiokkeen edozein konponbideren ardatz gisa agertzen da. Euskal herritarrek erreferendum baten bidez zer lurralde antolaketa hartu nahi duten adieraztean datza, euren iritzia azaltzean. Gatazkak bere horretan irauteak eta aktore politikoen gaitasun ezak protagonismo handiagoa ematen die herritarrei. Hori dela eta, herri bozketaren eskakizuna gero eta indar handiagoa hartzen ari da.

Bada, azkenik, beste aukera bat ere: Europar Batasuna. XX. mendearen erditik aurrera indar handia hartu zuen ideia da, hasiera batean batez ere, batasunaren irudia eraikitzen zen neurrian. EBrentzat egin diren etengabeko erregionalizazio proposamenak dira arazo nazional eta erregionalek europar eremuaren antolakuntza administratibo berri batean izan dezaketen konponbidea. EBren barruko erregioen egitura sendotu ahala, egungo estatuek galdu egingo

lukete boterea, eta horrek erraztu egingo luke euskal gatazkaren konponbidea.

Horretaz guztiaz jardun nahi dugu, hain zuzen ere, hurrengo artikuluan batean.¶

Nazionalismoa biribilgunean

XABIER AGIRRE URTEAGA

Filosofian doktorea

Pentsamenduak aurrera egingo badu, jarrera ezberdinak parean jarri eta bakoitzaren oinarri kontzeptualak aztertu behar dira. Horretarako daude polemikak. Filosofiaren historian hain emankorrak izan direnak, alafede.

Jakin aldizkariak, 162. zenbakian nazionalismoari buruzko baten berri eman digu. Oinarriko ezbaian Ulises Moulinesen ikuspuntua zientziazaleak metodologia zorrotza, jarrera empirista eta aurreste gabekoa (naïf samarra, akaso) ekarri zuen gaira; bestalde, Aurelio Artetaren erantzunetan aber-tzaletasunaren deslegitimazio tematia agertzen da, hainbes-tetako argudio nahasmena etengabe erabiliz.

Polemikaren erdian sartu nahi gabe, idazki hau fokua ire-
kitzera dator, nazionalismoaren afera auzi filosofiko zabala-
go baten zatia dela erakuste aldera. Begirada zabaltze hone-
kin topiko politikoak agerian utzi eta horien erabilpen tra-
ketsa salatu nahi da. Ideia komun horietako batzuk hauexek
dira: nazionalismoak oinarri prepolitikoak dituela, errepu-
blikanismo modernoak nazionalismoarekin zerikusirik ez
duela, eskuarki egiten den giza eskubideen irakurketa zu-

rrunegia dela, edota askatasuna eta berdintasuna bermatzeko modu bakarra estatu-nazioa dela.

Lehendabiziko hurbilpenean, etika-molde orokor batzuk bereiztearren, familia politikoak zedarritzen saiatu behar. Aspaldiko estoikoek estreinatu zuten gizakia espezie moduko ikuskera, moral unibertsala eraikitzeko aukera sortu zuten, eta politikan kosmopolitismoa. Askoz geroago, Kantek *Moralitätä* aldarrikatuko du, hots, baldintza historikorik gabeko arau etikoen eraketa, lege unibertsala helburu. Horren aurka, Hegelen *Sittlichkeit*ak gizakia ezinbestean testuinguruan kokatzen du, eta arau etikoek nonbait txertatuak behar dutela aldarrikatzen. Hegelen ondorengo tradizioan Arrazoimenaren gauzatzea taldean eta instituzioetan ikusten denez, taldekatzearen irizpideak emango dio jitea handik sortutako edozein arazo etiko-politikori. Bide honetan, giza taldea gogortzeko irizpide hori lurra, hizkuntza, edo etnia bada, nazionalismoa da sortzen, garaiko erromantizismoaren aurpegi politikoa. Gerora, *nazio* termino historikoa *komunitate* terminoak ordezkatu nahi izan du, jatorriko kontzeptua zabalduz eta indarra galaraziz. Tradizio honetan bertan norbait estatuaren eta legearen dohainek liluratuta geratuz gero, errepublikanismoa agertzen da, gizabanakoaren lehen agindua komunitate politikoaren partaide izatea hobesten delarik. Beste tradizio bat ere badago, modernitatean Britainiar Irletan sortu eta eremu anglosaxoniarrean errotutakoa. Pentsamolde horrek gizakia edozein taldekatzeko baino aurreagokoa dela argudiatzen du, estatuari zein edozein antolaketari mugak jartzera dei egiten duelarik. Azken jarrera horri liberalismoa deritzo.

Horra hor bada, hurrenez hurren, gaur eguneko familia filosofiko politiko nagusiak: kosmopolitismoa, komunitarismoa, errepublikanismoa eta liberalismoa. Hemendik aurrera bakoitzaren oinarri nagusiak modu kritikoa aztertuko dira, haien asmoak, helmena eta kontraesanak agerian jarri nahian. Guztiek nazionalismoarekin izan lezaketen ahaidetasuna eta berorri bakoitzak eskaini ahal dizkion ibil-

bide aukerak zirriborratuko dira, pentsamendu dogmatikotik ahal bezainbeste aldentuz, hots, *panta rei* oihukatuz.

Errepublikanismo historikoa eta modernoak

Korronte honetara biltzen dira estatuaren gailentasunean konfiantza osoa jarrita dutenak. Horien ustez, estatuak ematen ditu lanabes guztiak gizakiaren izaera kolektiboa behar den bezala osatzeko. Antzinatean Zizeronek, *De re publican*, ongizate komunaren bila dabilen juridikoki antolatutako gizatalde gisa definitzen du errepublika. Ondoren Makiavelok, boterea atxikitzeke tratatuan, *Il Principen*, bertutearen beharra azpimarratzen du, hots, subiranoaren jokatzeke modu berezia sustatu nahi du. AEBetako fundatzaileek, bestalde, bertute politikoak herritar guztien artean zabaldu behar direla bultzatzen dute. Hortaz, esan liteke errepublikanismoa legearen eta bertutearen arteko sinbiosia dela. Alabaina aurreko inork ez du sinesten herritarren benetako parte hartze zabalean, zeren soilik herritarren zati txiki batek izango baitu interes orokorren kariatara baiespena emateko aukera, interes indibidualak onbehar kolektiboaren izenean sakrifikatu behar baitira, Rousseuren *borondate orokorrak* ordezkatzeko duen errepublikanismoa, hain zuzen ere. Hemendik ederki ondorioztatzen da errepublikanismoa, beste hainbat korronte politiko arrakastatsu gehienak bezalatsu, ez dela berez demokratikoa; hau da, garaian garaiko eliteen iritzia gauzatzeko justifikazioa ematen duela, ez besterik. Adibiderako, Bodinok XVI. mendean herritari subiranoaren kontra altxatzeko eskubidea onartzen dio, baldin eta monarkak lege jainkotiarrek urratzen baditu. Erregea besterik ez da subiranoa, eta errege horren gainetik jainko egokiaren legeak daude, ez inondik ere herriaren subiranotasuna.

Errepublikanismo modernoak herritarrak behar ditu, hau da, estatuari men egingo dioten gizabanakoak behar ditu. Alde honetatik beste hainbat pentsamendu bezain holisti-

koa da, taldearen kontzeptu gogorra erabiltzen baitu, eta barne kohesioa ezinbesteko jotzen.

Badu errepublikanismo moderno honek berritasunik, ordea. Askatasuna definitzerakoan, positiboari (politikan parte hartzeko askatasuna, *antzinakoena*) eta negatiboari (nork bere kasa bizitzeko ezeren trabarik ez izateko askatasuna, *modernoena*) beste bat erantsi nahi izan dio errepublikanismo honek. Zera, benetako askatasuna *mendekotasunik gabe* bizi ahal izatea litzateke. Princetoneko eskolakoek (P. Pettit Q. Skinner, eta M. Viroli), joan den mendeko 70eko eta 80ko hamarkadetako liberalismoaren eta komunitarismoaren arteko debatean, hirugarren bide hori zabaldu nahi izan zuten besteen atomismo eta organizismoaren ondoan antolaketa politiko hutsari eta herritar bertutedunei gorazarre eginez.

Alabaina, errepublikanismo modernoak benetakotasun falta nabarmena erakusten du. Hirugarren bide guztiei darian haztamuka ibiltzearen itxura antzematen zaio. Hau da, ongi deritzon guztia nola edo hala integratu nahi duela dirudi. Zuzenbidearen teoria errealistatik estatuaren egitura juridikoaren balioa hartu eta konstituzionalismoa defendatzen du, oro har, despotismoa, populismoa, faxismoa edo iraultza ekidite aldera. Bestalde, formalismo hutsean ez erortzeko eta legearen hezurdura hutsean gera ez dadin, eduki politikoz hornitzen du legeen estatu hori. Nola? Tradizio politiko guztien kontzeptu ardatzak erakarriz. Liberalismotik askatasuna; sozialismotik (gutxi batzuen lanetan: P. Van Parijs, D. Raventós...) berdintasuna, eta errepublikanismo tradizionaletik bertute zibikoek ematen duten senidetasuna. Voilà!

Hala ere, enkofratu honetan barne kontraesan eta irristaldiak takean-potean atzeman litezke. Errepublikanismoak komunitarismoa gorrotatzen du honek taldearen barne kohesioa irizpide ez politikoz mantendu nahi duelako. Berriek, ordea, historikoki guztiz koiunturala suertatu den estatu-nazioari lotzen diote beren etorkizuna. Itxura batean, zuzenbide-estatu estatu-nazioari ezinbestean legoke atxi-

kia. Alabaina, estatuok sortu zirenean dinastien gainean (legitimitate demokratikorik gabeak gehien-gehienak), azpian hainbat aldarrri politiko lurperatuta geratu zen¹. Orain horiek azaleratzean egoera aurrepolitikora itzuli nahi dela esatea errazkeria argumentatiboa da, estatu modernoaren sorreran afera politiko asko eta asko ebatzi ezinik geratu baitziren. Berdintasun integrala, parte hartze demokratikoa, eta, oro har, identitate kolektiboen onarpen politikoa (sexu, kultur, lurralde, erlijio, edo ideologiak sortuak) bezalako kontzeptu eta aldarrikapenak eliteen iraupena bermatzera datorren gaur egungo egitura politikoaren zorian uzten dira orain. Gerren eta dinastien gorabeheren gainean oinarritutako asmakizun batek, denborak dena berdintzeko duen joera kontuan hartuta ere, teoria politiko luze baten etorkizuna eta arrakasta baldintzapean jartzen du.

Besteak beste, gaur egunean, errepublikanismoak zaila dauka migrazioen aurrean modu koherentean moldatzen. Eskubideak herritarrentzat besterik ez direnez, burbuila juridikoaren kanpoaldetik datozenek bizirauteko eskubidea besterik ez dute. Itxuraz, artatzearekin eta jaioterrira itzultzearekin bapo betetzen dira gizatasunaren gutxienekoak. Huskeria dira, huskeria direnez, oinarritzko betebeharrak horiek. Jarrerera humanitario hau Genevako tratatua (1949) jada lortua zen gerretako atxilotu eta zaurituekin. Etorkinei ez zaie gehiago eskaintzen. Ez dago, beraz, inolako aurrerapenik. Areago, barruan geratzen diren immigranteei herritar oso bihurtzeko baldintza kulturalak ezartzen zaizkie, hizkuntza ikasi beharra, esaterako; zer eta beste taldekatze motetan lardagarria eta onartezina juzkatzen dena. Maliarrari erdaretan murgiltze kulturala exijitzen zaio, herritarren askatik jan nahi badu, baina norbaitek katalana edo euskara ikastearen derrigorra aipatuz gero, bazterkeria edo nazismoa bezalako laidoak hitzetik hortzera erabiliko dira ustezko argudio eraginkor gisa. Hartara, ez da asko sakondu behar errepublikanismo espainiarrean edo frantziarrean pentsamolde hori eta nazionalismoa enbor bereko ezpalak direla ohartzeko.

Errepublikanismo espainiarra hara eta hona ari da arakazten ea non demontre errotu herritarrei eskatu nahi dien atxikipena. Koherenteenak, seguru aski, nazionalismo espainiarrean murgildu dira eta, inolako lotsarik gabe, haren sinbologia, historia eta espiritua berraurkitu dituzte. Beste batzuk, ordea, oraindik hor ari dira han-hemenkako balioak astintzen, balio horiek estatu-nazioekin modu deterministan lotuz. Azkenaurreko saialdia *patriotismo konstituzional* habermastarraren erabilpena izan da. Alabaina, norbaitek esan beharko lieke pentsamendu habermastarra, nazioaren arazoari dagokionez, guztiz kulturala eta historikoa dela, Alemaniako historian guztiz txertatua². Habermasen aburuz, nazio handi eta baztertzailen garaia pasatuta dago, batez ere faxismoak goratzen zuen nazioaren garaia³. Berdina esan lezakete Espainiako errepublikanistek? Errepublikanismo frantziarrak, halaber, nazionalismo bakarra onartzen du bere barnean, bere-berea. Bi errepublikanismook zuzenean erakusten dute pentsamolde politiko honek herritarren atxikipena ez duela bertute zibiko zabalduen bidez lortu nahi, nazionalismo estatal zentripetu baten bitartez baizik.

Estatuaren miresmen hori nazionalismo erromantikoen eremura aldatu, eta herri bakoitzeko estatu bat behar dela aldarrikatzen hasi da, horrek herriaren aspirazio guztiak aseko lituzkeelakoan. Egia da kontzientzia nazionala gorpuztuta, baldintza historikoak baliatuz, nazio-estatua eraiki ahal dela, eta hori guztia aurrerapausotzat har daitekeela. Honela, herritarrek beren gobernuarekiko duten identifikazioa gogortu egingo lukete, eta horrek seguru asko demokratizazioan erraztasunak ekarriko lituzke. Mundu mailan deskolonizazioaren ondotik azken hamarkadetan nazio dezentek lortu du berezko estatua, baina guztietan ez da eman espero zitekeen sakontze hori. Sobietar Batasunaren hausturaren ondorioz sortutako batzuk zurrumbilo batean sartu dira, non interes geostrategikoek bulkada demokratikoak baino indar gehiago baitute. Ondorioztatu ahal da, baikor jokatuz, nazio-estatua eraikitzea demokraziaren baldintza

beharrezkoa izan litekeela, baina ez nahikoa. Badira beste osagai batzuk hura bezain beharrezkoak, hala nola, gutxiengoen errespetua eta autoantolakuntza ahalmena, parte hartze demokratikoa edota ongiaren ideia inposatu nahi ez izatea (laizismoa eta neutraltasun nazionala).

Liberalismoa

Tradizio liberala da, beharbada, nazionalismoaren salatzailerik zorrotzena eta eraginkorrena. Gizakiak berezko eskubideak ditu edozein taldekatzeren aurretik, eta antolaketok (bikotea, familia, elkarteak zein estatua) gutxienguek aurreko izaera natural horri dagozkion eskubideok errespetatu behar izango dituzte.

Zientziari buruz hitz egiten ariko bagina, gaur egun giza eskubideen *paradigman* gaudela esan ahal izango genuke, oraingoz horiek baitira legitimitate-iturri gogorrenak. Eskubideen gaineko hizkeran, ordea, bada zer doitu eta zer zehaztu.

Eskubideok arazo ugari sortzaile dira. Lehen-lehenik kontzeptualak. Eskubideen oinarri filosofikoak ez dira, ezta gutxiago ere, ziplo adostasuna erdiesteko moduko arrazoi pisuzkoak. Giza eskubideen azpian gizakiaren kontzeptu zehatz bat dago, indibidualismoak bultzatzen duen pertsonaren definizio zabal bezain nahasgarria, eta gizakiaren kontzeptzio horrek eskubideen helmenean baldintzatzen du.

Jakina da Grezia klasikoan pertsona librearen definizioa hertsia zela (hiriko bertako gizon askea besterik ez da herritarra). Geroago beste baldintza batzuk erantsiko zaizkio garaian garaiko herritar errespetudunari; arimaduna izatea (konkistatutako lurraldeen biztanleek ez omen dute arimarik eta animalien pare jarri dira), edo fede berdaderoaren jarraitzaile izatea (islamdarrek eta barne disidentzia erlijio-soa horren lekuko), edota jabegoa, erlijioen nagusigotik ondusunenera pasatzerakoan. Halako batean, ordea, gizaki babesdunak zabalkunde izugarria jasotzen du Kantentzako pentsamenduaren ondorioz. Kantentzako geroztik pertsonaren kon-

tzeptua ahalmen etikoari lotzen zaio: «Natura osoaren mekanismoaren aurrean askatasuna eta independentzia»⁴ duena da pertsona. Hortaz, ezaugarri faktiko guztien gainetik nork bere buruaren gaineko legeak ezartzen dituen zerizana da pertsona, eta aurretik ezarritako murriztapen guztiak hautsi egiten dira, kontzeptua esponentzialki zabalduz. Honez geroztik, lehen aldiz badago arrazoi irmo bat babes juridikoa gizateria osora zabaltzeko. Gizabanakoak, arrazoi-menduna den aldetik, ez beste ezerengatik, merezi du errespetua, eta, hortaz, gizakia «bere baitango xede» izango da, ez bitarteko⁵. Horren gainean eraikiko da gerora giza eskubide unibertsalen egitura. Alabaina, eskubideak oraindik ere ez dira unibertsalak, estatuen mugen barnean errespetatzen zein zapaltzen direlako, inolako kanpo jazarpenik gabe.

Eskubide liberalen diskurtsoan badago beste arrisku bat: eskubideak baldintzagabeak direla iriztea. Honela uste bada, haien betearazpen automatikoa eta berehalakoa exijitzen da, eta exijentzia hori gauzatzeko jazarpen legala edota indarkeria legitimoa erabiltzera jotzen da. Aurrenak ez du zertan arazorik sortu legearen printzipioak (legitimitatea, helegite ahalmena, inpartzialitatea...) betez gero, baina bigarrenak, gertaera atzeraezin eta bidegabekeria berrien sortzaile den aldetik, auzi moral eta politiko berriak eragiten ditu. Eskubideek tupust egin dezakete elkarrekin eta, hortaz, askotan ezin dira guztiak batera errespetatu. Honen ondorioz, eskubideen artean dagoen lehentasun printzipioa erabakitzea ardatzeko gai bihurtzen da. Askok eskubide murriztapenarekin ebazten dute, baina horrek ere eskubide gutxi horien betetze maila eskasa erakusten du: legeak hil egiten du (heriotza zigorra), legepean torturatu egiten da (legislazio espezialak) eta legepean atxilo hartzen da gutxieneko bermerik gabe (Guantanamo eta beste). Ez al ziren hauek guztiak baldintzagabeak? Beste muturrean, eskubide guztiak modu berean eta bat-batean gauzatu nahi izatea eskubideen zerrenda luzearekin lotzen bada, etengabeko arazoak sortuko dira, kontzeptualak eta praktikoak. Eskubideen

izenean bidegabekeria galantak egin litezke, herrialdeak bonbardatu eta inbaditu, edo buruan tiro egin. Eskubideen teoria ez da, beraz, uste bezain eraginkorra eta, oro har, ez luke legitimitate emaile bakarria izan behar.

Izan bada, giza eskubideen inguruan, beste gaizki ulertu zabaldu bat: horiek gizabanakoari soilik dagozkiola. Axioma tankerako horrek, liberalismo ortodoxoenak zabaldutako ustea delarik, eskubideen aiurri historikoa ezkutatzen du. Eskubideak ez dira gizabanakoaren *jainkoak* errebelatutako egiak, gizataldeen borroken eskarien ondorioz gorpuztutako lorpenak baizik. N. Bobbiok tesi hori behin eta berriro defendatzen du; horren esanetan, «oinarrizko eskubideak defendatzen erabiltzen diren argudioak historikoki baldintzatuak dira, eta beraz, aldaketa historiko esanguratsuen menpean» daude⁶.

Eskubideen zerrendaren luze-zabala gizartean sortutako injustiziaren aurkako gizarte zibileko taldeen aldarrikapenek eratu dute. Eta borroka horiek ez dira modu deduktiboan ebatzi, giza askatasun, berdintasun eta duintasunaren balioetatik ondoriozta litezkeen arrazoiak erabiliz. Arrazoiok ondoren etorri dira lorpenak legitimatzera, ez alderantziz. Zaila da ulertzen lehendabiziko eskubideak (bizia eta jabegoa) burgesiaren bulkadarik gabe, pentsamendu eta erlijio eskubidea Erlijio Gerretako sarraskien zirrarak gabe, eskubideen *bigarren belaunaldia* deitutakoa langile mugimendurik gabe, edo generoen arteko berdintasuna sustatzen duen eskubide andana emakumearen borrokarik gabe. Eskubideok ez datoz gizakiaren kontzeptu hipostasiatu batetik, injustizia historiko batzuen aurkako borroken ondorioz baizik.

Horregatik, eskubideen zerrenda itxia dagoela diotenean intentzio txarra berehala susma liteke. Hara profeta berrien esana: gizabanakoek dituzte eskubideak, ez taldeek. Esklaboak, emakumeak, juduak, beltzak, langileak, torturatuak, herri kolonizatuak... taldeak dira eta, haien aldarrikapenak bultzatuta, zehaztu izan dira eskubideak historian zehar. Ikuspegi esentzialistek, hots, ahistorikoek, zera sinestarazi

nahi dute: gizabanakoa zer den gauza jakina dela eta esentzia horrek besterik ez duela babesa merezi.

Liberalismoaren tradizioa, aitzitik, askoz ere zabalagoa da aurreko liberalismo kontserbadorearen irakurketa baino. Liberalismoa ez da neoliberalismo ekonomiko hutsa. Eskubideen auziak, eta oro har, askatasunaren auziak, naziotasunarekin zerikusia baduelakoan, liberalismoak ez dio gaiari itzuri egiten. Esaterako, J. S. Millek bete-betean hartu zuen 1861eko *Considerations on Representative Government* liburuan eta, gordinki, herriek beren gaineko gobernu izateko joera deskribatu eta onesten du:

Non nola-halako indarrez nazionalitate sentimendua egon, han nazionalitateko partaideak gobernu berean batzeko *prima facie* kasua dago, eta beraientzako *berariazko* gobernu. Hau gobernuaren afera gobernatuek erabaki behar dutela esatea besterik ez da.⁷

Mill harantzago doa: «Instituzio askeak ezinezkoak dira nazionalitate ezberdinez osatutako herrialde batean»⁸. Irizpide orokor horrek badu, ordea, ñabardurarik. Nazionalitate horien tamaina ere kontuan hartzeko modukoa da. Millen us-tez, ezingo dira elkarrekin bizi berdintsuak badira, baina nazionalitate txikiak beste handiagoen magalean ederki asko bizi ahal direla uste du pentsalari britainiarrak⁹.

Liberalismo modernoan ere Yael Tamir-ek ezkongarriak ikusten ditu liberalismoa eta nazionalismoa:

Tradizio liberala, bere autonomia pertsonal, hausnarketa eta aukeraren errespetuarekin, eta tradizio nazionala, pertenez-tzia, leialtasun eta elkartasunaren azpimarratzearekin, eskuarki elkarrekiko bateraezinak ikusi izan badira ere, bata bestera moldagarria da.¹⁰

Areago, nazionalismoaren aldarrikapenetako bat, herrien autodeterminaziorako eskubidearen aitortza, ez doa oinarri liberalen aurka, liberalismoak ederki defendatu ahal du: «Autogobernuaren aldeko argudioak zera erakusten du, zirkunstantzia zenbaiten pean, hobe dela batasun politikoa gutxi gorabehera talde orohartzaile bati egokitzea»¹¹.

Komunitarismoa

Liberalismoaren azken ekarpen nagusiaren ondotik, J. Rawls-en *Zuzentasunaren teoriaren* ondotik, hain zuzen ere, bi erantzun-soka harilkatu dira eremu filosofikoan. Alde batetik, neoliberalismotik (motzena eta berriki porrot egin duena) R. Nozick-ek gogorki kritikatu du Rawls, liberalismoaren oinarrietako baten aurka dagoelakoan; Rawlsek estatuaren hazkundera eta parte hartzea eskatzen omen du. Bestetik, luzeagoa eta gerora emankorren suertatu den eztabaida filosofiko bat egon da, A. MacIntyre, Ch. Taylor, M. Walzer eta beste hainbatek liberalismoaren atomismoa kritikatu eta bizimodu moralerako komunitatearen garrantzia azpimarratu dutela. Komunitarismoak gizakia testuinguru kultural eta sozial batean kokatzen du, eta horko harremanak gizabanakoaren edozein ideia aurretik egongo lirartekeela uste du.

Familia filosofiko honen itzalean koka liteke erosoan pentsamendu nazionalista, azken horrek nazio bateko partaide-tza azpimarratzen duelarik, komunitarismoak baliabide kontzeptual ugari ematen baitizkio.

Kontzeptu horietako garrantzitsuena zera da, liberalismoak aldarrikatutako estatuaren neutraltasuna albora utzita, komunitatearen balioak estatuak bultzatzearen aldeko jarrera. Estatu perfektzionistaren bidean, komunitarismoaren ongiak kultura, hizkuntza edo erlijioen balioak aintzat hartu ahal ditu. Komunitarismoak gutxiengoekiko sentiberatasun berezia erakusten du eta gizarte konplexuetan eredu multikulturala defendatzen du, non talde guztiek nor bere gisako antolaketa, eremu esanguratsu eta ez komunetan, izatea nahi luketen. Ipar Ameriketara arrakasta dezente izan du gutxiengo kultural, etniko, sexual edo erlijiosoak dauden lekuetan, zeren horien errespetua ez ezik, berorien autoeraketaren alde ere irmoki egin baitu.

Hainbat komunitaristak, arazo nazionalak kontuan hartu gabe, tradizioari dei egiten dio (A. MacIntyre), edo, besterik

gabe, ongiaren kontzeptua gizakiaren aukeramenaren aurretik dagoela dio (M. Sandel). Alderdi honetatik, komunitarismoaren egiturak errepublikanismoaren egituraren antz handia dauka; gizartearen kohesioaren bila aritzen dira biak ala biak eta horretarako ongiaren ideia bat edo komunitate politikoaren beharra darabilte, hurrenez hurren.

Komunitarismoak, afera nazionaletan murgiltzean, eta egoera zehatzetan sartzen denean, ordea, hainbat jarrera bixi erakusten du. Itxura batean, gutxiengo guztiak ez dira eskubide berekoak. Garbi dago komunitate handien indartzea inperioak eta genozidioak ekarri dituela. Komunitate txiki(tu)en aldeko aldarrikapenak, aldiz, gehienetan, motibazio zuzena erakusten du, benetako merkatu askerik ez dagoen bezala, kulturen egoera ez baita erabaki askeen emaitza, ezberdinen arteko neurketa bidegabeen emaitza baizik. Dena den, diskurtso komunitaristan kontraesanak berehala sortzen dira gutxiengo kulturalen eskubideak onartzen dituenetan eta, era berean, immigrazioarenak ukatzen dituenetan. Babes kulturala ez bide da unibertsala. Etorkinak gizabanako moduan etortzen direnez, eskubide kolektiboak galdu egiten dituzte, antza. W. Kymlicka-k bihurtura kontzeptualak egin behar ditu kolonietako etorkinen eta gaurko etorkinen arteko bereizketak egitean. Itxuraz, kolono ingelesek eta frantsesek elkarrekin bizitzeagatik azkenean eskubideak aldarrikatzeko aukera garatu dute; aitzitik, oraingo etorkinek kultura hartzailearen barnean sartzea beste helbururik ez omen dutenez, ezin aitortu eskubide kolektiborik, multikulturalismo ahulak aitortzen dizkienak ez badira¹². Migrazio datak eta kultura hartzailearekiko jarrerak zerikusi handia izango lukete, hortaz, eskubideen jabe izateko. Itxura batean, duela lau mende mugitutakoek badute eskubide nazionalik, baina duela ehun urtekoek ez. Nork esango Frantziako edo Alemaniako gutxiengo etnikoei sekula ez dutela talde bezala eskubide kolektiborik izango mendeak pasatu arte? Estatu Batuetako beltzek ederki erakutsi dute injustizia nabarmenen aurrean aldarrikapen kolektiboak eskatzearen poderioz

lortu egiten direla, eta ez denboraren joanaren poderioz. Horregatik guztiarengatik, bereizketa horrek gehiago dirudi *ad hoc* egindako arrazoiketa.

Kosmopolitismoa

Kosmopolitismoaren oinarrian gizakiaren taldekatzea espezie mailara igotzea dago, hots, beste edozein irizpide taxonomiko ez da kontuan hartzen maila moralean, gizatasuna ez bada. «Gizakiarengan (lurrean izaki razional bakarra den aldetik) bere arrazoimena erabiltzen laguntzen duten ahalmen naturalak osoki espeziean garatu behar dira, ez gizabanakoarengan», dio Kantek *Asmo kosmopolitako historia orokor baten ideien* bigarren printzipioan. Horrek zera esan nahi du, gizakion eginbeharra banakotasunetik harantzago dagoela eta lotura ez dela azareak emandako ezer, gizakiok bat garelako kontzientzia orokorra baizik. Jarrera horrek, printzipioz, estatuen eta nazioen gaineko beste antolaketa zabalago batera bultzatzen du. Pentsa liteke gobernu mundial batera izan litekeela, baina ez. Kantek berak estatuen beharra dakusa, mundu mailako despota baten beldurrak. Baina, zeren araberrak estatuak? Zuzenbidea modu egokian ezarriko duten estatuak nahi ditu, hain zuzen ere. Jakina, honengatik askotan Kant errepublikanismoan kokatua izan da lege onez, baina hemen bere joera unibertsalistari arreta gehiago jarri nahi zaio, eta kosmopolitismo *erron*tu batean kokatzea nahiago izan da.

Ezen, estatuen hizkera erabiliagatik, kosmopolitismoak herriak hartzen baititu kontuan eta horiek beren buruari estatu egitura emateko gaitasuna. Kant *Beti*reko *bake*an mundu mailako federazioaz ari denean, hainbat belarri *kosmopolita korrektorentzat* eskandalagarria den ideia agertzen da: «[...] zeren hemen *herrien* elkarrekiko zuzenbidea kontsideratzen dugu, hainbat estatu ezberdin osatzen dituzten neurrian, eta ez estatu batean batzen direla»¹³. Geroago, tradizio kantiarreko pentsalariek ere ez dute zuzentasuna estatu egitura his-

toriko zehatz batekin ezinbestean lotzen. Esaterako, tradizio hori gaurkotu duen J. Rawlsek herriak (*peoples*) jartzen ditu mundu zuzenaren egituratzearen oinarrian. Berorren ustez, herrien kohesionatzeko gaitasuna beharrezko osagaia da munduaren antolaketa zuzena mamitu nahi bada («jende-zuzenbidea sinpatia komun beharrezkin hasten da, jatorria edozein delarik»¹⁴), demokrazia konstituzionalaz eta izaera moralaz gainera. Mestizajeak eta migrazioek ezinezkoa egiten dute herri homogeneous, baina, hala eta guztiz ere, antolaketa zuzenerako herritarren arteko sinpatia, nondik edo handik sortua, derrigorrezkotzat jotzen du pentsalari iparramerikarrak. Areago, Rawlsten iritzian, benetako *ius gentiuma* ezin da estatuen gainean eraiki estatuek *arrazoizkotasunaren* printzipioa errespetatu ezean, hots, ez lukete inolako doktrina orohartzailerik besarkatu behar, hots, ez lukete ongiaren kontzepturik defendatu behar. Beraz, estatu erlijioso edo nazional inposatzaileak albora gera litezke ongiaren ideia komuna zabaldu nahi izateagatik.

Orain artekoak, gutxienez, esan nahi du tradizio kosmopolitak ez diola inolako muzinik egiten herrien beren gaineko antolaketari. Mundu mailako justizia lortu nahi izatekotan, herriak dira oinarri, beste edozein antolaketa mota ideia orohartzailez kutsatuta egon baitaiteke.

Kosmopolitismoak, ordea, batzuetan jarrera utopiko samarraren tankera hartzen du, historiatik eta gizarteetatik aparte diseinu intelektual perfektuaren tankera, hain zuzen ere. Rawlsek, liberalismo politikoaren sortzaileetako bat, errealitatera begiratzerakoan, proposamen egingarria aurkeztu nahi luke eta gizaki guztiok gutxieneko eskubide maila baten pean bizi ahal gaitezen egiten du amets. Alabaina, eskubide maila hori baxu samarra ezartzen du, nahikoa babilizateke eskubide oinarritzko batzuk betetzea (bizitza, askatasun, jabetza eta berdintasun formalarenak)¹⁵ edozein gobernu hierarkiko eta ez demokratiko nazioarteko komunitatean onartua izateko. Horren ondotik, Rawlsten ustez, herriak gero eta liberalagoak izango lirateke osmosiaren mo-

duko fenomeno natural politiko baten bitartez; eta herrialde hierarkiko ez liberalek, liberalen oniritziarengatik, askatasunerako eta eskubideetarako joera izango lukete. Onarpen horrek herriak onbideratuko lituzkeelako uste metodologiko hori teoria rawlsiarrak behar duen aurrebaldintza da, baina sinesgaitza suertatzen da aldeko harreman ekonomikorik gabe. Rawlsek liberalismo politikoa kutsakorra dela pentsatzen du modu baikorregian, eta ez du ikusten progresoaren mitoa ederki zapuztu duela igaro berria den XX. mendeak.

Kosmopolitismoak, oro har, beste edozein jarrerak erakusten dituen aldagai anitzak ditu. Kosmopolitismo gogorretik (erkidetasunak ez du inolako pisu moral edo politikorik) kosmopolitismo ahulera (herrien/estatuaren gaineko antolaketa da aurrena, mundiala gero) doazen ñabardura guztiak aurki daitezke eremu ideologiko honetan¹⁶. Bestalde, sozialismoa, gizateria osoari begira eraikitzen den heinean, kosmopolitismoaren eremuan koka daiteke, horrek erakusten dituen ñabardura guztiak onartzen dituelarik. Alabaina, hasieratik bertatik askatzen du sozialismoak afera hori: iraultza mundialerako deia egiten du, horretarako herrien iraultzak ezinbesteko direlarik.

Konklusioa

Filosofia politikoko familia batzuen zirriborro behartu bat egin da hemen bi helbururekin.

Baga, nazionalismoa ikusmolde horietan guztietan eroso asko gara daitekeela erakutsi nahi izan da. Errepublikanismoan (estatu-nazioa edo nazio-estatu, bi aldagaiotan) *estatu* eta *nazio* kontzeptuak lotu nahi dituelako, liberalismoan askatasuna taldeen alorrean ere jokatzeko delako, komunitarismoan kulturen balioa goraiatzeko delako eta kosmopolitismoan herrien gaineko mundu-antolaketa hobesten delako. Pentsamendu tankera guztietan dago lekua herrientzat. Beraz, nazionalismoan gutxiagotasunezko konplexurik balago, galdu egin beharko litzateke. Herriak ez daude, prin-

tzipioz, gizabanakoaren aurka, ez zuzenbide-estatuaren aurka, ezta mundu mailako balizko antolaketa zuzen baten aurka ere. Seguru aski, hemen erakutsi nahi izan denez, horien guztien bermatzaile ere izan liteke herria.

Biga, nazionalismoa etengabe birpentsatzen jarraitu behar da, ohiko eskemetan (tradizioa aintzat hartu beharra, estatu nazionala eraiki beharra, edota eskubide kolektiboen aldarrikapena) tankera bereko beste nazionalismo indartsuagoekin dema antzu eta odoltsuetan luzatzen delako. Askotan, mimetismoak jota, pentsamendua alfertu egiten da eta, oinarri ideologikoa eraikitzerakoan, parekoaren eskemak errepikatzeari nahikoa irizten zaio. Ondorioz, indar neurketak huts batek erabakitzen du afera. Patua idatzia dago hortik aurrera: galtzaileak erresistentzia aldarrikatzen du eta irabazteko aukera berri baten aiduru geratzen da. Bitartean, ordea, pentsamenduaren zirrikitueta haztamuka egin liteke. Lehenik, nazionalismoaren deslegitimazioaren tranpak salatu behar dira. Temati, nazionalismoa gaitz guztien sortzaile ikusten dute pentsaera ustez *garbiek*, berorien gibeletako bazterketa, esplotazioa eta taldekeriak ezkutatu. Pentsamendu nagusiak balio ezkorrak erantsi dizkio nazionalismoari, eta hori ezin astindurik dabil, batzuek XX. mendeko odolaren eta gorrotoaren usainari ez baitiote uko egin. Bigarrenik, herriaren kontzeptu ez organizista doitu beharko litzateke, askotan galgarriak izan diren dikotomietatik ihes eginez: partaide/ez partaide, lagun/etsai, guretar/kanpotar... Horrekin batera kreatibitatea, berrikuntza eta etorkizuna aldarrikatu beharko lirateke, kexu eta lantuen aurrean, zeren erresuminaz blaitutako pentsamenduari jarraituz gero, biktinek beste biktima anitz sortzeko joera garatzen baitute, kateari katenbegi berria erantsiz.¶

1. Ikus Arregi, X. (2006): *Herria, hiria, nazioa*, Iruñea, Pamiela.
2. Manuel Jiménez Redondok, Habermasen gazteleraizko itzultzaileak eta aitzinsolasgileak, zera gogoratzen du: «Liburu honetan jasotako entseguek lau motibo edo gairen inguruan dihardute, plano desberdinetan, erradio eta helmen arras desberdinetan kokatuak, eta Habermasek ikuspegi alemaniar batetik (eta hori alderdi askotan ez ezik autorearen lanen barnean ere bananduak) jorratzen dituenak; irakurleak ez luke ahaztu behar sekula azken hori, bere balizko haserreak zuzentzeko itua okertu nahi ez badu» (Jiménez Redondo, M.: «Introducción», in Habermas, J. (1989): *Identidades nacionales y postnacionales*, M. Jiménez Redondo itz., Madril, Tecnos: 9. orr.).
3. «Geuretzat, Errupublika Federaletako herritarrontzat, Konstituzioarekiko patriotismoak, besteak beste, zera esan nahi du, faxismoa iraunkorki garaitu izanaren, Zuzenbide-estatua ezarri izanaren eta berau kultura politiko, gutxi gorabehera, liberalean ainguratu izanaren harrotasuna» (*idem*: 115-116 orr.).
4. Kant, I. (2005): *Arrazoimen praktikoaren kritika*, Ibon Uribarri itz., Bilbo, Klasikoak: 121-122 orr.
5. «Xedeen ordenan gizakia berebaitango xede izatea (eta horrekin batera zerizan arrazoidun oro), hau da, inork ezin duela bitarteko soil gisa erabili (ezta Jainkoak ere)» (*idem*: 165. orr.).
6. Bobbio, N., Pontara, G. eta Veca, S. (1985): *Crisis de la democracia*, Jordi Marfá itz., Bartzelona, Ariel: 94. orr.
7. Mill, J. S. (1862): *Considerations on Representative Government*, New York, Harper & Brothers Publishers: 310. orr.
8. *Ibidem*.
9. Euskaldunak espresuki aipatzen ditu zirrikitu honetan: «Inork ezin suposat du ez dela onuragarriagoa britainiar batentzat edo nafar frantses batentzat maila altuko herri zibilizatu eta kultibatu bateko ideia eta sentimenduen emariaren barnean sartua izatea» (*idem*: 314. orr.).
10. Tamir, Y. (1993): *Liberal Nationalism*, Princeton, Princeton University Press: 6. orr.
11. Margalit, A. eta Raz, J. (1997): «Autodeterminación nacional», Jesús Casquete itz., *Inguruak* 19: 27. orr. Edo ikus Tamir, Y., *op. cit.*: 57-77 orr.
12. Ikus Kymlicka, W. (1996): «Derechos individuales y derechos de grupo en la democracia liberal», *Isegoría* 14: 5-36.
13. Lucas, H.-C. (1997): *Kant eta Hegel: gerra eta bakeaz gogoetak*, Ibon Uribarri itz., Donostia, Jakin: 58. orr.
14. Rawls, J. (1999): *The Law of Peoples with The Idea of Public Reason Revisited*, Cambridge, Harvard University Press: 24. orr.
15. Ikus *idem*: 65. orr.
16. Ikus Brock, G. eta Brighouse, H. (arg.) (2005): *The Political Philosophy of Cosmopolitanism*, Cambridge, Cambridge University Press.



ARTEA 93

Ez, ez eta ez

XABIER GANTZARAIN

TEKNOZIENTZIA 99

Zein da Innobasqueren etorkizuna?

Garoña

Bioerregaiak

Txerrien gripea

50. urteurrena

INAKI IRAZABALBEITIA

LITERATURA 105

Bigarren sexua

Emozioa eta arrazoa

Bat eta bat

UXUE ALBERDI

SOZIOLINGUISTIKA 110

Soziolinguistika eta diskurtsoaren analisia

Sindikatuaren diskurtsoaren analisia

Diskurtso analisia eta errepresentazioak

Errepresentazioak eta soziolinguistika

LIONEL JOLY

GLOKALIA 116

Txerrien bizimoduaz ikasi genuenean

Istripu birikoak

Des-hazkunde sostengarria

JOSU LARRINAGA

Ez, ez, eta ez

Ez naiz ni azkar horietakoa, txarra naiz ezer iragartzen, nik esaten badut urdin, egin trabesa gorriaren alde, ura joan eta gero presa egitea da nirea, baina behingoagatik, onartu beharra daukat hasieratik hartu niola usain txarra Rekalde Aretorearen inguruan gertatzen ari zenari.

Ez du horrek noski ene azkartasunaren alde ezer esaten. Ez. Horrek kiratsaren zenbaterainokoa ematen du aditzera, eta usaintzera.

Ez daukat nik ezer Bizkaiko Kultura Diputatuaren aurka, garbi gera bedi, baina alde ere ez, ez dit eman motibo handirik. Eta iragarpenak egiten zeharo aldrebasa izan arren, espero izatekoa zen Rekalde Aretoko zuzendariak bere karguan askorik ez irautea. Apirilaren erdialdera jakin genuen berria. Josune Ariztondok esan zuen galdu egin zuela Pilar Mur zuzendariarengan jarritako konfiantza, eta horregatik kendu zuela kargutik. Esan ez zuena zen, Pilar Mur andereak publikoki kritikatu zuela iazko Ertibil sarietan Josune Ariztondok obra bat zentsuratu izana.

Ez dakit akordatzen zareten. Khuruts Begoñak bideo bat aurkeztu zuen. Epaimahaiak erakusketarako hautatu zuen. Bideo hartan, diana bat agertzen zen. Dianaren barruan, ez dianaren erdi-erdian, Guardia Zibilaren patrol bat. Erakusketaren bezperan, Josune Ariztondok bideo hura kentzeko agindu zuen. Lehen ere hitz egin nuen kontu honi buruz, eta nahi duenak begira dezala hemerrotekan.

Ez zen kontu berria, baina bai larria, politikari batek bere sailarentzat lan egin zuten aditu guztien iritzia bazter utzi eta halako erabaki bat hartzea. Arte munduan zebilen jende askok oso gaizki hartu zuen erabakia; batik bat, eta ez da

harritzekoa, epaimahaian egon zirenek. Nabarmena izan zen esku sartzea. Antzematen zen kontua ez zela hala bukatuko, soka luzea ekarriko zuela.

Ez zen inor harritu beraz Josune Ariztondok Pilar Mur kargutik kendu zuenean. Ezagun da jaten ematen dizun eskuari kosk egitearen arriskuak zein diren.

Ez nuena espero Josune Ariztondoren azalpena izan zen: harritu egin zela Pilar Mur zuzendariak berak dimititu ez zuela ikusita. Berak alde egin behar zuela agintarien jokabidearekin gustura ez bazegoen. Eta galdera etorri zitzaidan, ez si eta ez no, txoro-txoro: zenbat politikaririk dimititu du Euskal Autonomia Erkidegoan azken 30 urteetan?

Ez nuen inon begiratu, eta ez dakit zenbat izango ziren, zenbat izan diren, eta nolakoa izan den proportzioa, baina oraintxe bertan ez zait bakar bat ere etortzen gogora. Baliteke noski den-denak egotea gustura egindako lanarekin, litekeena da. Litekeena da gustura egoteko moduko lana egin dutela sinestea ere, baliteke.

Ez liteke ordea ETAREN bortizkeria edozertarako erabili. Ez liteke obra bat zentsuratu ipurdi bistan geratu gabe.

Ez baita garbi jokutzen erabaki ororen arrazoitzea bortizkeria politikoaren kontrako jarduerari lotuta. Hasteko, gezurra delako. Eta gero, erraza delako. Errazegia. Eta arrisku-tsua oso. Putreak beti dabilta gure buruen gainean bueltaka.

Ez zuen aukera galdu *El Correo Españolek*, erraz jarri zieten eta, Rekalde Aretoari egurra emateko. Irakurtzekoak izan ziren apirilaren erdialde horretan, Pilar Mur kargutik kendu ostean, argitaratu zituzten albiste eta iritzi artikulua. Hauxe zen albiste baten izenburua: «El declive de la sala Rekalde». Enbor eroritik ezpala egiteko saioa zen, nabarmen, eta bertan Aretoaren kronologia bat ere bazekarren, mal-dan behera egindako ibilbidea azaldu nahian. Nik ezer gehitu gabe hona ekartzea izango da onena:

Rekalde Aretoaren garapena

1991: Bilbo erdian Rekalde Aretoa inauguratu zen. Javier Gonzalez Durana zen zuzendaria.

1991: Aretoan Chillidaren erakusketa bat jarri zuten. Hasierako urteetan, beste hainbat artista handiren lanak egon ziren ikusgai.

1995: Bigarren galeria bat ireki zen, arte esperimentalagoa erakusteko.

1997: Guggenheim inauguratu zen.

1997: Eusko Jaurlaritzak eten egiten du Aretoarekin zuen harremana eta Arte Eder Museoaren kudeaketa besteren esku uztearen aldeko agertzen da.

1998: Produkzio artistikora bideratutako Bilbao Arte zentroa inauguratu zen.

2001: Pilar Murrek hartu zuen Rekalde Aretoaren zuzendaritza.

2008: Diputazioak kendu egin zuen Guardia Zibila dieran jartzen zuen obra bat.

2009: Diputazioak bere kargutik kendu du Mur «konfiantza galera» medio.

Ez naiz itzultzailea, ez behintzat nahi bezain ona, eta saiatu naiz itzulpena ondo egiten, baina hala ere galdu egiten dira xehetasun batzuk, eta testua espainolez irakurtzea gomendatzen dizuet. Esate baterako, polita da «La Diputación *retira* una obra de la sala que coloca en una diana a la Guardia Civil». Etzana nirea da, noski. Amorrua ere bai. Esaerak bi aldaera ditu. Batak hala dio: Jainkoa xehetasunetan dago. Besteak: Deabrua xehetasunetan dago.

Ez da hori bakarrik, ordea. Hasierako urteetan artista *handien* erakusketak jarri zirela esaten bada, hurrengo urteetan artista kaxkarragoenak jarri zirela esaten da, ezta? Hori zen albiste osoaren tonua: bisitari kopuruak behera egin zuela, hiriarekin zeukan lotura galdu egin zuela, indarra galdu zuela Guggenheimen eta Arte Eder Museoaren ondoan, eta abar, eta abar. Kultura Diputatuak prentsaurrekoan esanda-koak jaso eta aretoaren endekatzea nabarmendu nahi zen. Baina zertarako?

Ez baita ezer kasualitatea, albistearen azken zatiak helburua garbi zekarren izenburuan: Izquierda radical. Barkatuko didazue azken zati hau ez badizuet itzultzen:

Los mismos medios denuncian que, a la hora de organizar exposiciones, la dirección de la sala se ha inclinado en los últi-

mos años hacia un sector más ligado al arte conceptual vasco y, sobre todo, «más próximo a sectores de la izquierda radical», hasta el punto de politizar el quehacer cultural de la sala.

Entre las fuentes consultadas por este diario, se repiten también las críticas hacia los «altos costes» económicos del recinto, que supone un gasto a las arcas forales cercano al millón de euros anual. No obstante, en los últimos años, la Diputación ha reducido la partida presupuestaria que le destina cada año.

Ez zen beraz artista *handien* erakusketarik ez zegoela, ez eta bisitari kopuruaren beherakada ere. Ez. Azkenean zer izango eta ezker erradikalak, hots, ezker abertzaleak, hots, ezker biolentoak, hots, ezker independentistak, hots, Deabruak berak hartua zuela Aretoa. Bertako eginbehar kulturala politizatzeraino. Harrapazak, Txiribiton! Eta gainera horretarako hainbeste diru eman izana. Ezin barkatuzko bekatua.

Ez da dirutza makala milioi bat euro, ez jauna. Kalkulua oker egin ez badut, Bizkaiko Diputazioak Urdaibaiko Guggenheim berriaren proiektua martxan jartzeko jarri dituen 100 milioien ehunetik bat.

Ez dira alderagarriak, badakit. Urdaibaiko Guggenheim berriaren proiektua askoz interesgarriagoa da. Oraindik ez baitakigu zer egin nahi duten. Museo bat egin nahi dutela Urdaibain. Zertarako? Ez dakigu. Horrela dena da askoz interesgarriagoa. Jose Luis Bilbaoren hitzetan, Urdaibain ikur bat jartzea da helburua, eraikin bat, eta gero erabaki zerekin bete, «ideiarik ez baitzaigu falta». Baina dabiltzala kontuz, hutsa eta bete eta halakoak aipatuta, baten batek segituan lotuko ditu euskal arte kontzeptualarekin, eta ondoren, ezker erradikalarekin.

Ez nadin ordea gaitik alden du. Kontu honetan guztian bada beste ezer baino gehiago kezkatzen nauen puntu bat. Zuzenean esan gabe ere, aditzera ematen dena beti da arte esperimentalarekiko beldurra, eta guztiok ulertzeko modukoa behar duen arte baten aldeko apustua dago atzean. Artearen kontrakoa, alegia. Bestela gutxi ez, eta estetikoki ere atzera-

koiak izateko grina hori da beldurrik handiena ematen didana. Artista *handien* diktadura. Izenena, alegia.

Ez da oraingo kontua, eta horixe da okerrena. Batzuentzat alferrik joan da XX. mendea. Hartu artista *handi* batzuk, nahastu ondo, esan Berasategiri luntxa prestatzeko, gonbidatu inguruetako politikari eta enpresariak, jarri azafata pinpirin batzuk, hegoamerikar bat edo beste ardoak zerbitzatzen oso irekiak eta aurrerakoiak garela pentsa dezaten (eta sinets dezagun), eta hara, hor daukazue erakusketa handi eder garrantzitsu arrakastatsu bat.

Ez gaitezen tronpa. Esperimentaziorako sortu eta mantendu dituzten eremuak ere, Arteleku bat, kasu, ez daude salbu. Emaitzak eskatuko zaizkie. Ekonomikoki neurtzeko moduko indizeak. Bisitari kopuruak.

Ez dakite beste bat dela artearen eta kulturaren *tempoa*. Ez dute ulertzen hemen ez dagoela emaitzarik. Hemen ez dagoela irabazirik, eta batez ere, hemen ez dagoela galerririk.

Ez dute ulertzen, ez dutelako nahi.

Ez dute ulertzen, hemen ez dagoelako kulturarako kulturarik.

Ez dute ulertzen, munduko beste leku askotan ere ez dutelako ulertzen, eta horixe delako aurrerabidearen eredia.

Ez dute ulertzen badagoela aurrekontuetan sartu ezin daitekeen zerbait.

Ez dute ulertzen liburu on batek edo bideo zirrargarri batek gutaz gehiago esan dezaketela, eta esaten dutela, mila albiste eta prentsaurrekok baino.

Ez dute ulertzen.

Ez dago benetako interesik, ez dago jakin-minik, ez dago ezer aldatzeko gogorik. Ez da ikusten artea gaurko gizartea ulertu eta eraldatzen hasteko baliagarri izan daitekeen eremu aske gisara. Gure Euskal Erdi honetan artearen esparruan irakurri ahal izan ditugun albisteei erreparatuta, dela Urdaibaiko Guggenheim berriarekin Jose Luis Bilbaok daukan seta, dela Iñaki Azkunak Bilboko Arte Eder Museoa

handitzea nahi duela, edo dela Josune Ariztondok Rekalde Aretoa bere nahien arabera moldatu nahi duela, kultur eredu bera da kolokan jarri behar dena, kultur politika osoa da aztertzekoa.

Ez ahal da beranduegi izango.¶

Zein da Innobasqueren etorkizuna?

Patxi Lopezek maiatzaren 5eko Eusko Legebiltzarraren osoko bilkuraren aurrean jaulki zuen diskurtsoa leitu nuen, Innobasque aipatu egin ez izana adierazgarria iruditu zitzaidan. Bidenabar, 30 orrialdeko diskurtsoan I+G+B alorrari dozena pare bat lerro baino ez esleitzea harrigarria begitandu zitzaidan. Gutxiegi nire aburuz.

Innobasqueren aipamenik ezak zer adierazi nahi du? Lopezek ez duela egokia edota garrantzitsua ikusten? Ala ez du deus adierazi nahi? PSEren hauteskunde-programan begiratuta, Innobasquerekiko jarrera epela ikusten da eta elkarte horren etorkizuna mugatzeko asmoa iradokitzen du. Hona zer dioen:

Reorientación de la actividad de Innobasque hacia una agencia de difusión y transferencia tecnológica, sensibilización y observatorio de la innovación y agencia de certificación de inversiones empresariales en I+D+I a efectos de acceder a incentivos fiscales.

Egia esatearren, asmoa nahasia da. Izan ere, teknologiaren zabalkunderako eta transferentziarako agentzia moduan definitzen du batetik. Bestetik, zertifikazio-agentzia. Bateragarriak al dira bi jardunak? Uler daiteke enpresa-ehunera iristea eta horren eta I+G agenteen arteko elkarlanaren foroa izan lezakeela helburu nagusitzat. Ikuspegi horretatik, zertifikazioaren jarduna ere eransteak logika bat izan lezake. Alabaina, zabalkunde horretan jardun teknologikoa gizarteratzea kanpoan gera daitekeela uler daiteke. Halaber, jardun zientifikoa, ikerketa zientifiko oinarrizkoa eta aplikatua, PSEk planteatzen duen Innobasqueren zereginetatik kanpo gera

daitekeela entendi daiteke. Innobasquek bere buruari jarri dizkion asmo eta helburuetatik urrun gelditzen da hori.

Egia esan, elkarte pribatua da Innobasque, nahiz eta orain arte izan dituen diru-iturri handienak publikoak izan diren. Gainera, aurreko Jaurlaritza eta Juan Joxe Ibarretxe bera, proiektuaren sustatzaileak eta berme-emaileak izan dira. Nolabait, aurreko Jaurlaritzaren proiektu propiotzat hartu du sozietateak Innobasque eta berak aldarrikatzen duen bigarren transformazioa.

Innobasqueren atzen zuzendaritza batzordearen bileran Pedro Luis Uriarte lehendakariak elkartearen eta asmoaren etorkizunaren kezka agertu zuen, baina erantsi zuen hauteskundeen ondoren Patxi Lopezekin eginiko bilera batean hark adierazi ziola Innobasque «proyecto de país» zela.

Itxaron beharko dugu Jaurlaritza berriaren asmoak zein diren ikusteko. Innobasquek izaera pribatua izanik bere bidea aukeratu eta egiteko manera izango luke, baina nekez erdietsiko lituzke bere helburuak erakunde publikoen oniritzia eta babes osoa izango ez balitu.

Garoña

Irakurleak lerro hauek irakurtzen dituenean, argituta egongo da, hain segur, zein izango den Garoñako zentral nuklearraren etorkizun hurbila. Ekainaren 5erako Espainiako Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak Nuclenorrek jarduera 10 urtez luzatzeko eginiko eskaeraz aldeko ala kontrako txostena egin beharko du. Gero Espainiako Gobernuak izango du erabakia hartzeko ardura, hots, ea zentralari lanean irauteko baimena luzatzen dion.

Itxura guztien arabera, beste hamar urtez funtzionamenduan aritzeko baimena lortuko du. Zentralaren itxiera aspalditik aldarrikatzen ari dira erakunde ekologistak eta gure gizartean errotutako eskakizuna da. Halaber, Eusko Legebiltzarra zein Arabako Batzar Nagusiek itxiera eskatu izan dute. Alabaina, estatuko lobby nuklearraren presioak, aldaketa kli-

matikoa eta CO₂ emisioak murriztea aitzakia, eta Madrilgo gobernuaren jarrera ilunak ez dute esperantzarako leihoa askorik zabaltzen. Sobra ere, PSOEk energia nuklearraren aldeko jarrerarik ez dauka, baina Garoñari buruz galdetu zaie-nean iritzi kontrajarriak azaleratu izan dira. Oraindik orain, leitu ditut Burgosko PSOEn idazkari nagusiaren adierazpenak non lotzen dituen orain zentralak ematen omen dituen 700 lanpostuak bermatzea eta zentralaren itxiera.

Energia nuklearraren egokitasunaren eztabaidatik harata-go, eta neronek argi daukat fisiozko energia nuklearra iraganeko energia-iturria dela eta aro hori behin betiko gainditu behar dugula, Garoñaren kasuan bertan usatutako teknologia zaharkituaren arriskua dago.

Zentrala 1966an hasi zen eraikitzen eta 1971n lotu zitzaion sare elektrikoari. Bere diseinua lehen belaunaldikoe-na da, hots, *Three Mile Island*eko istripua gertatu aurreko zentralen diseinua du. BRW-3 tipokoa da eta uranio aberas-tua baliatzen du beroa sortzeko (BWR ingelesezko *Boiling Water Reactor* esapidearen akronimoa da, hots, Ur Irakinez-ko Erreaktorea). Beroak ura irakinarazten du, lurrin bihurtuz eta horrek hiru turbina higiarazten ditu energia elektri-koa produzitzeko.

Edozein kasutan, Garoñako zentralaren teknologia zahar-kitua eta duen arazo eta matxura zerrenda luzea kontuan hartuta, axolagabekeria galanta izango litzateke zentralari lanean jarraitzeko baimena luzatzea. Istripu larriren bat gertatzeko aukerak emendatzen ari dira zentrala zahartu ahala. Espero dezagun horrelakorik ez jazotzea, besteak beste eus-kal herritarrok izango ginatekeelako larriki kaltetuak.

Bioerregaiak

Lehenago ere tratatu izan dut bioerregaien auzia orrialde hauetan. Oraindik orain *Science* aldizkarian publikatutako artikuluko batek are gehiago jarri du zalantzan artotik lortuta-ko bioetanolaren ingurugiro-ontasuna. Azterketa horren

arabera, artaleen karbohidratoetan gordetako energia baliatzeke aleak bioetanol bihurtzea ez litzateke modurik eraginkorrena. Izan ere, artoa hartzitzetik lortzen den etanolak ematen duen energia txikiagoa da artale horiek erre eta energia elektriko bihurtzea baino. Esan nahi baita, tona bat artalek sortutako bioetanola erreta auto batek distantzia laburrago korrituko luke, tona hori erre, energia elektriko bihurtu eta auto elektriko batek korrituko lukeena baino. Auto elektrikoak korrituko lukeen distantzia %81 luzeagoa izango litzateke.

Ez naiz ikerketa horren xehetasunetan murgilduko. Gogoetarako puntu bat ekarri nahi dut berriz hona, alegia, erregai fosilak ordezkatzeko prozesuan ez dagoela bidezidorririk edo teknologia miresgarririk, bioerregaiei buruz hori saldu nahi izaten badute ere. Irtenbidea, energia-aurrezteaz eta garraio-eredu jasangarri bat ezartzeaz landara, energia-iturrien dibertsifikazioan datza. Bestela dioenak matxuratutako moto zahar bat saldu nahi digu, teknologia berritzaileen zelofanean bilduta badakar ere.

Txerrien gripea

Txerrien gripea edo gripe berria hizpide eta ikara-eragile izan dugu atzen asteotan. Gauza asko entzun eta irakurri ditugu berari buruz. Iruditu izan zait lasto asko eta ale gutxi ibili dela zabaldu den informazioan.

Aipatu izan da Mexikoko La Gloria herriaren inguruan dauden txerri-etxalde industrialetan izan zezakeela jatorria. Egia esan, gripe berriaren lehen kasuan bertako bost urteko mutiko batengan detektatu zela. Era berean, birologoek frogatu dute gripe berria txerriekin lotutako gripe-andui zahar batzuen konbinazioa dela. La Gloriaren inguruan 1.000.000 txerri hazten dira etxalde industrialetan. Etxalde industrial horietan txerriak gune itxitan, bata bestearen ondoan haztea, eta sortzen diren simaur-kantitate handiak, baldintzak jartzen dituzte ezein gaixotasun barreiatzeko. Adibidez, an-

tibiotikoekiko erresistentzia duten *Staphylococcus aureus*en andui batzuk urde-etxaldeetatik barreiatu dira (estrafilokoek sortzen dituzten osasun-arazoen berri izateko ikus: http://es.wikipedia.org/wiki/Staphylococcus_aureus).

Dena dela, H1N1 anduia ez da La Gloriako txerri-etxalde-tako animaliangan topatu eta, gainera, umearengana nola pasa izan zitekeen ez dago argi.

Alta bada, birologoek argitu duten beste puntu bat izan da, gripe-andui horrek AEBetako txerri-etxalde batean izan zuela jatorri genetikoa 1990eko hamarkadan.

Birusa txerriengandik gizakiongana nola egin duen jauzi ez dago garbi eta, apika, ez du zerikusirik izango txerri-etxaldeekin, baina horrelako susmoek eraman beharko gintuzkete pentsatzera ea egun indarrean dagoen produkzio-eredu hori egokiena den giza osasuna babesteko ikuspegitik. Behi eroen edo dioxinaz kutsatutako hegaztien auziak ez ditugu urrun.

50. urteurrena

Joan den maiatzaren 7an 50 urte bete ziren C.P. Snow zientzialari eta literato ingelesak Cambrigdeko unibertsitateko Senate House delakoan «Bi kulturak» izeneko hitzaldi ospetsua diktatu zuela. Bi kulturak, jakina, kultura zientifikoa eta kultura literarioa edo humanistikoa dira. Bi kultura horien artean irekitzen ari zen lubakiaz kezka agertu zuen Snowk eta bere ikuspegia bota. Hitzaldiak soka luzea ekarri zuen. Aldekoak eta kontrakoak ugari agertu zitzaizkion. Eztabaidak oraindik badirau.

Orain bi urte Snowren lanaren euskarazko itzulpena publikatu nuenean hauxe nioen atarikoan:

Denborak eta distantziak eragin egin diote Snowren jatorrizko diskurtsoari —ondoren zientzia eta humanitateen arteko beste eztabaida batzuk ere egon dira—, jakina: ez da mende erdia alferrik pasa; zientziak eta teknologiak, azken honek bereziki, aldaketa sakonak ezagutu dituzte; sozietatea gerra

hotzaren paradigmatic besterik batera pasa da, nolabait fundamentalismo erlijioso kezkarrien berpizkundera iradokitzen duena eta XX. mendearen erdialdeko Ingalaterra eta Britainia Handia ez dira XXI. mendeko hastapeneko Euskal Herria. Halaber, gure herriak, antzikeria ere ez du zientziaren, teknologiaren eta ikerketaren ikuspegitik ordukoarekin —gogoan izan unibertitate publikorik ez genuela eta ikerketa gurean hutsaren hurrengoa zela. Alabaina, Snowk planteatzen duen kezka muina bizi-biziaz dago hots, bi kultura bitan apartatzea, gizartearen eta zientziaren artean lubakia sendotzea —humanitatearen eta zientziaren artean bere hitzetan—, sozietatea bi muturretan banatzearen arriskua, batetik kultura zientifiko-teknikoa oinarritzat jotzen dutenak eta bestetik, horri bizkarra ematen diotenak.

Irakurleari biziki gomendatzen diot *Bi kulturak* leitzea kultura zientifikoak gure sozietatean duen tokiaz kezkarik badu bederen. Liburua luzea ez da, hitzaldi baten testua denez, baina gogoetarako mami sakona du.¶

Bigarren sexua

Bai, Beauvoirrekin ari naiz azken aldian, amarena izandako liburu azpimarratua azpimarratzen. Eta ez da kasualitate hutsa, badira pare bat urte kontzientzia feminista azalaren azpian sartu zitzaiedala. Feminista, bai, kalanbrea ematen duen hitz zatar hori. Eta nekatua nago. Nekatua, normaltasunez mozorrotuta, beti Bestea izaten. Gizonezkoak baitira Bata eta gu baikara Bestea: gizonezkoen definizioaren barruan sartzen ez garen izaki arraro, enigmatiko, desberdin horiek. Gizona gizona baita, baina, zer da emakumea? Zer izango da, ba, emakumea? Gizonezkoa ez dena!

Zeinen erraz azaltzen diren gauza batzuk. Kontua da erantzun horrek ez duela balio buelta emanda: gizona ez da emakumea ez dena, gizona gizona da, ez du emakumearen definiziorik behar bere burua definitzeko. Eta halaxe sortu dira emakumezkoen futbola, emakumezkoen arrauna eta emakumezkoen literatura. Beste futbolariak, Beste arraunlariak eta Beste idazleak. *Beste*-rekin, beti: futbolariak, arraunlariak eta idazleak esanez gero argi baitago zer ulertzen den. Gizonezkoen futbola, gizonezkoen arrauna eta gizonezkoen literatura esatea erredundantea litzateke, eta errepikapenak nekatu egiten omen du.

Ba, ni ere nekatzen nau.

Javier Rojok *El Correo*-n Katixa Agirrereren *Habitat* liburuari egindako kritika irakurtzen hasi eta aho zabalik gelditu naiz.

Azken urte hauetan euskal literaturan fenomeno ikusgarri bat gertatu da: 1980. urte inguruan jaiotako emakume idazleen talde inportante bat lanbide honetara hurbildu da, antzeko estetika-planteamendu eta kezkek dituztelarik. Eta esan behar da, aurtun gertatzen ari dena ikusita, euskal lite-

raturan talde hau hartzen ari den garrantzia azpimarratu baino ez dela egin. Beste gauza bat izango da baloratzea talde horren barruan sartu daitezkeen idazleen liburuek duten kalitatea beraien presentzia bezain handia den. Alde horretatik begiratuta, zentzuzkoena dirudi denetarik dagoela esateak. Katixa Agirre horrelako talde baten barruan ikusten dut: kazetaria eta gidoilaria, emakumea, 1981ekoa. Belaunaldien kontuan sinistuko banu, belaunaldi horren partaidea dela esango nuke [...]

«Azken urte hauetan euskal literaturan fenomeno ikusgarri bat gertatu da». Arreta piztu dit. Zein ote da fenomeno ikusgarria? Ikusgarria adjektibo horrekin zer esan nahi du? Irakurgarria baino ikusgarriagoa dela, akaso, fenomeno hori?

«1980. urte inguruan jaiotako emakume idazleen talde inportante bat lanbide honetara hurbildu da». Errepasoa egin eta izen hauek atera zaizkit: Irati Elorrieta, Garazi Goia, Irati Jimenez, Katixa Agirre, Eider Rodriguez, Uxue Apaolaza, Uxue Alberdi... Emakume idazleak gara, Beste idazleak. Marka ahaztu gabe. Talde bat gara, eta hemen dator galdera: zerk bihurtzen gaitu talde? Emakume izateak? Idazle izateak? Ala emakume izanda lanbide horretara «hurbildu» nahi izateak? Eta talde *inportantea* omen gara. Inportantea kopuruz? Kalitatez? Eraginez? Arriskuz?

«Antzeko estetika-planteamendu eta kezka dituztelarik». Hara!! Taldea, gainera, homogeneous omen, estetika-planteamendu-kezka aldetik. Elkarrengandik bereizteko nortasun eta inteligentzia urriegikoak Beste idazle hauek. *Burbuilak, Bi hitz, Nora ez dakizun hori, Habitat, Haragia, Umeek gezurra esaten dutenetik, Aulki jokoa*. Horiek dira, hurrenez hurren, «emakume idazle» otxenteroen obrak. Ariketa polita izan liteke zazpi ezberdintasunak topatzera jolastea.

«Eta esan behar da, aurten gertatzen ari dena ikusita, euskal literaturan talde hau hartzen ari den garrantzia azpimarratu baino ez dela egin». Garrantzia, berriro. Zeri dagokio garrantzi hori? Liburu kopuruari? Egunkarietan betetzen dugun orri kopuruari? Gure lanen eraginari? Kritikari? Gure hitzaren pisuari?

«Beste gauza bat izango da baloratzea talde horren barruan sartu daitezkeen idazleen liburuek duten kalitatea beraien presentzia bezain handia den». Banengoen, ba, ni. Baina, nork sartu eta ateratzen ditu idazleak «talde» horren barruan? Inork galdetu al digu talde horretako partaide izan nahi dugun? Inork galdetu digu egotekotan talde horren barruan bakarrik egon nahi ote dugun? Inork pentsatu du emakume eta gazte izateaz gain beste mila adjektibo izan ditzakegula gure izenetik zintzilik? Zilegi da horrelako taldeak sortu eta parametro horietan egitea literatura konparatua? Presentzia hori nork bilatzen du? Talde horretan sartzen gaituzten idazleok ala talde horretan egon gaitezen interesatzen zaienek? Argi baitago ezin dela aldi berean egon taldean eta taldetik kanpo. Bestea garen bitartean ez gara sekula Bata izango.

«Alde horretatik begiratuta, zentzuzkoena dirudi denetarik dagoela esateak». Beltzen eta etorkinen artean bezala, denetarik dago, beltz onak, beltz ez hain onak, etorkin inteligenteak, etorkin ergelak... Baina ez dira, besterik gabe onak: beltz onak dira, eta etorkin onak. Beltz izateko, onak. Etorkin izateko, onak. Eta gaiztoak eta ergelak badira... beltzak eta, gainera, ergelak! Gipuzkoako txapelketan gizon batek ere hala esan zidan: «Alberdi! Zorionak, e? Saio boro-bila in dezu. Emakume mailan, ojo, e?! Ta gizonezko batzuk ere atzetik!!!». Eta ni bertsotan emakume-maila eta gizonezko-maila bereizten zirela enteratu gabe. Baina eskertzen diot begiak ireki izana: literaturan ere, sentitzen dut, neskak, baina emakume-mailan hartzen dugu guk parte, inoiz bestelako ameskeriekin jolastu izan badugu ere.

«Katixa Agirre horrelako talde baten barruan ikusten dut» (taldetik kanpo ikusi ezin duenak, barruan ikusi behar, jakina): «kazetaria» (Pako Aristi bezala? Hasier Etxeberria bezala? Irati Jimenez bezala? Urtzi Urrutikoetxea bezala?) «eta gidoilaria» (Andu Lertxundi bezala? Unai Iturriaga bezala? Jasone Osoro bezala?), «emakumea, 1981eko» (Xabi Borda bezala?, Iñaki Gurrutxaga bezala? Edo Uxue Apaolaza beza-

la?). «Belaunaldien kontuan sinistuko banu, belaunaldi horren partaidea dela esango nuke».

Eta hitz egingo dute «emakumeen arazoaz» eta esango digute erantzun desproporzionatuak ematen ditugula, eta histerikoak garela eta artikulu hau ere beste zaputzaldi bat baino ez dela, zapuztu egiten garela, eta jendeak, zapuzten denean, ez duela ondo arrazoitzen.

Emozioa eta arrazoaia

Hori baita bestea. Gizonezkoak arrazoiarekin eta emakumezkoak emozioarekin lotu behar itsua. Eta arrazoiak esan nahi du zientzia, inteligentzia, doitasuna, seriotasuna, logika, zorrotasuna, hotza, kanpokoak, garrantzitsua... unibertsa. Eta emozioak... pasioa, zehaztugabetasuna, magia, intimoa, gozotasuna, barrukoa, xehetasuna, txikia, anekdota... emakumeen kontua. Zenbat aldiz ez ote dugun entzun *hau literatura arina da!* mespretxuz esaten. Arina, pisu eta garrantzi gutxikoa, transzendentziarik gabea, jolasa.

Arinaren etiketa hori goian azaldutakoaren arabera jarri ohi da askotan. Literaturak, arina izango ez bada, mundua aldatzeko xedea izan behar du ia: iritziak emanez, teoriak plazaratuz, ideologiak deseraikiz, kritika zorrotzak eginez, gauza inportantei buruz (gerrez, konfliktoez, arazo sozialez, politikaz, ekonomiaz, armez) jardunez. Baina emozioen logika ulertzea bideraturiko literatura ez da kontuan hartzen, edo etiketa bat jartzen zaio aurretik, «arina», esanez bezala etxeoandreek ulertzeko modukoa dela; etxeoandreak ere, denak eta salbuespenik gabe, talde bakarrean sartuz. 1980. urtearen inguruan jaiotako emakume, idazle estetika-molde eta kezka antzekodunak bezala.

Aritz Gorrotxategiri irakurri nion egunkarian *Axola ez duenean* nobela berriari buruz, protagonista nagusia emakumea izatea erabaki zuela senarra galtzean ia heldulekurik gabe geldituko zen pertsonaia sentibera behar zuelako, momentu hauskorra bakarrik bizitzen ari dena. Horregatik sor-

tu zuen Irene pertsonaia. Emaztea galtzean ia heldulekurik gabe geldituko den pertsonaia sentibera sortzea, momentu hauskorra bakarrik bizitzen ari den gizonezkoa imajinatzea kosta egiten zaigu, itxuraz. Nobela horretan bertan gizonezko protagonistek dituzten krisiak bestelakoak dira: Claudio liburuzaina negozioak porrot egingo dion beldur da eta literatur sistemari buruzko kritika zorrotza egiten du; Bruno idazleak ez daki idazten jarraitu ala ez, zeresana amaitu zaiola sentitzen baitu eta, haren hitzetan, «esateko ezer eduki ezean hobe da isildu». Eta Claudiok eta Brunok filosofiaz eta literaturaz eztabaidatzen dute Irenek, bere tristuratik irten nahian, alargun talde batean izena eman eta *Ana Karenina* irakurtzen duen bitartean.

Adibide bat baino ez da hau, irakurri dudan azken liburu-koa. Baina akidurara arte errepikatzen den kontua da. Nik argi daukat emozioen logika ulertzea arrazoiarena ulertzea bezain garrantzitsua dela, eta zailagoa ere bai. Eta denok daukagu pentsatzeko eta sentitzeko gaitasuna, pentsamendua eta emozioak kudeatzeko gaitasuna. Baina sexu Batak Bestea zapaltzen duen bitartean arrazoiak emozioa zapalduko du, hotzak beroa, unibertsalak intimoa... eta emakume idazleok ez gara sekula idazle izango, lehenengo emakume izan beharko baitugu.

Bat eta bat

Gomendatu nahi nituzkeen bi liburu hauek ere tiradera ezberdinetan sartuko lituzkete, seguru. Bereizi egingo lituzkete bata historikoa eta bestea erromantikoa esanez, bata zikina eta bestea gozoa esanez, bata maskulinoa eta bestea femeninoa esanez... Ba, ez. Elkartzeko aski errazak baitira. Bi eleberri zoragarri: Irati Jimenezen *Nora ez dakizun hori* eta Mikel Peruarenaren *Ez obeditu inori*.

Beauvoirrekin jarraituko dut...¶



Soziolinguistika eta diskurtsoaren analisia

Soziolinguistikaren ikerketa esparrua zabala da, behar bada jatorriz zientzia alor anitzekin lotuta dagoelako: soziologia, hizkuntzalaritza, psikologia, antropologia, historia... Edo behar bada hizkuntzaren bizitasuna erabilerari lotuta dagoelako eta erabilera bera beti testuinguru batean kokatzen delako, «sozio», gizartekoa den testuinguru batean. Muturrera eramanda «sozio» ez den hizkuntzalaritzarik ezin dela izan proposatu zuen Calvetek. Euskararen esparruan hizkuntzaren plangintzarekin lotzen da soziolinguistikaren ikerketa arloa. Hemen gutxitan aipatzen den soziolinguistikaren arlo bat aztertuko dugu: diskurtso soziopolitikoaren analisi lexikometrikarena.

Soziolinguistikaren autore guztiek ez dute analisi lexikometrikoa soziolinguistikaren esparruen artean sartzen, izan ere autore gehienek soziolinguistikaren azpi-arlo batekin lotura handiagoa izaten dute —soziologia (Fishman), antropologia (Gumperz, Hymes), psikologia...— eta ez dira beste azpi alorretan sartzen. Baina gaur egungo testuinguru sozioekonomikoa oso egokia da azpi-arlo honi heltzeko.

Krisia behera eta krisia gora, azken 8-10 hilabeteotan etengabe entzun ditugu diskurtso batzuk motibo horren inguruan, eta interesgarria litzateke diskurtso horien atzean errepikatzen diren leitmotivak eta egestura diskurtsiboak zein diren zehaztea. Batzuen ustez, leitmotiv horiek dira hitzen atzean dagoen musika txikia eta errepikakorra, buruan konturatu gabe sartzen dena eta gure kosmobisioa egituratzen dutena. Analisi lexikoaren ikerketa esparruak maila soziopolitikoan egestura diskurtsibo horiek aztertzea du helburu. Ongi legoke artikulua honetan 2008an hasitako kri-

siaren inguruan hedatu diren diskurtsoak aztertzea, baina ez da idazki honen helburua, mota horretako analisi bat egi-teak doktore tesia eskatuko bailuke. Hemen, besterik gabe, arloaren aurkezpena egingo dugu, eta zein emankorra izan daitekeen aurkezten saiatuko gara.

Diskurtsoaren analisiak bere testuinguruan hizkuntza erabilari lotuta dauden aldagaiak zerrendatzea dakar. Saussurek kanpoko aldagaiak deituko zituenak (*variables externes*). Adibidez: zeinek hitz egiten du? Zeini? Nondik? Noiz? Zergatik? Zein helbururekin? Zein baldintzatan? Etab. Hizkuntzaren kudeaketaren (*management*) alorrean oso kontuan hartzen dira baldintza horiek. Analisi lexikometrikoan eta diskurtso analisisian ere funtsezkoa da galdera horiei erantzutea analisiaren testuingurua egoki finkatzeko eta ikerketatik sortzen diren datuak ondo interpretatzeko.

Hiru ikerketa mota nagusi aurkitzen dira maila soziopolitikoko analisi lexikometrikoan. Lehenengoan ahozko grabaketa batzuek osatzen dute analizatzen den corpusa. Bigarrena gizarte etimologia da: hitz baten historia egiten da kasu honetan, hitza bere testuinguruan kokatzen da eta bere esanahiaren eta erabileraren historia egiten da. Kasu honetan corpusaren hedadura ez da exhaustiboa. Hirugarren ikerketa mota corpus mugatu baten analisi exhaustiboa da.

Hemen ez gara tekniken xehetasunak aurkezten hasiko, horretarako bibliografia espezializatura jotzea besterik ez du irakurleak. Adibide esanguratsu bat besterik ez dugu aurkeztuko hemen.

Sindikatuaren diskurtsoaren analisisa

Frantziako Saint-Cloudeko ikerketa laborategian hiztegi sindikalaren analisi sistematikoa egiten dute 1971tik (Maurice Tournier, «Les discours sociopolitiques», in Henri Boyer, 1996, *Sociolinguistique: territoire et objets*, Delachaux et Niestlé). Bistan da analisi lexikometrikoaren hirugarren arlo nagusian kokatzen garela. Kasu honetan laborategiko

ikertzaileek Frantziako lau sindikatu nagusien erresoluzioak jaso dituzte eta analizatu dituzte sistematikoki. Lau sindikatu horiek FO, CGT, CFDT eta CFTC dira.

Batzarretako diskurtsoaren analisi lexikalak argi ezberdintzen ditu lau sindikatuak. CFTC eta FOren kasuan erabiltzen den hiztegia hiztegi instituzionala da gehienbat (formazioa, gizartea, enplegua, kongresua, CFTC, Estatua, segurtasuna...). CGT-CFDTen kasuan, aldiz, oso ezberdina da erabiltzen den hiztegia, askoz dinamikoagoa: langileak, CGT, behar dute, ekintza, garatu, Herria, bitartekoak, bizitza...

Baina sindikatuen arteko ezberdintasunak jaso ez ezik, urteen artean ezberdintasunak jasotzen dira eta bilakaera batzuk aurkitzen dira; horrela ikusten da kasu batzuetan historiaren garaiaren arabera, egoera ekonomikoaren arabera, sindikatuen diskurtsoa aldatuz eta moldatuz doala.

Hiztegi orokorra aztertu ez ezik, mota honetako azterketetan eremu semantikoaren bilakaera ere analiza daiteke. Adibide berdinarekin jarraitzeko, «borroka» hitzaren eremu lexikoaren bilakaera aztertu dute ikertzaileek. Horrela ikusten da urteak pasatu ahala sindikatu batzuen kasuan eremu lexiko hori asko urritzen dela, eta beste batzuen kasuan aldiz gero eta gehiago aurkitzen dela. Gainera, ikusten da «borroka» hitzari hasiera batean ematen zaizkion konnotazioak baikorrak direla, eta 80ko hamarkadatik aurrera batzuetan konnotazio ezkorrek ere izan ahal dituela.

CGT eta CFDTen kasuan, 1982tik aurrera, alegia, ezkerreko Mitterrandekin boterera heltzen den momentutik aurrera, ikusten da konfrontazio diskurtso batek, gizarte-klaseen arteko borroka azpimarratzen duena, lekua uzten diola diskurtso erreformista bati, berari lotuta dagoen eremu lexikoarekin.

Bistan da analisi lexikometrikoaren emaitzak oso emanakorrak izan daitezkeela soziolinguistikaren esparruan. Gizartearen hizkuntza erabilerak eta mentalitateak ulertzeko funtsezkoa baita.

Diskurtso analisia eta errepresentazioak

Ikuspuntu sozioekonomiko batetik, oso interesgarria izan daiteke ere Serge Halimi-ren artikulua pare bat irakurtzea: «Lancinante petite musique des chroniques économiques» (www.acrimed.org/article1290.html). Kasu honetan Serge Halimik 100 kronika ekonomikoren diskurtsoa aztertu du metodologia kualitatibo bat erabiliz. Artikuluak irakurrita ikusten da soziolinguistika baino kritika politiko-ekonomikoa egiten duela autoreak, maila zientifikoak eskatzen duen sistematikotasuna alde batera utzita. Dena den, kasu honetan ere diskurtsoaren analisisan mugitzen da autorea, eta interesgarria da ikustea zein eraginkorra eta baliagarria izan daitekeen soziolinguistika gizartea hobeto ulertzeko eta gizarte zientzien alorrerako.

Euskararen eta Euskal Herriaren kasuan, adibidez, mota honetako ikerketa anitz egin daiteke, euskarazko diskurtso soziopolitikoak aztertuz adibidez, edo besterik gabe euskararen presentziaren maiztasuna aztertuz eta bere garai historikoan kokatuz. Alegia, oso interesgarria izan daiteke lotzea euskararen presentziaren bilakaera bere garai historikoan. Nazionalismoaren eragina aztertzea, adibidez, oso interesgarria da; eta eremua oso zabala da, horrela hizkuntzaren lexikoan nazionalismoak zein eragin izan duen aztertzea oso interesgarria izan daiteke.

Eman ditugun bi adibideen artean lotura argi bat dago, biak «up-down» diskurtsoak dira: aginte esparru batetik abiatzen dira eta gizartean zabaltzen dira. Lehenengo kasuan, sindikatuen agintaren esparrutik, eta bigarrena aginte esparrutik hedabideen bitartez. Hedabideen kasuan helburua oso argia da, mezu bat hedatzen dute neutraltasun kutsu bat emanez mezu horri, mezuaren eragina indartuz; horretarako hainbat kasutan «informazioa» deitzen zaio mezu horri. Telebistetako famatuek, kronika arrosa egiten dutenean, beren buruari kazetari profesionala izatea onartzen diote; lehen aipatutako mezu ekonomiko horiek maila

bereko profesionaltasunarekin eta neutraltasunarekin idazten dira.

Jakina denez, «bottom-up» eragina ere existitzen da eta ez da mesprezatu behar, bere eragina handia baita. Alegia, behetik gorako eragina existitzen da ere.

Hedabideek zabaltzen dituzten *informazio* horiek, beraz, entzuten dira, eta, errepikapenari eta erabiltzen dituzten estrategia diskurtsibo komunikatiboei esker, gure kosmosa moldatzen dute, gure errepresentazioetan eragina dute. Eta errepresentazioak, irudikapenak aztertzea ere bada soziolinguistikaren beste ikerketa alor bat. Soziolinguistikaren esparruan ez dira mota guztietako errepresentazioak aztertzen, hizkuntzei buruzko irudikapenak aztertzen dira bereziki; baina deskribapen hutsean geratu nahi ez badugu funtsezkoa da errepresentazioen funtzionamendua ezagutzea.

Errepresentazioak eta soziolinguistika

Labov, bere bariasionismoarekin, lehenengoetarikoa izan da hizkuntzaren irudikapenak aztertzen. New Yorken egindako ikerketa famatuan frogatzen du /r/ ahoskatzea prestigioduna dela, eta horregatik hiztunaren gizarte-maila eta nahiaren arabera ahoskatzen dela. Kasu honetan, /r/ ahoskatzea ez da prestigioduna berez, egitura prestigioduna baizik, barneratutako gizarte arauengatik eta askotan inkontzientek diren jarrera eta errepresentazioengatik prestigioduna.

Jarrerak aztertzeke, Labovek esaldi batzuk entzunarazi zizkien inkestatuei. Esaldi batzuetan hizlariak /r/ ahoskatzen zuen eta beste batzuetan aldiz ez zuen ahoskatzen. Kasu guztietan hizlari berak esaten zituen bi esaldiak, beraz aldatzen zen gauza bakarra /r/ ahoskatzea ala ez zen. Ondoren, inkestatuek entzundako hizlariak eskala batean sailkatu behar zituzten, gaitasun profesional eta gizarte prestigioaren arabera. Inkestatu guztiek /r/ ahoskatzen zuen hizlaria gorago kokatzen zuten eskala horretan; beraz, egitura hori prestigioduna zen: nahiz eta gehienek forma hori ez erabili

eguneroko bizitzan, egokiago iruditzen zitzairen eta gizarte estatus altu baten irudia zen haientzat.

Gizarte arauak hizkuntzaren inguruan zeinek finkatzen dituen zehaztea ez da erraza, eta une historikoaren arabera aldakorra da. Gizarteak berak finkatzen ditu alde batetik, baina eragin handia dute erlijioak, politikak, pertsona prestigiodunek izaten dituzten praktikek, hedabideek zabaltzen dituzten mezuek...

Gainera, arau orokorrak azpiarau batzuekin lehian sartzen dira eta, horregatik, hiztun askok prestigiozko egituratzat jotzen duena ez du erabiltzen. Taldeen eta giza sareen azterketak arau ezberdin horien arteko lehia agerian uzten du. Eskala sozialaren beheko partean direnek, nahiz eta arau menderatzailea ezagutu, onartu eta barneratu, ez dute zertan partekatu behar ezta ere berari lotuta dauden gizarte barioak onartu behar. Bourdieuk esaten duen bezala, hemen ezkutatutako gizarte bortizkerian sartzen gara; arau menderatzailea ez da partekatua, inposatua baizik, biolentzia simbolikoaren bitartez. Gizarte taldeen arteko harremanak ez dira baketsuak, baizik eta boteretsuen eta ahulen arteko etengabeko lehia da, autore horren ikuspuntutik.

Labovek, 1965 eta 1967 urteen artean, ghetto azpi arauak aztertu zituen. Bere ikerketan, azpi arauak gazteen identitatearen ikurrak zirela argi geratzen zen. Ghetto talde bakoitzak bere lengoia propioa zeukan, bere identitatea azaltzen zuena, talde baten edo beste baten kidea izateko seinalea zena.

Bistan da, beraz, soziolinguistikaren alorra zabala dela: hizkuntzaren kudeaketa, plangintzatik hasi eta diskurtsoaren analisi lexikometrikoraino, hizkuntza irudikapenen azterketatik pasatuz. Hemen zabaltasun horren isla saiatu gara jasotzen, eta alor ez hain ezagunak aurkezten.¶

Txerrien bizimoduaz ikasi genuenean

Urdeak nola bizi diren oso argi geneukala uste genuen: etxaldeko topikoak, egun osoa etzanda, lo, noizean behin txerri-jana eta San Martin aldera... ai ene! Bizi samur baten akabera; guretzako txarriboda, ia errituala, folklore kosmikoa eta jaki ugari, askotarikoa eta dena goxo-goxo. Badakizue, txerriarengandik dena gustatzen zaigu, ibilera eta guzti.

Gripeak harrapatu gintuen, bete-betea. Arriskuaren gizarte globalizatuan jadanik ez gaitu ezerk harritzen, baina halako sustoak! Azkeneko urteotan gripearekin mafrundi handiak eta kezka sobera. Hegaztiekin izan zen beldurra duela urte batzuk; orain, berriz, txerriekin. Errealitatean gure garapen eta elikagaigintza ereduak datza arriskua, hemen praktikatzen duguna eta mundutik zehar zabaltzen duguna, edo, behintzat, ahalbidetzen duguna.

Gripeak, neguarekin batera urtero pairatu ohi dugun gaitasun normalean arin horrek, erpin asko dauka. Beti hiltzen du jende asko —zaharrak, umeak, ahul daudenak—, orduan heriotzetan faktore sekundariotzat hartzen da kasu askotan; baina batzuetan etengabe ezagutzen diren birusaren mutazio berri batzuek oso era bortitz eta krudelean hiltzen dituzte jende saldoak: ez marrantarik eta mukirik, ez, odol okadak, sukar gaiztoak eta, azkenean, itotze geldo bezain geldiezina. Halako heriotzak pairatzen hasi ziren Asiako hego-ekialdean 2003ko udazkenean, eta horrela zabaldu zen mundura Hegaztien Gripe berriaren albiste kezkarria. Orduan jadanik Osasunerako Mundu Erakundearen forotan hasi ziren abisatzen: izurritea pandemia bilakatuz gero, hurrengo urteotan ehun milioi pertsona hil zitekeen munduan zehar, gripe berri horrek eraginda.

OMEko epidemiologoen urtero segitzen dute gripe berrien arrastoa paraje horietan; han hegazti errari askoren pausalekuak daude, laku eta padura asko dago horretarako apropos, eta, bestalde, tradizio handia dago ere etxeetan hegaztiak hazteko, beste abere batzuekin, tartean txerriak, jendearekin oso hurbil eta nahasita bizi dira. Anabasa horretan gripearen birusaren mutazio berri asko sortzen dira eta espezieen arteko mugak pasatzeko erraztasunak, aipatutakoak, daude. Birusaren etengabeko birkonbinazioetan bi ezaugarri —elkarraren artean diferente eboluzionatu dezaketenak— daude, garrantzi handikoak: hilkortasuna, gripe normal arina edota oso gaiztoa izatea, eta kutsatzeko ahalmena, horren barruan espezieen arteko mugak saltatzeko ahalmena kontu larria delarik. Kasu horretan birus oso hilgarriak agertu ziren baina euren hedatzea kontrolatzea lortu zen, milioika abere akabatuz; eta, halarik ere, pertsonen arteko kutsatze urriek heriotzak sortarazi zituzten munduko leku askotan. Pasa den mendeko 30eko hamarkadan zabalduko «gripe espainolaren» —oso kutsakorra, batez ere Lehen Mundu Gerrako trintxeretan, eta oso hilgarria— mamua astindu zen, eta hilabeteak igarotzean arrisku horretaz ahaztu ginen.

Orduan analisi argitsuena Hiri-Ikerketatik etorri zen, kontu hura hainbeste segitzen dugun askoren harridurarako: Mike Davis urbanista iparramerikarrak —Los Angeles hiriko «geroaren arkeologia» eginez munduko hirien eboluzioa aurreikusten nabarmendua— eman zuen abisu gorri eta osoena, premia handiz argitaratu zuen *The Monster at our door. The global threat of Avian Flu* liburu ezinbestekoan. Bere ustez, genetika eta epidemiologia kontuak garrantzitsuak izanik, arazoaren tamaina hartzeko beste faktore batzuei so egin behar zaie: azken urteotan izurritea agertutako leku batzuetan —bereziki Txinako Perletako Ibaiaren deltan, non gobernuak eskualde ekonomiko berezia ezarri zuen, hau da, kapitalismoaren arauen menpe industrializatze azkarreko eskualdea izendatu zuen— hegaztien etxalde industrial asko zeuden (oilategi baino, *oilo-olak* deitu beharko ge-

nituzke milioika hegazti daukaten haztegi erraldoiak); aldi berean, industria horietan lan egiteko populazio mugimendu handiak izan dira eta jendea metatuta bizi da periferia guztietan ugaltzen ari diren «miseria-auzoetan»; bertan, gainera, kultura tradizionalagatik, kontaktu asko dago etxeko hegaztiekin, errariak ere nonahi... Baldintza guztiak ematen ziren birus berriak agertzeko eta oso azkar zabaldu ahal izateko. Mundu globalizatuaren mugikortasun baldintzek, gu ere hegazti (ortopediko edo *cyborg*) errariak bilakatu gaituztenek, falta zen detailetzera eragin zuten: hegaztiek birus berriak oso tarte laburrean hedatzen dituzte munduan zehar; hor daude turistak eta baita ekonomikoki oso dinamikoak diren eskualdeak bisitatzera, esploratzera eta kudeatzera doazen negozio-gizonak (eta zenbait andre) ere. Galdetu zenbat debagoiendar daukagun handik...

Istripu birikoak

OMEko zientzialariek Asiako hego-ekialdean kontrol zorrotzak mantentzen segitu zuten, baina munstroa beste ate joka zegoen. Davisek salaturiko baldintza sozialak beste leku askotan, beste dinamismo handiko eskualde ekonomiko berezietan ematen dira. Mendearekin batera AEB eta Mexikoko gobernuek Ameriketako Merkataritza Askearen Akordioa (ALCA sigla gaztelaniadunetan ezagunagoa, agian) sinatu zuten eta horrela AEBetako kapitalek sekulako erraztasunak topatu zituzten euren hegoaldeko merkaturuan inbertitzeko. Ez ziren asko mugitu, *maquila belt* izenekoa sortu zuten AEB eta Mexikoko mugako linean, milaka kilometrotan zehar. *Maquila* kontratazio mota bat da, zeinaren arabera produktu bat merkaturatu nahi duen enpresa batek, handia eta multinazionala, normalean, produktu hori beste enpresa bati, txikia eta lokala, erosten baitio. Hori bai, nola ekoiztu, ze prezioetan eta zein baldintzatan, guztia handiak zehazten du; txikiaren kontura arriskuak eta langileen kontratazioak eta lan-baldintzak.

Maquilaren etekinak AEBetan kobratzen dira, edo paradisu fiskalen batean; *maquilkadak*, ordea, Rio Granderen hegoaldean. Miseria-auzoak nonahi, lan-baldintza eskasak, pobrezia... Eta txerri-haztegi asko, horiek ere milaka urderekin, pilatuta, lokatzetan blai eta txarto elikatuta, interesgarrinen diren zatiak handi egin daitezzen, beste guztia ea berez desagertzen den. Oiloek zein txerriek bizimodu latz eta osasun aldetik zeharo gaiztoa soporta dezaten, janarekin batera antibiotikoak ematen zaizkie, hiltegiara zutunik heltzeko. Horrela birusen birkonbinazio gehiago, berriago eta botikekiko indartsuago agertzen badira... *istripuak* dira, mundu osoan zehar ziztu bizian zabaltzen direnean.

Arrisku globalaren gizarte globalean bizi gara, oso ezaguna da Ulrich Beck soziologo alemanaren tesia, guk fabrikaturiko ziurtasun ezean bizi gara, gure aurreko belaunaldiak naturaren beldur bizi ziren, baina guk pairatzen ditugun arriskuak guk sorturikoak dira. Pauso bat harago doa Paul Virilio filosofo frantsesa: abiaduraren gizarte honetan denborarik ez daukagu mehatxatzen gaituzten arriskuak aurreikusteko, *istripuaren* menpe gaude eta *istripu globalak* gertatzen direnean erabat kontrolaezinak diren zurrunbiloetan murgiltzen gara; izan daitezke *istripu* birikoak edota finantzen arloan edota....

Kuriosoa da, dena dela, halako *istripuak* elikaduraren arloan etengabe gertatzea. Elikagai nahikorik lortzea, hori izan da historian zehar gizateriaren erronka nagusia. Agian askotan egon gara pilota-joko horretan txapan jotzen, baina Iraultza Berdetik aurrera (horrela deitu izan zitzaion elikagaigintzaren industrializazioari, merkadoteknian aitzindariak) bola etengabe frontoiaren atzealdeko sasitzara botatzen ari gara: Raj Patel ikerlariak azpimarratu bezala, gaur egun planetan 800 milioi pertsonak gosea pairatzen du, baina mila milioi pertsona gainelikatuta dago eta osasun arazoak dituzte horregatik. Abeltzaintza intentsiboaren industriak, gainera, oso erantzukizun handiak ditu euri azidoa eta berotze globalaren arazoetan eta osasun-alarmak sortarazten ditu, oraingoan

ikusten ari garen moduan. Areago, nekazaritza eta abeltzaintza eredu hori oso menpekoa da erregai fosilekiko (mekanizazioa, ongarrri kimikoak, garraio beharrak, produkzioa zeharo globalizatuta baitago), eta hurrengo urteotan elikagaien prezioak izugarri garestitu daitezke —eta goseteak sortarazi—, energia iturri horiek agortuz doazen heinean.

Des-hazkunde sostengarria

Zergatik ez pasatu, beraz, Elikadura Subiranotasunaren eredura? Tokian tokiko produkzioak tokian tokiko sistema tradizional hobetuekin, eta elikagaien merkataritzak minimora, hurbiltasunera jo dezala. Nekazaritza-industriaren interesak daude tartean, eta oso lobby boteretsua da. Baina harago begiratu beharko genuke. Kontu hau zorrozki ikertu duen Jorge Riechmann-ek azpimarratzen duen moduan, eredu horretara joateko Mendebaldeko biztanleok asko murriztu beharko genuke jaten dugun okel kopurua. Txuletak, berriro ere, luxuzko artikulua izango lirateke, jai-eguneko kontua, hanburgesak eta *big beñatak* hiri handietako bitxikeriak; *ehun urtez, oilasko jatez* esango genioke berriro elkarri, gure desiorik onenak adieraziz... hori bai, ez genuke dirua *fitness*-etan xahutuko, agian korrika bakarrik egingo genuke autobusa ez galtzeko eta pare bat urtean behin euskararen alde.

Krisi global orokorraren garai honetan (askotan esaten den moduan, krisi ekonomikoa, ekologikoa, energetikoa eta osasuna eta elikadurari dagokiena pairatzen ari gara) gero eta boz gehiago entzuten dira des-hazkundearen alde. Frantzia aspalditik dabil Serge Latouche ekonomista eta antropologoa kontzeptu hori plazaratzen, mugimendu ekologista globalak gero eta bereago egiten du aldarrikapen hori, normala den legez. Orain ezkerreko zenbait mugimendu politikok ere gaia plazaratzen du. Baina eztabaida luzea eta korapilatsua izanen da.

Izan ere, kontuak zerikusi handia dauka eredu ekonomiko eta politiko globalarekin, zalantzarik ez; bestalde, prozesu ho-

rretan sakontzeak norberaren jarrera eta ohituretan aldaketa sakonak egitea eskatuko luke, esan izan dugun moduan. Baina horretaz harago —eta ez da erronka txikia, soilik horrela planteatuta—, gure kulturaren, gure mundu-ikuskeraren oso erroturik daukagu, ez hazkunde eternalaren kontua, areago garapenaren sinesmena baizik. Gilbert Rist-ek nabarmendu izan duen bezala, gure mendebaldar kulturaren garapenarena sinesmen mailan mugitzen da. Sinesmenak ez dira ideiak, praktikarekiko alderatzen diren irizpideak; sinesmenetan sinetsi egiten da, eta errealitateak kale egiten badu, arrazoi gehiago sinesteko. Horrela, *Hirugarren Munduko garapenetik landa eremuetako garapenera* pasatu gara eta gero *tokian tokiko garapenera* heldu gara, kontzeptu hori zero emaitzako ez balitz bezala: batzuek irabazteko beste batzuek galdu behar, garapenak azpigarapena eskatzen du eta muga horrekin joko dugu beti, etengabeko hazkunde ekonomikoak planetaren muga fisikoekin joko duen moduan.

Baina aurrerabidea, hori hitz magikoa da. Baliteke mundua etengabe jiraka aritzea eta baliteke historia ere etengabe bueltaka ibiltzea, gizateriaren belaunaldi diferenteek arazo oso antzekoei aurre egin behar izatea. Beti ere asmatzearen esperantzan, esperantzara kondenatuak. Baina aurrerabidera kondenatuak? Horra, ez bai potoloa. ¶